

+  Huheziko dekanu Begoña Pedrosari elkarrizketa

Bailarako denda zaharretakoak, erreportajea



Estreinaldia

30 pilotuk parte hartuko dute lehenengo aldiz egingo den Udalako Auto Igoeran / 38


XABIER URZELAI

Arantzazuko harrobia ezbaian

52.300 metroko zabalera du gaur egun eta 100.000 metro karratura handitzea eskatu dute Jaurilaritzan / 34

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira. Gogoratu!









Azaroan barik, oraingo astean hasi dira Fagor CNAn EREa aplikatzen, 122 langileri / 2

Kepa Errasti aretxabaletarrak egindako 'Mami Lebrun' estreinatuko dute domekan / 15

Arrasaten egingo duten inoizko zarzuela zailenerako sarrerak, datorren astean salgai / 40

Hamar kilometroko mendi lasterketa jokatu dute etzi, domeka, Osintxun, lehen aldiz / 39

SINADURAK

 IDOIA PEÑAKOBA / 8	 IOSU ELORTZA / 26
 ANE GOROSABEL / 10	 JON SAGARZAZU / 37
 MAIDER ALDAI / 17	 IDOIA ETXEBERRIA / 48

Fagor CNAko 122 langile langabezia geratu dira

Fagor CNAk hala eskatuta, azaroan hastekoa zen EREa eguaztenean, urriak 26, hasi da aplikatzen. Garagartzako Fagor CNAren lantegiko (Geysarren lantegia ez) 144 langileri eragiten die, baina 122 daude lan gabe eguaztenetik hasita.

Leire Kortabarria ARRASATE

CNAren Garagartzako langileak dira guztiak. Egoketa lerroko langileak 2 asterako daude langabezia, eta garbiketa lerrokoak, 4 asterako.

Langileen ordezkarri sindikalek "kezka" azaldu dute, izan ere, "ez dago batere argi gero noiz eta nola bueltatuko diren lanera". Euren kontratua suspentsioan dago orain; ez da eten, baizik eta epe baten ondoren berriz efektibo izango dela suposatzen da. Baina langileak kezu dira zuzendaritzak ez duela EREarekin batera bideragarritasun planik aurkeztu.

Enpresak arrazoi ekonomikoa eman du EREa aplikatzeko, eta aurretik esana du helburua dela pilatuta duen stock-ari irteera ematea. Langileen itxaropena da hori zorrotz betetzea eta, beraz, stock-a bukatu bezain laster, jarduerari berriz ekitea.

Esandako arrazoi horri jarraituz, lanik gabe geratu diren 122 langileak ekoizpen arlokoak dira: ekoizpen zuzena, mantenimendua... EREaren eraginpean baina lanean jarraitzen duten 22 langileek jardunean segitzen dute "fabrika martxan edukitzeko beharrezkoak delako langile batzuk izatea; hornikuntzako langileak, mantenimenduko batzuk... oraindik lanean daude", enpresa batzordeko kideen esanetan.

Langileak ez daude ados

EREa akordiorik gabe egin da, hau da, ez dira bertako puntuak adostu enpresaren eta langileen artean. Edozein modutan, enpresako zuzendaritzak zenbait gauza egingo duela agindu die langileei: esaterako, langabezia dauden langileen soldatak osatuko dituela eta Hobetuz-en bitartez formazioa eskainiko diela. Hain zuzen, prebentzio arloko formazio plan bat presatzen dabil enpresa. Enpresa



Fagor CNAren lantegia. GOIENA

BI EDO LAU ASTERAKO DAUDE LANIK GABE, URRIAREN 26AN HASI DEN ERE-AK AGINDUTA

batzordeak dio langileek ez onartzeak suposatzen duela enpresari ez zaiola harantzago beste pausorik emateko askatasuna ematen. Eta honela azaltzen dute: "Oraingoan arrazoi ekonomikoak eman ditu enpresak; langileek EREa onartuz gero arrazoi ekonomikoengatik, enpresa ixteko EREa etorriko balitz hurrengo eta horregatik kaleratzeak baleude, enpresa batzordeak horiek onartu egiten dituela suposatuko luke".

Gaineratzen dute, euren iritziz, espedienteak ez diela lantegiaren "arazo estrukturaleri" konponbidea ematen. Honako hauek dira langileen ordezkarri baten hitzak: "Ez da konponbiderik antzematen eta egoera ilun ikusten dugu".

Enpresa batzordearen eta zuzendaritzaren arteko azken batzarra izan zenean, joan den

egubakoitzean, enpresa batzordeak zuzendaritzari eskatu zion bideragarritasun neurri batzuk aurkez zitzala etorkizunera begira, eta beste batzar bat eskatu zuen, baina oraingoz ez dute erantzunik jaso. Batzar hori eta gero prentsa ohar bidez berretsi zuten langileek Fagor CNA "proiektu bideragarria" izan zitekeela eta horretaz ez zutela "inongo zalantzarik"; baina, euren esanetan, horretarako "guztion inplikazioa behar du: zuzendaritza, langileak, instituzioak".

Fagor CNAk, erantzunik ez

Fagor CNAk urriaren 10ean jakinarazi zuen Garagartzako jarduera "aldi baterako" bertan behera uzteko asmoa. Horren arrazoia da, enpresaren esanetan, 2017rako lerro zuriko produktuen gama berria prestatzen dabilela, eta hori egiteko, "merkatuaren eskaerara eta aurreikusitako stock-era egokitu" behar dela.

Fagor CNAko zuzendaritzarekin harremanetan jarrita informazioa handitzeko asmoz, hedabide honek ez du oraingoz erantzunik jaso.

Bertako eta atzerriko jatorriko familiak elkartu nahi dituzte

Bizilagunak ekimenak mahaiaren inguruan elkartuko ditu hainbat familia azaroaren 13an

L.K. ARRASATE

Jatorriz atzerritarren diren familiak eta jatorriz Euskal Herrikoak bertakoak direnak mahaiaren bueltan elkartu nahi ditu Bizilagunak ekimenak. Familia horiek, binaka, eurentariko baten etxean batuko dira elkarrekin bazkaltzera. Parte hartu nahi dutenendako izen emate epea zabalik dago. Horren berri eman du ekimenak prentsaurrekoan, eguenean. Sustatzailea da SOS Arrazakeria, eta bailarako hainbat herritar eta eragilek laguntzen dute.

Bosgarren urtez jarraian egingo da ekintza hori. Familia zentzu zabalean ulertzen dute, hau da, bizitza partekatzen duten pertsonak: bikoteak, bizilagunak, ama-alabak, e.a.; norbanakoek bakarka ere parte har dezakete.

Herri guztietan egin nahian

Orain arte, Debagoienean, Antzuolan, Oñatin, Aretxabaletan eta Arrasaten egin izan dira bazkari horiek, eta bereziki animatu nahi dute gainontzeko herrietako jendea, parte har dezan.



IMANOL BELOKI

LOMCEren aurkako ekintzak

ELA eta Steilas sindikatuek deituta eta gurasoen elkarte Ehigeren babesarekin, lanuzteak eta elkarretaratzeak egin ziren eguen goizean hainbat ikastetxetan, LOMCEren eta Heziberriren aurka agertzeko. "Azken urteetan hezkuntza komunitatea jasaten ari den erreforma salatu nahi da: errebalidak, murrizketak...", azaldu dute Eskoriatzako Luis Ezeizatik.

Betikeko eta Betikoko langileek, lan hitzarmen berriak

Oñatiko Betik eta Bergarako Betiko enpresetan hitzarmenak egin ditu ELAK. Betik-en kasuan, erabateko blindajea lan-erreformagatik, urte beteko hitzarmena, % 2ko igoera eta 11 langile parekatzea lortu dute (urtean 650 euroko igoerekin); Betikorenean, bi urteko hitzarmena eta % 1,8ko igoera aurten, beste beste.

Idoia Mendiarekin bildu dira Ordaindu eta Eskuratu

PSE-EEko idazkari orokor Idoia Mendia eta beste goi-ordetzari batzuekin batzartu dira asteon Ordaindu eta Eskuratu. Bi plataformek azaldutakoaren arabera, legez besteko proposamena aurkezteko asmoa azaldu zieten, eta PSE-EEko buruzagiek "testu zehatza planifikatzera animatu" dituzte.

150 lagun pasari ematen dio lan Gureak enpresa taldeak Arrasateko tailerrean

Lana baliatuta, desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzea helburu duen enpresa taldea da Gureak

Ubane Madera DEBAGOIENA

"Lanera etortzea denondako da garrantzitsua: etortzea, ordutegia jarraitzea, dirua irabaztea, besteekin harremanak izatea... denondako bada garrantzitsua, euren erantzukizuna ere bai". Baieztapen horrekin balioan jarri dute desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzen laguntzeko Gureak enpresa taldearen ekarpena.

Debagoieneko kasuan, Arrasateko tailerra da horren adibideetako bat. Nerea Sanchezek, hango enkargatueta batek, jakinarazitako moduan, 150 pertsona inguruk dihardu bertan lanean: 113k soldatapeko lanpostua dute eta beste 52, berriz, formazioa jasotzen dabilta, zerbitzu okupazionala.

Automozioa, giltzak...

Behargin horiek automozio arloko lanak egiten dituzte, gehienbat, autoendako hainbat kable sistema muntatzen, katean.

Hyundai da, adibidez, Gureak taldearen bezeroetako bat; haren ibilgailuen bolanteetan txertatuta doazen kotsolak egiten dituzte Arrasaten.

Copreci da beste bezeroetako bat. Harendako balbulak egiten dituzte.

Eta JMA ere bezero dute, hirugarren adibide bat jartzearen. Kasu horretan, Arrasateko enpresak egiten dituen giltzak paketatuta egiten dituzte Arrasateko tailerrean.

Edozein tailerretan moduan, zortzi orduko lan-jarduna dute,

08:00-08:20an sartu eta 17:20ak arte -barkaria barne; batzuek bertan, beste batzuek etxean-, atsedena egiteko aukera ere badute -kafe makinaren bueltan, gehienak-, apartekorik ez, bada. Ezohikoa dena da bertako langileek desgaitasunen bat dutela, fisikoa edo psikikoa, hori da eta Gureak-en tailerretan behargin izateko baldintza. "Gipuzkoan 5.000 langile izatera iristen ari gara enpresetan, zerbitzuetan, tailerretan... hortik langileen %83k du desgaitasunen bat", zehaztu du Sanchezek.

Enpresekin elkarlan beharra

Bestalde, langile horiei Gureak taldetik kanpo lan egiteko aukera ere eskaintzen diete: "Garrantzitsua da eurek ikustea tailerrean egiten duten lana beste enpresa batzuetan ere egin dezaketela; horretarako behar dugu enpresen konpromisoa pertsonak kontratatzeko; batzuk baditugu, baina oraindik kostatzen da ulertzea lan normalizatua egin dezaketela", esplikatu du Sanchezek. Izan ere, Gureak-etik ziurtatu egiten dute bertako pertsonak gauza direla eskatutako lanpostua betetzeko: "Lan-trebatzaile bat egoten da langilearekin behar den denbora guztian (...). Ez da joaten ikusi arte langilea gai dela lan hori egiteko bera bakarrik".

Desgaitasunak, horrenbestez, ez die eragozten lanera joatea; are gehiago, aukera emanez gero, gogotsu eta indartsu lan egiten dutela erakusten dute eguneroan.

"Lan-trebatzaile bat egoten da langilearekin behar den guztian"

NEREA SANCHEZ ARRASATEKO TAILERREKO ENKARGATUA

Nerea Sanchez bergararra da Gureak-eko Arrasateko tailerreko enkargatueta bat.

Edozein etor daiteke Gureak-en tailerretara?

Ez. izan behar da %33tik gorako desgaitasunen bat duen pertsona, Diputazioak baloratutakoa; gero, hona etorri, eskaera bete eta prozesua egiten da.

Zein da prozesua?

Poliki-poliki hasten gara, lanean trebatzen. Gero, ikusten dugu



bakoitzak ze helburu duen; izan ere, batzuek tailerrean geratu nahi izaten dute eta beste batzuek, berriz, kanpoan lan egin nahi dute.

Beraz, kanpoan ere baduzue lan-esparru bat?

Bai; helburua da jendea gizarteratzea lan esparruaren bitartez. Hainbat enpresa kolaboratzaile ditugu; Eroski, adibidez.

Langile horien jarraipen bat egiten duzue?

Lan-trebatzaile bat egoten da behar den denbora guztian langilearekin enpresan, lanpostua erakusten, laguntza ematen, zailtasunak ikusten... lan trebatzaile hori ez da joaten ikusi arte langilea gai dela lan hori egiteko bera bakarrik. Ez dugu sekula pertsona bakarrik lagatzen enpresa batean, Gureak beti egoten da jarraitzen.

"Hemen gustura nago, lagunak egin ditut eta pozik egoten naiz"

AINARA ESTEBAN GUREAK TAILERREKO LANGILEA

Arrasatearra da Ainara Esteban. Arizmendi Ikastolan ikasi eta lan egin ondoren Gureak-era joan zen, handik Garaiara eta orain bueltan da Gureak-en tailerrean. **Garaiako jatetxetik atzera ere bueltatu zara; zergatik?** Jatetxea itxi egin zelako, Fagorrekoek ez zutelako lanik.

Han beste zereginen bat izango zenuela pentsatzen dut...

Platerak, mahaiak garbitu, jendea janaria eman...



Eta Gureak-en zein da zure zeregina? Bridak jartzen ditut. **Zeharo desberdina...** Bai, eta, gainera, erraza da.

Norbait zalantzan balego Gureak-era etorri, ez etorri, zer esango zenioke?

Etortzeko. Jendea ezagutuko duela eta gustura egoten dela.

Zuri zer ematen dizu Gureak-ek pertsona eta langile moduan?

Jendearekin conforme nago eta enkargatuarekin ere bai. Lagunak egin ditut. Eta pozik egoten naiz. **Zer da zure egun normal bat?** 07:00etan jaiki, gosalduta eta hona etortzen naiz. Hemendik irten eta dantzara joaten naiz; umeari dantzak erakutsi, eta gero mutilari itxaroten diot, gimnasioan. Gero, kafea hartzera, paseatzera...

"Zalantza duenari esango nioke hemen gustura nagoela, proba egiteagatik..."

ALAITZ ITURBE GUREAK TAILERREKO LANGILEA

Alaitz Iturbe arrasatearra 13 urte egin ditu Fagor Etxetresnetan lanean, harik eta hura itxi zuten arte. Bederatzi hilabete daramatza orain Gureak-en tailerrean lanean. **Zuk zeuk izan zenuen Gureak-en berri?**

Fagorren sartu nintzen Gureak-en bitartez, eta kalean geratu nintzenean Gureak-etik deitu zidaten.

Zein da gaur egun zure zeregina?



Nik egiten dudana da autoen kable-sistemari konektorea jarri, eta gero, nire ondoan dagoen lankideak jartzen du kablea.

Ikusten da lagunak ere badituzula hemen...

Ez dut guztiekin berba egiten, baina bai, badituzte lagunak.

Zer da Gureak-era etortzea?

Pozik nator, lana gustatzen zait eta jendearekin egotea ere bai. Gustura.

Norbait balego zalantzan Gureak-era joan edo ez, zer esango zenioke?

Nire esperientziarengatik, ni gustura nagoela. Berak proba egin nahi badu... Proba egiteagatik...

Zer da zure egun normal bat?

Zazpietan jaikitzen naiz, 08:30erako hona etortzen naiz, 17:20an irteten gara eta arratsaldean, ba, segun...

Komunikazio lokala esparru globalean

Azaroaren 14an toki komunikabideen gaineko jardunaldiak egingo dira Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean, Tokikom-ek antolatuta (Toki Komunikabideen Bateragunea)

Goiena komunitatea

TOKIKOM Toki komunikabideen

bateragunea / DEBAGOIENA

Berez ez dirudi denbora asko, baina komunikabideen mundua goitik behera aldatu da 1980ko hamarkadan euskarazko toki komunikabideen loraldia gertatu zenetik.

Euskarriak, publikoa, teknologia, komunikabide bat zer den ulertzeko modua ere aldatu egin da. Eta testuinguru horretan, zer bide egin dute toki komunikabideek? Zeintzuk dira aurrean duten bidegurutzaren ezaugarriak? Zeintzuk aukerak eta mehatxuak?

Horren inguruko gogoeta egin nahi dugu jardunaldi hauetan, bertoko zein kanpoko adituen laguntzarekin. Egun erdiko bilkura proposatzen dizuegu horretarako, arloka banatutako saio praktikoaren bidez: edukiak, teknologia eta finantziarioa.

Gaia interesekoa baduzu, zabalik duzu gonbidapena. Azaroaren 14an elkartzeko gara, astelehenean, Arrasateko Garaia Berrikuntza Zentroan. Eman izena orain, plazak mugatuak dira eta.

Izen-ematea azaroaren 9ra arte

Jardunaldietara etorri nahi baduzu, azaroaren 9ra arte duzu izena emateko epea. Jardunaldietara

Hizlariak, partaidetzaren arabera

- **Jon Sarasua** Huzezi. Irakaslea.
- **Kike Amonarriz** Soziolinguista eta komunikatzailea.
- **Francesc Fàbregas** Associació Catalana de Premsa Comarcal. Presidentea. *El Vallenc*. Zuzendaria.
- **Oihana Blanco** Innobasque. Ekonomia zirkularreko proiektu arduraduna.
- **Eneko Bidegain** Mondragon Unibertsitatea. Irakasle eta ikerlaria.
- **Igor Etxeberria** Bera-Bera kirol kluba. Kudeatzailea.
- **Joxema Irigoien** Ttipi-Ttapa Fundazioa. Kudeatzailea.
- **Jorge Campanillas** Iurismática Abogados. Abokatua. Sortzailea.
- **Guillermo Vilarroig** Overalia. CEO.
- **Xavier Jiménez** *Only Media Web*. Zuzendaria.
- **Ramón Salaverria** Nafarroako Unibertsitatea. Center for Internet Studies and Digital Life. Zuzendaria.
- **Jordi Bernet** Beleader. Bazkidea eta zuzendari komertziala.
- **Eli Vivas** *El Periódico de Catalunya*. Datu-kazetaritza koordinatzailea. Hack Hackers Barcelona. Sortzailea.
- **Ander Garcia** Vicomtech-1K4. Senior ikerlaria.

dietako izen-emateak 65 euroko prezioa du, eta haren barruan sartzen da jardunaldia bera, materiala eta bazkaria.

Izen ematea automatikoki prozesatzeko, StageHQ zerbitzua erabiltzen ari gara. Adierazi zenbat sarrera behar dituzun eta eman *Buy your tickets* botoiari izena eman eta ordainketa egiteko –sistema erdaraz dago; barkatu eragozpenak–.

Edozein zalantza edo arazo izanez gero, idatzi mesedez jardunaldiak@tokikom.eus helbidera.

Publiko osoarendako ere bai

Tokikom Jardunaldi hauek bi zatitan planteatuko ditugu: lehenengoan, publiko osoarentzako hitzaldi orokorrak izango ditugu. Bigarrenetan, berriz, aurkezpen labor eta praktikoagoak izango ditugu, hiru gairen inguruan antolatuta: marketina, edukiak eta teknologia.

Parte-hartzaile bakoitzak aukeratu ahal izango du ordu bakoitzean zein aurkezpenera joan,

JARDUNALDIAREN GAINENKO ALDIZKARIA LANDUKO DA BERTAN, ETA ARRATSALDEAN BANATUKO DA

arroza, adibidez. Hogei ekoizlekin parte hartuko dute.

Produktuen salmentaren %25 Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara doa, eta hiru proiektutara bideratu ohi dute, kanpainako ordezkari Ibai Sueskunek jakinarazitakoaren arabera: AEK, Ikastolen Elkarte eta Sortzen Ikasbatuaz.

Euskal Herriko eta, bereziki, Debagoieneko hainbat elkartetako lagunak elkartzeko kanpainaren berri eman eta saskiak osatzeko, auzolanean.

Egitaraua

- **09:30-10:15 Toki komunikabideak euskararen transmisio katean.** Jon Sarasua. Kike Amonarriz.
- **10:15-10:45 Tokikom Sariak.** Banaketa ekitaldia.
- **10:45-11:15 Associació Catalana de Premsa Comarcal. 35 urteko ibilbidea(*).** Francesc Fàbregas (President ACPC). –Ondoren atsedenaldia–
- **11:45-12:15 Marketing Ekonomia zirkularra edo baliabideen erabilera efizientea. Produktu ukigarrien esperientziatik edukiak bezalako produktu ukiezinen inguruko hausnarketara.** Oihana Blanco.
- **Edukia El Vallenc: 120 orriko tokiko astekaria(*).** Francesc Fàbregas (El Vallenc)
- **Teknologia. Produktu eta zerbitzu berrien diseinua hibridazioaren bidez.** Eneko Bidegain (Huzezi).
- **12:20-12:50 Marketing Mezenazgoa. Egitasmoak finantzatzeko aukera on bat.** Igor Etxeberria (Bera-Bera kirol kluba). Joxema Irigoien (Ttipi-ttapa aldizkaria).

- **Edukia Argazkien erabilpena prentsan, legearen ikuspegitik(*).** Jorge Campanillas.
- **Teknologia Analitikak eta bilatzaileetako posizionamendua toki komunikabideen testuinguruan(*).** Guillermo Vilarroig (Overalia).
- **12:55-13:25 Marketing Tokikom Kanal Digitala: euskarazko online publizitateko sarerik zabalen(*).** Xavier Jimenez (Onlymediaweb).
- **Edukia Kazetaria eta erredakzio taldea informazio multimediaren aroan(*).** Ramón Salaverria. UNAV.
- **13:30-14:00 Marketing Trafiko mugikorra monetizatzekeo estrategiak(*).** Jordi Bernet (Beleader).
- **Edukia Datu-kazetaritza eta erakundearen gardentasuna toki komunikabideen testuinguruan(*).** Eli Vivas (El Periódico de Catalunya).
- **Teknologia Gurenews: edukien etiketaje automatikoa Tokikom Plataforman.** Ander Garcia (VicomTech-1K4)

bere gustu eta interesen arabera –izartxoaren duten hitzaldiak gaztekeraz izango dira–.

104 proposamen, sariketarako

Tokikom Jardunaldietako lehen hizlariaren ondoren, Tokikom Sarien banaketa egingo da.

Tokikom toki komunikabideen bateragunea da eta helburu nagusietako bat du euskarazko toki komunikabideak sustatzea. Hori dela eta, Tokikom Sariak ematea erabaki du, toki komunikabideen lana gizarteratu eta publikoki aitortzeko asmoz. Aur-

tengoa da sariketaren lehen edizioa eta bertarako proposamenak aurkezteko epea itxita dago jadanik. Are gehiago, epaimahaia gogor dabil lanean, aurkeztu diren 104 proposamenen artean erabakitzen. Azken erabakiaren berri, azaroaren 14an, Tokikom Jardunaldietan!

Bestalde, hitzaldiez eta sari banaketaz gainera, jardunaldiei itxiera emateko bazkaria ere izango da, eta ondoren jardunaldiaren gaineko aldizkaria banatuko da bertaratutakoaren artean.

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko saskiak

Hamahiru produktuz osatutako bi saski daude salgai, 50 eurotan, Errigora kanpainaren barruan, hilaren 14ra arte

U.M. DEBAGOIENA

Elikadura burujabetza, Nafarroa hegoaldeko euskalgintza sustatzea eta auzolana bultzatzea. Helburu horietan laguntzera bideratuta dagoen Errigora kanpaina aurkeztu zuten Arrasaten

domekan. Azaroaren 14ra arteko epea dago bertako hamahiru produktuz osatutako saskiak erosteko. Gainera, bi saskirekin osatu dute eskaintza, orain arte eskaini bako produktuak sartu dituzte-eta aurtengo kanpainan;



Errigora ekimenaren aurkezpenera, Arizmendi Ikastolako Arimazubi gunean. ERRIGORA

"Gure ekarpen soziala da balio erantsirik onena"

JON IGARTUA BIDEBARRI SL-KO ZUZENDARIA

Duela hogeitau urte, desgaitasunak zituzten pertsonei eta bazterkeria arriskuan zeudenei lana emateko jaio zen Bidebarri SL, eta, egun, kolektibo hauen laneratzean dihardu

Xabi Gorostidi OÑATI

Oñatiko Bidebarri SL enpresa ez da enpresa arrunt bat. Lana bilatzeko zailtasunak dituzten pertsonei soldata bat irabazteko aukera ematen die, betiere, bezeroei kalitatezko zerbitzua eskainita.

Noiz eta nola sortu zen Bidebarri?

1996an sortu genuen Bidebarri enpresa, batez ere, Oñatin egoera sozioekonomiko larrian zeuden pertsonek lanak topatzeko zituzten zailtasunak ikusita. Hutsune handia ikusi genuen ezgaitasunak zituzten pertsonek laneratzean, eta baita gizarte-bazterketa egoeratik gertu zeudenengan ere. 1994-95 urtetan Oñatiko Udalak herrian egoera sozioekonomiko larrian aurkitzen ziren pertsona-taldeak azterketa bat egin zuen. Azterketa honen ondorioz, egokia ikusi zuen Oñatiko Karitas-ekin batera elkarlanean enpresa bat sortzea.

Beraz, helburuak garbi zenituzten?

Egoera kritikoa dagoen jendea laguntzeko tresna izateko jaio ginen. Horretan aritu gara hogeitau urte hauetan, krisi zein loraldi ekonomikoetan.

Zein aktibitate ekonomikotan zentratzen zarete?

Hiru aktibitateekin abiarazi genuen Bidebarri: enpresentzat vending zerbitzua, ogi salmen-



Jon Igartua, janaria eta edaria dituen vending makinaren alboan. XABI GOROSTIDI

tarako denda eta azpikontratutako muntaiak egiteko tailer bat, batez ere, sarrailagintzarekin lotuta. Vendingaren kasuan, progresiboki handitzen joan den aktibitatea izan da, eta egun ere tendentzia bera mantentzen du. Ogi dendaren kasuan, 2009ra arte haziz joan den segmentua izan da, baina krisi ekonomikoaren eraginez errentagarritasuna galdu zuen eta tailerrarekin ere berdina gertatu zitzaigun. Horren aurrean, hauen galerei erantzuteko aktibitate berriak garatzen hasi gara, garbiketa eta banaketarekin lotuta. Hala, Azkoagain futbol zelaiko eta parkingetako garbiketak guk egiten ditugu, eta baita *Kontzejupetik*-en aldizkariaren banaketa ere. Garbiketa arloan esperientzia oso positiboak izan ditugu elkarte gastronomikotan, eta etorkizunera begira garapen handia izan dezakeen aktibitatea dela uste dugu.

Laneratze enpresa bat zareten heinean, zein da gizarteari egiten diozuen ekarpenik handiena?

Laneratze enpresa baten ezaugarri nagusia gizarteratze prozesuan dauden pertsonei lana topatzen laguntzea da. Esate baterako, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak, drogamenpekotasun zentroetatik irteten direnak, kartzela zigorra bete berri dutenak, adingabe-koentzako zentroetatik datozenak eta orokorrean bazterkeria egoeran dauden pertsonek. Gizarteratze prozesu batek hiru hanka dauzka: lana, formazioa eta lana topatzeko gaitasunak transmitzea. Gure helburua da lan munduan lehen pausoak ematea, ondoren, euren kabuz, lana topatzeko. Nolabait esateko, zubi-lana egiten dugu bazterkeria egoeraren eta lan munduaren artean.

Krisi garaietan, bazterkeria egoeran dauden pertsonek profila anitzagoa izaten da. Igarri al duzue?

Tamalez, bai. Krisi ekonomikoak asko zabaltzen du bazterkeria egoeran dauden pertsonek jatorria. Bailara honetan %2,4-ko langabezia tasak ezaugu izan ditugu, eta, kasu hauetan, bazterkeria jasaten dutenak egoera oso larriak eta ezaugarri bereziak dituzten pertsonek izaten dira.

REASKO kide ere bazarete. Zer da bertan defendatzen duzuen?

Batez ere, ekonomia lantzeko beste ikuspegi bat da lortu nahi duguna. Egungo ereduak jendea bazterkeria egoerara eramaten du, eta hori onartezina da, gure ustez. Gaur egungo errealtateetik abiatuta garantia handiagoa eskaintzen duen eredu berri baten beharra defendatzen dugu. **Langileei dagokionez, ekarpen soziala egiten duzue, baina baita produktuekin ere?**

Bidezko merkataritzatik datorren kafea eta txokolatea eskaintzen dugu gure *vending*-etan. Enpresaren balioekin bat dator. Bost zentimo garestiago izan arren, etikoki balio erantsia duten produktuen aldekoak gara. **Zer esango zenioke Bidebarriren jarduna ezagutzen ez duen bezero berri bati?**

Probatzeko esango nioke. Bere kontsumo ohiturak aldatu gabe, eredu ekonomiko justuagoa bultzatu dezake, aldi berean, gizarterari egiten diogun ekarpena bultzatuz.

"BAZTERKERIA EGOERAREN ETA LAN MUNDUAREN ARTEKO ZUBI-LANA EGITEN DUGU"



Bidebarri
LANERATZE ENPRESA

20 urte vending zerbitzua eskaintzen

"Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatan enpresa txiki eta ertainentzat"






www.bidebarri.org

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe: Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com

UDAKO ARGAZKIEN XII. GOIENA LEHIAKETA

Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Banatu ditugu sariak

Banatu ditugu udako argazkien XII. Goiena lehiaketako sariak. Lau saridun izan ditugu. Alaine Roa arrasatearrak, *Ilunabarra* argazkiarekin, Orioko Aisia hotelean bi pertsonarendako spa zirkuitua eta asteburuko menua irabazi du. Angel

Aiastui aretxabaletarrak, *Lasai* argazkiarekin, Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarendako bazkaria edo afaria irabazi du. Zigor Kintana gatzagarrek, *Oporretako azken jolasak* argazkiarekin, Arrasateko Eroski

hipermerkatuak emaniko Kindle-a irabazi du. Azkenik, Miriam Campok, *Mikel paradisuari begira* argazkiarekin, Herritarren Saria irabazi du (munduko hainbat kafe motaz osatutako otarrea). Zorionak guztioi!



ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:



GURE AMETSA
JATETXEA



karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

Hipokrisia eta intoxikazio-bideak: Oñatitik Altsasura, elkartasunez

JULEN ARANBURU ETA OIER FERNANDEZ

'FAN HEMENDIK' MUGIMENDUAREN IZENEAN OÑATI

Altsasuko gertakarien harira, informazioa kontrastatu aurretik alderdi, instituzio eta komunikabide batzuek Guardia Zibilak emandako bertsio ofiziala defendatu eta kaka zabaltzeari ekin diote.

Horrela, Nafarroako Gobernuo lehendakari Uxue Barkos andreak "horrelako ekintzek bake prozesua oztopatzen" dutela azpimarratuz, bere babes osoa eskaini zien bi guardia zibilei. Ba al zekizkien, bada, gertakarien nondik norakoak? PNVko bere kideak ere ez ziren motz ibili, PPK Madrilgo Kongresuko mahai gainean jarritako adierazpena enpatxu handi gabe sinatuz. Bertan, "guardia zibilek jasandako segada arbuiatu eta ekintzarekiko gaitzespen irmoena" erakusten da. Gerora jakina denez, Guardia Zibilak berak txosten batean aitortu du ez zela egon segadarik Altsasun, nahiz eta fiskaltzak "terrorismo delitua" ikusten duen.

PNVren beso komunikatiboa den EITBk guardia zibil bat eta polizia nazional bat elkarrizketatu zituen, Euskal Herrian bizi duten mehatxu eta egoera latza azalduz. Guardia zibilak mehatxupean bizi al dira? Orain biktimak al dira indar okupatzaileak?

Urteetan zehar, Guardia Zibila izan da Euskal Herriko seme-alabak torturatu eta mehatxatu dituen inpunitate osoz. Azken kasua Altsasun gertaturikoa dugu. Bertako Ospa mugimenduak adierazi duenez, bi guardia zibilak, beraien bikotekideen konpainian, bertako herritarrek mehatxatzen eta probokatzen hasi ziren, "¡te voy a matar!" eta "¡te voy a meter un tiro entre ceja y

ceja!" bezalako esaldiekin; bultzaka eta jarrera oldarkor batekin.

Gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu Altsasuko herritarrei eta atxilotuak izan diren bi lagunei. Ospa mugimenduak eta altsasuarrek bidelagun izango gaituzue borroka honetan, eta segi gogor eta tinko errepresioaren aurka lanean, indar okupatzaile guztiek Euskal Herriatik alde egin arte!

Alde hemendik eta utzi bakean Euskal Herria! Utzi bakean Altsasu!

Erreka garbia eta biziagoa nahi dugulako

EIDER BALZATEGI

ERREKA BATZORDEAREN IZENEAN BERGARA

Erreka biziberritzea amets eta auzolana tresna dugulako... Urriaren 15ean, zapatu goizez eta eguraldi zoragarria lagun, laugarren aldiz aritu ginen gure erreka bazterrek garbitzen. Hamar talde eta tramotan banatu ginen 200dik gora lagun. Mekolaldetik hasi eta Olaraino.

Goizean goiz elkartu ginen. Batzuk Labegaraietan eta gainontzeoak Seminarioko patioan. Taldeak egin eta lanean hasi ginen, batzuk kamioiekin, beste batzuk piraguekin, eta gehienok erreka bazterrean sartu eta eskuetan traste zahar eta zikinkeriak jasotzen.

Leku askotan, aurreko urteetan egindako lana asko igartzen zen, eta goiza lasai joan zen. Zikinkeria ugari atera genuen, baina goiz-pasa ederra ere izan zen!

Gogora ekarri nahi dugu urtero dioguna: dagoeneko *erreka lagun* mordo bat garela esan dezakegu, erreka biziberritzea amets dugu eta epe motz-ertainera ibai osasuntsu baten alde lanean jarraituko dugu. Alde batetik, gure esku dagoena eginez, eta, bestetik, erakunde publikoei zein herritar eta enpresei euren eginbeharrak bete ditzatela eskatuz. Garbitzen eta eragiten

jarraitzeko bokazioa daukagu.

Lerro hauekin, eskerrak eman nahi dizkiegu zapatuko ekimenean lagundu ziguten honako erakunde hauei: DYARI, Beti Busti elkarteari, Debagoieneko Mankomunitateari, Hierros Naparrari, Bergarako Udalarari eta Oilagorra eta Pertxa elkartei.

Eta, nola ez, ekimenean zuzenean parte hartu zenuten lagun guztiei! Eskerrik asko! Eta datorren urtera arte!

Eskerrik asko, Maribel!

ITSASO PAGOAGA ZALOÑA

ARETXABALETA

Urte batzuk pasa dira elkar ezagutu genuenetik.

Emakume, langile, ama, amama, sukaldari eta herri ekimenetako partaide nekaezina izan zara azken unera arte. Beti irribarretsu, goxo, eta behar izan denean kementsu eta gogor. Herriaren, euskararen, emakumeon eskubideen alde, euskal presoen eta iheslarien eskubideen defentsan beti lanean fin, bozak gutun-azaletan sartzen, sukaldari lanetan, pankarta atzean, karteletara bisitan... zerrenda nahi beste luza nezake. Emakume nekaezina izan zara beti.

Aretxabaletako ezker abertzaleko zenbait kidek badugu joera berezi edo xeblebre bat; Mitarte plazara gerturatzen garen askotan gorantz begiratzekoa, alegia. Ez gara aritu izan eguraldiari edo usoei begira, ez. Ez eta hegazkinen arrastoei segika. Bertako balkoi batean, *Euskal presoak Euskal Herrira* dioen mairidun bakoian, beti zaintzen aritu den Maribelengana joan ohi dira gure begiradak. Elkar agurtu, egunari buruzko bitxikeriaren bat partekatu eta aurrera. Beti egon zara hor, Maribel. Plazako, herriko zaindari, gazteen eta ez hain gazteen zaindari.

Gaur, asteartea, Mitarte plazara gerturatu naiz eta nire begirada nahi gabe doa gorantz; mairidunak hor

jarraitzen du, baina zure begiradak ez. Eta krak txiki bat sentitu dut bihotzean. Baina zure lanerako grinak, goxotasunak, umoreak, irribarreak eta gertutasunak beti gurekin iraunen du. Eta nola ez, gorantz begiratuko dugun aldiro zurekin gogoratuko gara. Biba zu! Mila esker eman eta erakutsi diguzun guztiagatik. Eta era batera edo bestera gu guztiok zaintzeagatik. Beti egongo zara gure oroitzapenetan. Eskerrik asko, Maribel!

Amaitzeko, familiari eta lagunei animo eta besarkadarik sentikorrena. Bereziki, Garrentzat eta Fidelentzat.

Azala

NORA BARROSO

HTTPS://GOO.GL/J2HJ2Q

10 urte inguru nituela helduagoa zen mutil batek modu jarraituan gehiegikeriak eragiten zizkidan. Portaleko atetik gertu bere lagunekin ikusten nuenean dardarka hasten nintzen. Beheko atea azkar ireki eta –Gaur ez mesedez– pentsatzen nuen. Baina debalde, bere lagunei –voy a por ella– esan eta atetik etortzen zen. Eskaileretatik gora korrika joaten nintzen baina segituan harrapatzen ninduen. Atetik hartu eta oso gogor estutzen ninduen –Como grites...– esaten zidan beti. Ez zuen beste ezer gehiago esan beharrik. Orduan gorputz guztia ukitzen zidan paretaren kontra jarrita, edo –Te están creciendo las tetas–, edo buruz behera jartzen ninduen hanketatik helduta, eta abar. Lagunen eta sortzen zuen beldurraren babesean bere boterea eragiten zuen inpunitate osoz. Orain tortura baten moduan ikusten ditut ekintza guztiak.

10 urteko haur batek sexualitatearekin dituen harremanak bere sexuaren esplorazioarekin dituenak izan ohi dira edo-eta bide horretan inguruko lagunekin konpartitu ahal dituen ekintzenak. Adin horretan zikina sentitzen nintzen,

lotsatuta, nire errua zela pentsatzen nuen, gauetan isilean negarrez lokartzen nintzen. Fisikoki eta psikologikoki oso zapaldua nengoen. Egoera aldatzeko asmoz ihes egiteko modua eraiki nuen –Bera baino bizkorragoa izan behar zara eta horrela ez zaitu harrapatuko–. Eta hala egin nuen.

Trebatu nahian-edo, korrika egiten nuen eta toki guztietako eskailerak binaka igotzen hasi nintzen. Lortu nuen portaleko eskailerak ziztu bizian igotzea, nire borroroa nekatu zen eta ekintzari ihes egin nion.

Isilagoa bihurtu nintzela sentitzen dut, begirada tristatu zitzaidan, amets gaiztoak areagotu ziren; lokartzerakoa beti gauza bera, norbaitengandik ihesi eta ezin hankak mugitu.

Gauza txar hori nire sekretua zen, ezin nuen kontatu; hasieran beldurragatik, gero lotsagatik, ondoren "ba denbora asko pasa da" pentsatzen nuelako... Zama horrekin eraiki behar izan dut sexualitatea eta nire buruarekiko dudan maitasuna; guzti hau pisu handia izan da. Barne eta kanpo borrokak, zein mina iraultzeko gogoak eraman naute ona.

Bakoitzak du bere minak gaintzeko modua, bere bidea, ulertu hala ez errespetatu behar dena. Eta ulertu dut 10 urteko neskatila hura dela gaur hemen idazten ari dena, biharko emakumea ere badela gaur hemen dagoena, gaur ez naizela atzo baino ausartagoa eta momentuan barruari begiratzeko eman diodan aukeran egon dela beti gakoa nirean, bizipenak metatu ahala irtenbideak eraldatzen joan direla eta arro nagoela korri egiteko erabakia hartu izanaz.

Hau min baten istorioa da, inguruaren islada dena. Modu batera edo bestera pertsona ugari bizi izan dute antzeko pasarteren bat, forma ez da bera izango baina boterearen gorputza bera da.



ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA

Albistegia ala 'txarbiltegia'?

Burura etorri berri zait aurreko baten nire haur txikiak egindako galdera: "Ama, telebistan zergatik ematen dituzte berri txarrak bakarrik?". "Ez, txiki, mota guztietako berriak ematen dituzte albistegietan..."

Baina orain konturatu naiz, beharbada, galdera horrek baduela bere zentzua.

Piztuta dagoen telebista aurrean eseri naiz, atsedean une batez gozatzeko asmoz. Albistegiaren tartea. Hamar minutuko epean hamaika berri bota ditu esatariak, batetik bestera arrapaladan salto eginez, presaka, amaigabea zirudien zerrenda balitz bezala: Turkiako atentatua, Siriako bombardaketa, Yemengo gerrate odoltsua, Haitiko uholdea, goseak hiltzen dauden umetxoen argazki mingarriak, bortxaketak, eskale baten erreketak krudela kalean... txundituta gelditu naiz, hartu dudana aire ahokada bakoitzarekin tragedia bat arnastu ahala.

TURKIAKO ATENTATUA, YEMENGO GERRATE ODOLTSUA, HAITIKO UHOLDEA, BORTXAKETAK...

Ipuinetako mago eta sorginek bezala, telebistaren mando magikoarekin *off* klikatu ohi dugu lasai asko, horrekin gertaera samingarriak bat-batean desagerrarazteko boterea bagenu bezala, kaxaren odol gorri kolorea beltz bihurtuz,


edota doinu alaiagoak igortzen dituen beste kate batera pasatuz. Laster baten ordea, berriz ere horrelakoak entzungo ditugu, normaltasun osoz, krudelkeria berrien aurrean askorik hunkitu gabe, irudizko gertaerak balira bezala, fikziozko film bateko alegiazko kontakizunak, edota alegiazko planeta bateko zentzugabekeriak...

Are okerrago, horrelako asko albistegi-*txarbiltegi*etan agertu ere egiten ez baitira askotan, agian askorentzat ez dira-eta nahikoa tragedia, entzungor egitea nahiago duen gizarte aurreratu (atzeratu) honentzat...

Eta krudeltasun espiral honetan, zein da irudikatu dezakegun etorkizuna? Noraino gal dezake gizakiak bere gizatasuna? Noraino hel daiteke bere bihozgabekeria? Zer entzun eta ikusiko dute gure haurrek eta ondorengoek etorkizuneko *txarbiltegi*etan?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA GOIENA.EUS/KOMUNITATEA



ZEUK ESANA

ETAK armak laga ostekoa irudikatzen zenuen modukoa izan da?

XABI ARREGI

OÑATI

Ezta hurrik eman ere! Ez bataren, ez bestearen, ez hangoaren aldetik, gainera.

Espainiako Gobernuak bere horretan segitzen du, eta ETAK arma guztiak entregatu arte eta disolbatu arte, ez du ezer egingo; bueno bai, egingo ditu gauzak: oztopoak jartzen segituko du, orain arte bezala.

MIKEL ARANTZABAL

EIBAR

Argi zegoen bidea ez zela erraza izango, baina bost urte

pasatu dira eta ez da ezertxo ere egin. Espainiako Gobernuak geldi, Eusko Jaurlaritzak epel; bitartean, dispersioa gogorragoa da. Orain dela bost urte, esperantza piztu zen, baina argi geratu da Alderdi Popularra ez dagoela gertu pauso bat aurrera emateko; ez, behintzat, presoak Euskal Herrian egon daitezten.

ANE GONZALEZ

ARRASATE

Ba, baietz esango neuke. Hau gertatuko zala pentsetan

neuen. Izen be, zeinek uste euen gauzak aldatu egingo zienik, ba? Bagekixen, eta badakigu, Espainiako Gobernuandako txollo hutsa dala ETA ez desegittie. Hori klaru dau.

Bittartien, batzuen eta bestien esanak, hutsaren hurrengo.

Pentsau: zer gertatuko litzake ETA desagertuko balitz eta arma danak entregauko balittu? Errexa erantzune: espainiolek asmatuko euiela zerbait hori atzera botateko.

HURRENGO ZENBAKIAN: ZE IRITZI DUZU ZOOLOGIKOEN GAINEAN?

Iritzia emateko: berriak@goiena.eus / eta Goiena.eus webgunea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura), Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Jokin Uribeetxeberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Gaiatz Arana.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

PROTAGONISTA

"Eztabaida handia pizten du oraindik ere Pio Barojak"

ANGEL ERRO IDAZLEA

Mireia Bikuña ARRASATE

Pio Barojaren heriotzaren 60. urteurrenaren harira, *Pio Barojaren testamendua* izeneko berbaldia egin du Angel Erro idazleak Arrasaten.

Barojista eta Barojazale asko daudela esan duzu. Zu zeu ere bai?

Esango nuke Barojista eta Barojazale gehienak adin batetik aurrerako gaztelerazko idazleak direla. Euskal idazleak gutxiago gara eta idazle gazteak oso gutxi. Barojari buruzko zenbaterainoko jakin-mina edo ardura dago gaur egungo idazleen artean? Erantzuna ez daukat oso garbi.

Zer da, zuretzat, Pio Baroja?

Ez da oso presente daukadan idazlea. Eztabaida handia piztu izan duen eta oraindik pizten duen idazlea da. Esaten dute Gil Bera eta Sanchez Ostiz idazle nafarrak haserretu egin zirela Barojaren erruz. Esango nuke Pio Baroja, belaunaldi aldaketarekin, institutuetan



Angel Erro idazlea. ARGIA

irakurri beharreko idazle moduan geratu dela.

Pio Barojak badauka zeresana oraindik ere, eta hori da bultzatu beharrekoa. **Eztabaida handia asko piztu zuela esan duzu. Zergatik?**

Pertsona anbigua izan zelako. Begiradaren arabera, traidorea izan zen batzuek, edo koldarra, edo espainolegia edo euskaldunegia... Bi muturren artean dantzan ibilitakoa. Eta,

joera horrekin, ezinezkoa da guztiekin ondo konpontzea. **Eraginik izan al du Barojak ondorengo idazleen belaunaldietan?**

Oro har, idazleok eragina izan dugula esango nuke. Baina, akaso, garbi jakin barik nondik zetorkigun.

Liburu asko idatzi zituen, baina *El árbol de la ciencia* da ezagunenetakoa. Ze iritzi duzu horri buruz?

Ezagunenetakoa da, hain justu ere, ikastetxeetan irakurri beharreko liburuetako bat izan delako. Dena den, idazle batentzat, liburu bakarrek erreferentzia izatea oso txarra da. Kondenatu egiten zaitu, eta Barojak askotariko estiloetako liburuak idatzi ditu, bakar batean zentratzeko...

Baroja ezagutu gura duenak nondik hasi beharko luke?

Arrasateko hitzaldia prestatzeko, Barojaren ipuin batzuk irakurri ditut eta oso gustura egon naiz. Abenturazko liburuak ere baditu. Karlistaldi garaikoak eta baita euskal ohiturak oinarri hartzen dituenak ere. Garaiko ideia filosofikoak garatzeko idatziak ere baditu. Hau da, *El árbol de la ciencia* baino harago badaukagu non aukeratu.

HAU BE BADOGU!

Ligak Asier Garitano bergararra saritu du



@CDLeganes: "Saria! Asier Garitano pasa den denboraldiko entrenatzaile onena! Zorionak mister! #PremiosLaLiga" (itzulita).

Hori izan da Leganes talde madrildarrak bere teknikaria zoriontzeko bidalitako txioa. Izan ere, 2015/2016 denboraldiko Bigarren Mailako entrenatzaile onenaren saria jaso du Asier Garitano bergararrak. Sariduna, gainera, iragan denboraldiko 2. mailako taldeetako jokalariek aukeratzen dute.

#Calais trending topic Europa mailan ere

Frantziatik Erresuma Batua igaro nahi zutenen emigranteen kanpalekua desegin dute, eta Twitterren bolo-bolo ibili da gaia. Hona hemen Ane Irazabalek bidalitako txioak:

@AneIrazabal: "#Calais-eko iheslarietako asko Italiara itzuliko dira, Italian daukatelako bizitoki baimena. Lan faltagatik egin zuten alde". "Theresa May kalea #Calais-en. Ametsa amaitu da. #Hustutzea".

PSOeren Batzorde Federala hizpide

Pasa den asteburuan Rajoyren inbestiduran abstenitzeko erabakia hartu zuen PSOEk. PSE-EEko kideak batzarraren aurretik, behintzat, ezezkoren alde azaldu ziren:

@IdoiaMendia: "11 abstentziorekin bakarrik Batzorde Federalen erabakia bete daiteke" (itzulita).

@odonelorza2011: "Diputatu sozialista moduan EZ bozkatu du ardurazko etikatik, hauteskundeetako konpromisoa errespetatzeko eta PSOeren aldaketa proiektuagatik" (itzulita).

ITURRI ONETIK

Gaztetxea birsortu nahian dabilta

Aretxabaletako hainbat gazte ekintzaile eta gogotsu udalerrian gaztetxea birsortu guran dabilta. Elkarren artean biltzen hasita daude dagoeneko.

2003an itxi zuten ordura arteko gaztetxea. Guardia Zibilaren kuartel zaharra zuen kokaleku. Itxi eta hurrengo urtean hasi ziren lokalak eskatzen bertako gazteak. Izan ere, gaur egun antzinako kuartela entseatzeko erabiltzen dute hainbat musika taldek, baina eraikina oso egoera kaskarrean dago, barrutik jausten.

GORA ETA BEHERA



Hondakinak lekutik kanpo, astea joan eta astea etorri

Bergarako Amillaga kale inguruan -IAT ibilgailuen azterketa teknikoak egiten diren lekuaren parean- errepikatzen den egoera salatzen argazkia bidali du M.E. irakurle bergararrak. Bergarako Udalaren kartelak argi adierazi arren, baten batek (edo gehiagok) nahiago du hondakinak bereizi barik eta lekutik kanpo utzi.

Udal tasa eta zergetan, %2ko igoera orokorra

Diputazioak diru-bilketan eta katastroan egindako aurreikuspenak bete ez direla-eta, gobernuak "behartuta" aplikatu du igoera ordenantza fiskaletan. EAJren eta PSE-EEren proposamenaren aurka bozkatu du Baleikek; EH Bildu eta Irabazi abstenitu egin dira

Jokin Bereziartua ARRASATE

Arrasatearrek datorren urtean ordaindu beharreko zergek eta tasek %2ko igoera orokorra izango dute. Hori bai, herritarrek gehien igartzen dituztenetako batzuk ez dira igoko, hala nola, zaborraren, obren eta ibilgailuen gaineko zergak eta kiroldegiko tasak. Salbuespenen artean dago uraren tasaren %1eko igoera.

Udal Gobernuak %2ko igoera orokorra planteatu du 2017rako diru-sarrerak espero baino txikiagoak izan direlako. "Foru Aldundiak egindako balio katas-tralak eragin zuzena izan du guregan eta, gainera, diru-bilketan ere espero baino txikiagoa izan da krisi egoeratik. Zerbitzu onak emateko Udalak sarre-rak behar ditu eta egoera honek behartu gaitu gainerako zergak eta tasak %2 igotzera", adierazi zuen martitzeneko osoko bilkuraren ostean Maria Ubarretxena alkateak. Ubarretxena gainera-tu zuen arrasatearrek ez dutela

Zerga eta tasa aipagarrien aldaketak

Igoerarik ez

- Hondakinak.
- Ibilgailuen gaineko zerga.
- Obrak.
- Musakolako kiroldegiko tasak.

%1eko igoera

- Ur-tasa.

%2ko igoera

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga.
- Hondasun Higiezinaren gaineko zerga.
- Hilerriko zerbitzua.
- Hirigintza baimenak.

igoera larregi igarriko zerga politoetan ez delako aldaketarik emango. Gainera, igoera horien eragina arintzeko eta herritarrek jasaten duten presio fiskala baretzeko hobari berriak sortu dituzte eta beste zenbait hobaritan aldaketak egin dira.

Aurka, Baleike bakarrik

Gobernuaren proposamenaren aurka bozkatu zuen talde bakarra izan zen Baleike. Justizia sozialean oinarrituko den "fiskalitate progresistago" bat eskatu zuten. "Gobernuaren erduan sinistu ez arren ahalegin du gara ordenantza fiskalek arrasatearren izango duten eragina murrizten, baina gobernu talde honekin zaila da akordioetara heltzea. Gobernuak hiruko erregela hartu eta %2ko igoera aplikatu die herritar guz-tiei berdin-berdin; horrek erakusten du ez dietela axola igoeraren ondorioak", esan zuen Baleikeko eledun Igor Urizarrek.

EH Bildu eta Irabazi: abstentzioa

EH Bildu eta Irabazi abstenitu egin ziren; koalizio ezkertiar eta abertzaleak dio "zorionez" gobernuak euren eskaeretakoz batzuk kontuan hartu direla. "Zirriborroa ikusi genuenean hainbat kontu ez zitzaizkigun gustatu eta horien aurrean hobe-kuntzak planteatu ditugu; kontuan hartu dira eta horregatik abstenitu gara. Baina ez dira gure ordenantzak, guk ez genuke %2ko igoera bat planteatuko", azaldu zuen EH Bilduko eledun Eneko Barberenak. Barberenak gogora ekarri zuen Diputazioak diru bilketaren zein katastroaren gainean egindako "aurreikuspen txarren" ondorio dela Udalaren diru galera eta ez zaie zuzena iruditzen galera hori arrasatearrei inputatzea. "Debagoieneko zerga eta tasa altuenetakoak Arrasatekoak dira", gaineratu zuen.

Irabazik aurkeztu zituen hamar proposamenetatik bost onartu ditu gobernuak eta horregatik abstenitu ziren martitzeneko bozketan. "Oinarrizko zerbitzu publikoak bermatu behar dira eta horretarako beharrezkoa da guztion ekarpena; gehien dutenek gehiago ordain dezatela eta gutxien dutenek gutxiago".

Osoko bilkura Goiena Telebistan

Ezohiko deialdian egindako urriaren 25eko osoko bilkura osorik ikusi ahal izango da bihar, zapatua, Goiena telebistan (20:30).



NIRE USTEZ

ANE GOROSABEL

Baserri txikien iraultza

Heldu da Gipuzkoara agro-ekologia oinarri duen abeltzain eta nekazarion mugimendua. Inguratzen gaituen produkzio eta kontsumo ereduak astintzeko beharrik batu gintuen, euskal baserria menpekotasunetik atera ahal dugula sinistek indartu gaitu, eta iraultzaren kolektibizazioa berreskuratzeak aurrera egiten laguntzen digu.

Ez da produktu ekologikoaren eskaintza hutsa, baizik eta gu denon duintasuna eta zoriontasuna bermatzen duen aldarri ozena, Euskal Herri burujabea eraikitzeke, egunero, eguzkiarekin bat, mendialdeko bazterretan barrena lanean diharduen kolektibo bakartia.

Prest gaude gure baserriak bizirik mantentzearen ardura gureganatzeko, gure izatea plazaratzeko eta gure aitona amonen ofizioa erakargarri bihurtzeko, lurrari eusteko eta gizarte justu eta askeago baten alde tinko mantentzeko. Baina ezin dugu borroka hau abeltzain eta nekazarion gain utzi, herritar gisa dugun ardura eta egitea barneratu eta konpromiso txikiak onartzeko garaia heldu zaigu, inoiz ahaztu gabe (kide baten hitzak gogoratu) baserria jakintza dela, jakintza iraultza, iraultza etorkizuna... Etorkizuna baserria dela!

ARRASATE IRRATIA

Kooltur eta Doke

Eguenean, azaroak 3, Txuma Murugarrenek Kooltur Ostegunak barruan emango duen kontzerturako (gaztetxean, 22:00etan) eta azaroaren 6an Doko antzerki taldeak eskainiko duen *Aingeru ala kurriloi?* antzezlanerako (Amaian, 19:30) sarrerak ditu Arrasate Irratiak. Zozketan parte hartzeko: irratia@goiena.eus helbidera idatzi edo 943 25 05 05 telefono zenbakira deitu.

Laubideko eta Biteriko aparkalekuak, Muriasen esku

Osoko bilkuran, Laubideko eta Biteriko aparkalekuen ustiapena Muriasen enpresaren eskuetan uztea onartu zuen udalbatzak. Porrot egin duen Gespark enpresarena izan da bi aparkalekuen ardura orain arte; Laubidekoak Gabonetarako irekiko dituzte.

EAJren erantzuna EH Bilduri

Bilkuran sorpresa eman zuen EAJko eledun Anuska Ezkurrak 2003ko martxoaren 27ko osoko bilkurako akta bat mahai gainera ekarri zuenean. Akta horretan jasotzen da Xabier Zubizarreta alkate zenean onartu zela Laubideko eta Garibaiko (Biteri) aparkalekuen eraikuntza eta ustiapena esleitzea eta 50 urterako



2008a ezkerreko itxita dauden Laubideko aparkalekuen ataria. ANDONI BODES

kontzesioa ematea. Ezkurrak gogora ekarri zuen jeltzaleek "makro-proiektu" horren aurka bozkatu zutela. EAJk aurre egin nahi izan zion EH Bilduk berriki gai horren harira egindako kritikei. Izan ere, EH Bilduk Ignacio Lakuntzari,

2003tik 2007ra alkate (EAJ) izan zenari, leporatu zion Laubideko aparkalekuek bizi izan duten egoera. "Ignacio Lakuntzak zuzentzen zuen gobernuak hartutako erabaki oker baten ondorioa izan da egoera", adierazi

zuen urriaren 5ean EH Bilduk. EAJk hori gezurtatu zuen udalbatzaren aurrean, erabaki hori Xabier Zubizarreta (Euskal Herritarrok) alkate zela hartu zela berretsiz.

Tarifak, Biteriko berdinak

2003ko osoko bilkura hartan ezarritako tarifak izango dituzte Laubideko eta Biteriko aparkalekuek. Tarifa arruntetan, minutuko 0,036 euroko eta orduko 1,20 euroko gehienezko muga zehaztu dio Udalak Muriasi. Enpresarekin "elkarlana" abiatuko dute orain. "Interesa ikusi diogu bestelako prezio batzuk eskaintzeko. Ea gai garen akordioetara heltzeko", adierazi du Maria Ubarretxena alkateak.

Errekak protagonista azaroaren 2tik 12ra bitartean

Datorren astean Uraren eta Errekaren Astea ospatuko da; horren harira, Udalak hainbat ekintza antolatu ditu

Ibon Carmona ARRASATE

Herritarrak bailarako ibaien gainean kontzientziatzeko helburuarekin, hainbat ekintzaz osaturiko egitaraua antolatu du Arrasateko Udalak.

Debagoienako errekak hainbeste urtetan nahiko zikinak egon diren arren, badirudi egoera poliki-poliki aldatzen ari dela. Erreken osasun hobetzearen seinale argi bat bertako uretan ikusten diren loina eta ezkailetan dago.

Bisoi europarra protagonista

Aurten, bisoi europarraren inguruan sakonduko da, herritarrek ezagutu dezaten zein den Europan galtzeko arriskuan dagoen animalia berezi honen egoera.

Araztegia bisita

Uraren eta Errekaren Asteak Epeleko araztegia hobeto ezagutzeko aukera emango du. Modu horretan, egunero normaltasun eta naturaltasun osoz egiten

Egitaraua

Azaroak 2, asteazkena

- **19:00 Hitzaldia** *Bisoi europarra Gipuzkoan.* Kulturaten

Azaroak 5, larunbata

- **09:30 Ibilaldi gidatua** Etxezarreta erreka ingurutik. Geralekua: Arruena parkea
- **12:30 Epeleko araztegia bisita** Geralekua: Aroztegioko sarrera

Azaroaren 1etik 12ra

- **Erakusketa:** *Gipuzkoako erreketako urak soinu bidez.* BAZen.

diren keinuek dakartenaren gainean sentsibilizatu nahi dituzte herritarrak. Azken urteetan arazo handi bilakatu dira garbitzeko erabiltzen ditugun zapitxoak, toallatxoak eta beste zenbait hondakin.

Aparkalekuak erabilgarri

Jose Luis Iñarran, aldaparen ezkerrean geratzen zen espaloia kendu egin dute aparkalekuak egiteko. Lanak azarorako amaitzea aurrekusi zuten, baina duela egun batzuetatik erabilgarri dago. 26 aparkaleku egin dituzte.

Espaloia autoz beteta egoten zen, eta oinezkoek, gehienetan, beste aldeko espaloia erabiltzen zuten.



IBON CARMONA

1962an, 1973an eta 1974an jaiotako bazkariak

1962an jaiotakoek azaroaren 5ean egingo dute aurtengo bilkura. Interesdunek 3035 0001 51 0010123638 zenbakian egin beharko dute 60 euroko diru sartzea. Bazkaria Musakolako Al Andalus elkartearen egingo da.

1973koak azaroaren 19an elkartuko dira. Bazkaria Gesalibar auzoko Zabolain sagardotegian egingo da, eta bertara joateko

autobusa antolatu dute. Interesdunek 3035 0001 54 0010131783 kontuan egin beharko dute 50 euroko diru sarrera. Azaroaren 14a izena emateko azken eguna izango da.

1974an jaiotakoak ere egun berean elkartuko dira bazkaria egiteko. Izena emateko epea zabaldu da, eta horretarako 50 euro sartu beharko dira 3035 0202 72 2021046571 kontu korrontean azaroaren 7a baino lehen. Bertan, izen-abizenak zehaztu beharko dira.



ELKARLAGUNTZAKO ELKARTEA
Sociedad de Socorros Mutuos

www.sanfelipeapostol.com
funerariasanfelipe@gmail.com

Gipuzkoa etorbidea 33 behea
Tel.: 943 79 16 82
Tel./Faxa: 943 77 30 22

ARDURADUNA
Alberto Ojanguren Ugarte



SAN FELIPEKO ZUZENDARI BATZORDEA:
Zutik, ezkerretik eskumara: Isabel Mangana (Presidenteordea), Mertxe Pie de Hierro (Bokala), Olatz Arkauz (Bokala), Jose Luis Garcia (Bokala), Felisa Viteri (Bokala), Ion Hériz (Bokala)

Makurtuta, ezkerretik hasita:
Joshe Elorza (Idazkaria), Juan José Pagalday (Presidente), Javier Istúriz (Bokala), Marisol Murguzur (Diruzaina)

1. ERAKUNDEA SAN FELIPE APOSTOL etekinak lortzeko asmorik ez duen eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzaren eta Lan Departamenduko Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzaren izena emanda duen elkarte bat da, **1.898ko apirilaren 13an sortu zen eta 12.928 bazkide** ditu.

2. ESKAINITAKO PRESTAZIOAK

San Felipe Apostol elkarteak hildako bazkideari honoko gastu hauetan lagunduko dio:

- **Espaniako Estatu barruan** egin beharreko leku aldaketak, hau da, hileta gertatzen den tokitik hildakoa bizi zen edo erroldatua zegoen herrira eramatea.
- Hildakoari lur emateko arka.
- Herrian zehar eskelak jartzea.
- Hildakoen jazte lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Medikuziurtagiria.
- **750** euroko diru laguntza, hildako bakoitzagatik.

3. SARRERAKO KUOTAK

40 urtera arte sarrera doan	56 etik 60 urterarte.....	862,50 €
41 etik 45 urterarte.....	61 etik 65 urterarte.....	1.050 €
46 etik 50 urterarte.....	66 etik 70 urterarte.....	1.237,50 €
51 etik 55 urterarte.....	70 urtetik gorakoak	1.800 €

4. URTEKO KUOTAK

Titularrak: **45,00** € Ezkontideak: **45,00** € Onuradunak: **22,50** €

**INFORMATU ETA
EGIN BAZKIDE**



Herritarrek Kulturateko areto nagusia bete zuten, gaiarekin arduratuta dauden seinale. XABI GOROSTIDI

Mugikortasun plan berria herritarrekin elkarlanean

Kulturateko areto nagusia jendez beterik zegoela aurkeztu zuten Mugikortasun Plan berria osatzeko egitasmoaren aurkezpena. Planak hiru fase izango ditu: diagnostia (abendua), herritarrekin parte hartze foroak (martxoa-apirila) eta gizarteratzea (ekaina)

Xabi Gorostidi ARRASATE

Kulturateko areto nagusia jendez beteta zegoela egin zuten pasa den egunean Mugikortasun Plan Berria egiteko egitasmoa aurkezteko bilera irekia. Arrasateko udal ordezkariak eta plana egiten lagunduko dute Intra eta Elhuyar enpresetako teknikariak hartu zuten hitza, 2005etik indarrean dagoen plana eraberritzeko diseinatu duten plan-teamendua azaltzeko.

Lorpenak eta hutsuneak

Juan Antonio Urdangarinek 2005eko planari esker lortutako hobekuntzak azaldu zituen. Espalioen berreskuratzean, garraio publikoen sustapenean eta trafikoko astuna herritik ateratzeko ahaleginetan egindako esku hartzeak aipatu zituen. Ostein, aparkalekuen arazoa arintzeko egindako esku hartzeak zerrendatu zituen, eta, batez ere, garraio bertikalean egindako inbertsioak azpimarratu zituen. Gorostiza eta Ferixalekuko igogailuak

herritarren mugikortasuna hobetzeko aurrerapausorik eraginkorrenak direla azaldu zuen. "Nire ustez, igogailuena azken urteetan Arrasaten etekin sozial handiena izan duen inbertsioa izan da, zalantzarik gabe".

Hala ere, autokritika ariketa bat egin zuen, eta 2005. urteko planetik bizikleten erabilpena eta aparkalekuen erregulazioa guztiz garatu gabe geratu direla onartu zuen. Zentzu horretan, Eibarrekin batera EAE mailan tamaina antzekoan duten beste herriekiko Arrasate atzeratuta geratu dela adierazi zuen.

Hiru fase eta lau parte hartze

Planak hiru fase izango ditu: abenduan diagnostia, martxoa eta apirila artean parte hartze foroak eta ekainean gizarteratzea. Diseinu teknikoak, 2005ean bezala, Bartzelonako Intra aholkularitza enpresak egingo du. Hala, euren diagnostikoak herritarren ekarpenekin osatzea du helburu plan berriak.

Horretarako, Elhuyar enpresa dinamizatutako lau partaidetza foro egingo dira, lehena Intraren diagnostia osatzeko, eta hurrengo hirurak parte hartze foroan fasean. Horietako lehenean, alderdi motorizatuak landuko dituzte, trafiko eta aparkalekuekin zerikusia dutenak. Bigarrenetan, aldez, alderdi ez motorizatuak, garraio publikoa edo bizikleten erabilerarekin zerikusia dutenak, eta hirugarrenean aurreko bien ekarpenekin konponbide orokorrak. Azkenik, ekaineko gizarteratze fasean, herritarrei prozesu osoan zehar hartutako erabakien berri emango zaie.

Herritarrek arduratuta

Proposamenak egiteko saioa ez zen arren, galderen tartean herritarrek mugikortasunarekin lotutako hainbat kezka azaldu dituzte. Besteak beste, Muzibar-Arbolapeta hiri tartearen etorkizuna eta aurreko planean estrategikoa zen tranbiaren desagerpena aipatu zituzten.



Itxaro Artola, Aintzane Lasa, Maria Ubarretxena eta Raquel Alonso. MAITE TXINTXURRETA

'Baietz 1.000!': komertzioetan euskaraz aritzeko kanpaina

Mosaiko erraldoia osatu nahi dute euskararekiko atxikimendua adieraziz herritarrek egindako argazkiekin

Maite Txintxurreta ARRASATE

Baietz 1.000 izena jarri diote Arrasateko komertzioetan euskaraz aritzea xede duen kanpainari. Izan ere, mila herritarrek argazki bidez beraien atxikimendua erakustea nahi dute bultzatzaileek.

Datorren astean abiatuko da kanpaina, eta lehenengo hiru asteetan herritarren argazkiak jaso nahi dituzte, gerora horiek mosaiko erraldoi bat osatzeko. Norberak atera eta bidali dezake argazkia 688 690 017 telefonora edo baietzmila@gmail.com helbide elektronikora. Bestalde, datozen egunotan Goienak herrian jarriko duen *photo-call*-ean ere egongo da horretarako aukera.

Aktibazio fasea

Hala, hiru astez argazki kanpaina burutu eta mosaikoa egin ostean, bigarren faseari ekingo

diote; aktibazio faseari, hain zuzen. Bertan, prest dauden herritarrek hamabost eguneko esperientzia pilotu bat egingo dute, herriko dendetan beti euskaraz aritzeko ahalegina eginda. Gero, fase honetan parte hartzen dutenen artean, erosketa bonuak eta Goienaren *Puntuak* aldizkariako harpidetza zozketatuko dute.

Bigarren fase honen gaineko zalantzak argitzeko, azaroaren 19an Etxaluzen saio praktikoa egingo dute Emun-eko teknikarien eskutik.

Ibai-Arterekin hitzarmena

Udaleko euskara teknikari Aintzane Lasak azaldu du badutela Ibai-Arterekin batera lantzen diharduten euskararen inguruko plan bat. Besteak beste, merkatarien beharretara moldatutako hizkuntza formazio saioak eskainiko dituzte.

Domu Santu egunerako hiribus zerbitzu berezia

Arrasateko Udalak aditzera eman du Domu Santu egunerako eta baita bezperarako ere prestatutako hiribus zerbitzu berezia.


Urriaren 31n, orduro egongo da hilerrira autobusez hartzeko aukera. Azaroaren 1ean, aldiz, jendearen joan-etorri handia izango denez, zerbitzua bikoiztu egingo dute eta ordu erdian behin egongo da autobus zerbitzua.

Gaur, Onintza Enbeitak Anna Gabriel elkarrizketatuko du

Emakumeak protagonista zikloaren baitan, Onintza Enbeitak bertsoari muxikarrak Anna Gabriel elkarrizketatuko du.

Gabriel ezaguna da CUP alderdian egin duen ibilbideagatik eta 2015etik Kataluniako Parlamentuko ordezkaria da. Horretaz gain, Bartzelonako Unibertsitatean Zuzenbideko Historia-ko irakasle lanetan dihardu.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO
(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO
Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behe
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA
Bergara / Masterreka kalea 11, behe
943 76 33 99 / 646 43 34 58

LAURA ALUTIZ
Arrasate / Otalora, 18 solairu artea 687 97 69 76

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behe
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

SADHANA YOGA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 19, 8 ZM
690 79 21 55

"Kaptazio kanpaina bere fruituak ematen ari da"

ANE AGIRRE ARRASATE RUGBY TALDEKO LEHENDAKARIA

Lehendakaria pozik dago taldeek izan duten denboraldi hasierarekin. Aspaldiko partez, kategoria guztiek elkarlaneko talderik gabe jokatu dutela gaineratu du.

Ibon Carmona ARRASATE

Uztailean izendatu zuten Ane Agirre Arrasate Rugby Taldeko lehendakari. Taldearen kirol eta ekonomia arloak osasuntsu daude; horrenbestez, ilusio handiko urtea dauka aurretik arrasatearrak.

Zenbat talderekin hasi duzue denboraldia?

Aurten lau talde ditugu: seniorrak eta 16, 12 eta 10 urte azpikoak. Seniorren taldean ez da aldaketa nabarmengarririk egon, baina gainerako taldeetan jokalariek kopuruak gora egin du. Hori izan da aurten 16 urtez azpiko talde propioa izatearen arrazoia. Guretzat, oso garrantzitsua da talde hori gutxieneko jokalariek kopuru batekin mantentzea.

Alor ekonomikoan, zeintzuk izaten dira aurre egin beharreko gastu nagusiak?

Diru-kutxako kantitate handiena fitxetan gastatzen da; izan ere, 16 urtez azpiko eta senior jokalariek federatuta egon behar dute. Guztira 40 fitxa inguru egin ditugu, eta horrek 12.000 euroko kostua ekarri digu. Kontuan izanik 30.000 euroko aurrekontua daukagula, gastu horrek zati handi bat kentzen digu. Fitxekin alderatuta, ekipazioa bezalako gainerako gastuak txiki geratzen dira.

Aurrekontuaren iturri nagusia, oster, Garagardo Azoka da. Zein egoeratan dago hurrengo edizioa?

Normalean, Aste Santu arte ez gara festa horren antolakuntza lanekin hasten. Baina behin prestatzen hasten garenean lan handia egin behar izaten dugu, eta astero biltzen gara gaiaren gaineko kontu ezberdinak adosteko. Benetan lan handia dakar horrelako jaialdi baten antolaketa. Baina kontuan izanik 2016ko azokako diru-sarreraren aurrekontuaren %30 izan dela, espero dugu datorren urtean berriro ere ospatzea.



Ane Agirre. ANE AGIRRE

"JOKALARIEN FITXEK 12.000 EURO INGURUKO KOSTUA SUPOSATZEN DUTE TALDEARENTZAT"

Kirol arloan, zein da talde nagusiarren helburua?

Berriz ere mailaz igotzea. Hala ere, ez dut ezeztatzen pasa den denboraldiko egoera bera gertatzea. Taldea mailaz igo zen, baina kategoria berri horretan jokatzeko konpromiso gradu altuagoa eskatzen zuten, eta, ondorioz, bere horretan jarraitzea erabaki zuten. Ongi pentsatu beharreko erabakiak dira horiek; izan ere, denboraldi luzea egoten da aurretik.

Taldean izan da aldaketarik?

Ez da aldaketa handirik egon. Entrenatzaile Igor Isasik jarraitzen du, eta zorioneko gaudela esan dezaket; izan ere, oso entrenatzaile ona da. Jokalarien kasuan, eskertzekoa izan da errugbia utzita zeukaten zenbait jokalariren itzulera. Gainera, bizpahiru jokalariek berri ditugu, baita harrobitik igo den jokala-

ri bat ere. Horrez gain, baja gutxi batzuk egon direla azpimarratu behar da.

Harrobia ere indartzen ari zarete. Ikastoletako hezkuntza fisikoan, errugbiak protagonismo handiagoa izatea nahi dugu. Modu horretan, ikasleak kirol honen gainean modu errazagoan sentsibilizatu daitezke. Ekimena aurrera eramateko Arizmendi Ikastolarekin gabilta harremanetan, baina oraindik lan luzea daukagu aurretik. Horrez gain, aurtengo jokalariek gazte kopurua aurreko urteetako baino handiagoa denez, aspaldiko partez taldeek Arrasate Rugby bezala jokatu dute, beste talde batzuekin elkarlanean aritu gabe. **Nola ari da funtzionatzen gazteen kaptazio kanpaina?**

Pasa den denboraldiarekin alderatuz, jende gehiago gaude; beraz, momentu hauetan bere fruituak ematen ari dela esan dezakegu. Hala ere, talde batzuetan behar bezalako bermekin jokatzeko, oraindik jokalariek gehiago beharko genituzke. Hortaz, kirol hau ezagutu eta praktikatu nahi duenarentzat, Mojategiko atea irekiak mantentzen ditugu.



BESAIDE MENDIZALE ELKARTEA

Besaideko beteranoen irteera

Domekan, urriak 23, Txarlazo, Txolope eta Tologorri tontorrek zeharkatu zituzten Besaide Mendizale Elkarteko beteranoek. Beteranoen taldeak arrakasta handia izaten du; 40 lagun elkartu ziren. Hurrengo hitzordua azaroaren 27an izango dute: Artzaintzaren Bidearen zazpigarren etapa izango dute, Boveda eta San Millan de San Zadornil artekoa.

Hiru domina Arrasateko karatekentangat

Pasa den domekan Aretxabale-tako kiroldegian jokatu zen Euskadiko kadete, junior eta 21 urtez azpiko karate txapelketan, Saioa Karate taldeko karatekek emaitza onak eskuratu zituzten. Guztira zazpi arrasatearrek hartu zuten parte txapelketan. Kadete mailan Ekaitz Gonzalez, Jokin Martin, Iosu Madinabeitia eta Ane Garcia lehiatu ziren;

juniorretan, berriz, Aitor Madinabeitia eta Elena Kortabarria; eta 21 urtez azpikoetan Leire Valor.

Guztira 200 parte hartzaile baino gehiago lehiatu ziren, eta tartean Europa eta mundu mailako txapelketak jokatu zituzten. Maila handia zegoen arren, Aitor Madinabeitiak (3. postua kumitean), Ane Garciak (3. postua kumitean) eta Leire Valorrek (2. postua kata modalitatean eta 3. postua kumitean) podiumera igotzea lortu zuten.

MUK etxean jokatu du Valle de Egues taldearen aurka

Asteburu honetan EBA ligako laugarren jardunaldia jokatu da. MU saskibaloia bolada onean da bi partida jarraian irabazi eta gero. Oraingo honetan Iruñeko Valle de Egues taldearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Nafarrek pasa den astean eskuratu zuten denboraldiko lehen garaipena, Ulacia Grupo taldeari gailenduta.

Josu Larreategiren mutilak sailkapeneko zazpigarren postuan daude bi garaipenekin. Denboraldia Easo Loquilloren aurkako porrot batekin hasi zuten, baina ondoren garaipen sendoak eskuratu zituzte; duela bi aste Take Tolosaren aurka, eta pasa den asteburuan Venta de Bañosen aurka.

Arrasateko taldeak denboraldiko hirugarren garaipena lortu gurako du. Partidua zapatuan jokatu da Iturripeko kiroldegian, 18:30ean hasita.

"Istorioa amona hil zitzaidanean idatzi nuen"

KEPA ERRASTI AKTOREA

Aretxabaletarrak Amaia antzokian antzeztuko den 'Mami Lebrun' obran hartzen du parte. Udan geldirik egon ostean lehen emanaldia domekan, 19:30ean hasita

Ibon Carmona ARRASATE

Udazkenean geldirik egon ostean, Xake Produzekzioen lehenengo lana bueltan da. Kepa Errasti aretxabaletarra ekoiztetxe horretako sortzaileetako bat da, eta obra honetan kargu ezberdinak betetzen ditu; bera da egilea, eta horrez gain, antzezlaneko protagonista ere bada.

Zer kontatzen da Mami Lebrun-en?

Bikote bat mutilaren ama hilberriari omenaldi bat prestatzen dabilela kontatzen da istorioan. Omenaldian, duela gutxi jakin duten amonaren gaineko pasarte bat irudikatuko dute, eta bikoteak amonaren istorioak



Kepa Errasti. XAKE PRODUKZIOAK

nola erre kreatzen dituen ikusiko dute ikusleek.

Mutila zu zarella suposa dezakegu, baina nor da zure bikotekidea?

Ane Pikaza bilbotarrak egiten du paper hori. Berarekin batera, Ainara Ortégak osatzen du antzezle-zerrenda. Hiru aktore gara, baina, Aneren eta bion kasuan, bi rolekin jokatu dugu, omenaldia egiten den bitartean beste pertsonaia batzuk antzeztu ditugu eta.

Fikziozko istorio bat den arren, zuretzat baditu detaile pertsonalak.

Antzerki hau sortzeko nahia aspaldi etorri zitzaidan, istorio baterako amaiera konkretu bat otu zitzaidanean. Amaiera hori

ez nekien zein istorioarekin lotu nezakeen, baina gertakari ezberdinek ideia argitu zidaten. Gertakari horietako bat nire amonaren heriotza izan zen. Heriotza hark emozionalki hunkitu ninduen.

Zer sentazio eragingo du obrak ikuslearengan?

Denetariko momentuak daude; barre egitekoak, hunkitzeoak, eta abar. Jendeak ikuserraza den obra bat bezala definitu du; izan ere, gauza asko gertatzen dira, eta horrek istorioa azkar pasatzea eragiten du.

Xake Produzekzioen lehenengo lana da. Xabier Ormazabalekin batera sortu duzun ekoiztetxea da hori.

Testu hau idazteko eta ekoizteko diru laguntza ezberdinak jaso nituen. Egoera horren aurrean, eta etorkizunean beste proiektu batzuk sortzeko aukera zegoela ikusita, Xabik eta biok konpainia bat sortzea erabaki genuen. Era horretan, modu babestuagoan egiten diogu aurre birari.

Nola ari da funtzionatzen?

Oraingoz, ongi. Mami Lebrun-ekin egin dugu estreinaldia, baina badaude buruan dauzkagun beste hainbat istorio.

Ian Masonek kontzertua eskainiko du Taupa tabernan

The Wizards eta Knives metal taldeetako abeslaria izateagatik da ezagunagoa, eta domekan, kontzertua eskainiko du bakar-lari bezala, 19:30ean hasita. Benetako izena Ignacio Solaetxe duen bilbotarrak bere proiektu musikaleko *Liar Ballads* EPA aurkeztuko du, alderdi ilun eta espirituala duena. Kantak gitarra akustikoarekin joko ditu.

Rock kontzertuak Gaztemaniaren eskutik

Programa honi esker, Gipuzkoako gazteek eskaintza komertzialetik kanpo dauden musika taldeen kontzertuek gozatzeko aukera daukate; zuzenean eta prezio merkean. Gaur, rock emozionalki bizia eskainiko du Atlantatik etorritako Brother Hawk taldeak. Era berean, The Young Wait talde donostiarra ere ari-tuko da taula gainean.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.eus

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.eus

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es



Aurtengo bazkarirako 112 txartel saldu dira; beraz, kiroldegia leporaino beteko da. OIHANA ELORTZA

Jubilatuen Eguna artisauen eta nekazarien postuekin

Alaiak Jubilatuen Elkarteko kideek euren jaieguna ospatuko dute bihar, zapatua. Herriko eta kanpoko produktuen azoka izango da protagonistetako bat, baina urteroko bazkaria eta dantza zein trikiti emanaldiak ez dira faltako

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Jubilatuen Eguna urteko hitzordu garrantzitsuenetakoa izan ohi da Aramaion, eta aurtengo dena prest daukate antolatzaileek. Alaiak elkarteko kideen egun handian artisauek eta ganadu azoka ez da faltako, eta, urtero bezala, eskaintza zabala egongo da.

Azokaz gain, meza egingo dute 12:00etan, eta 13:00etan herriko trikitilari eta dantzariak emanaldia eskainiko dute. Azokak 11:00etatik 14:30 iraungo du, orduan hasiko baita bazkaria. Aurreko egubakoitzean amaitu zen txartel salmenta eta guztira 112 lagun batuko dira kiroldegian bazkaltzeko.

58 postu, 31 Aramaiokoak

Aurtengo artisauek eta ganadu azokari esker denetarik ikusteko eta erosteko aukera izango da Nardeaga kalean zehar egongo diren postuetan. 58 postu ikusi ahal izango dira, horietatik gehienak aramaioarrenak.

Hain zuzen, 31 izango dira, hogeita bi artisauenak eta berderatzi ganaduarekin lotutakoak.

Artisauei dagokienez, Gazte Asanbladaren taloak, Nerea Galindezen ondoak, Aramailurreko kideen otarreak, 6. mailako ikasleen pastelak eta Maitane Gomez de Segurak jarriko dituen Saharako artikuluak egongo dira, besteak beste.

Herriko ganaduak erakutsiko dituzten artean, Unai Uribarren behiak eta txahalak, Iñaki Arriaranen behorrak eta Juan Andres Altuna-Iturrosteren astoak daude.

Kanpotik etorritako ganaduzaleek eta artisauek ere izango dute euren tokia, eta gauza berezi ugari ekarriko dituzte Ara-

maiora. Batzuk aipatzearen, arrantzaleen arropak, Afrikako artisauen lanak, aloe verarekin egindako produktuak eta birziklatutako materialekin egindako gauzak ikusi ahal izango dira zapatuan.

Abesbatzen presentzia

12:00etan mezaren txanda izango da. Bizente Goikoetxea abesbatzako kideek emanaldia egingo dute bertan. Hori bukatzean, Papargorri abesbatzakoek kantaldi berezia egingo dute elizako arkupeetan.

"Hiru abesti kantatuko ditugu. Lehena haurrek egingo dute eta hurrengo biak hiru taldeek batera abestuko ditugu. Jubilatuen Egunerako apropos prestatuko kanta bereziak izango dira, gainera. Lehena *Txakoli Txakoli*, Aramaion sortutako dantza batetik egindako abestia, eta bigarrena, Txerren Ormaetxeak egindako *Aramaiori* bertso sortatik egindako kanta" adierazi du Larraitx Arriolabengoak.

PAPARGORRI ABESBATZAK ABESTI SORTA BEREZIA PRESTATU DU JUBILATUENTZAT

Arabako Bertsolari Txapelketarako sailkatzeko lehen kanporaketak

Bihar, Lantziegon, Andere Arriolabengoa eta Paula Amilburu txapelketan burua sartzen saiatuko dira

X.G. ARAMAIO

2017ko Arabako Bertsolari Txapelketa otsailean hasiko da, baina asteburu honetan hasiko dira bertan egon ahal izateko lehen bi kanporaketak.

Bi urtean behin jokatzeko den txapelketa da; beraz, Aramaio bertsolariak gogotsu daude lan ona egin eta bertarako sailkatu ahal izateko.

Lau kanporaketa

Lau kanporaketa jokatuko dira datozen bi asteburuetan banatuta. Lehena gaur izango da, Maeztun, 20:00etan. Sei bertsolari arituko dira nor baino nor gehiago, baina ez da Aramaio parte hartzaile izango.

Bihar helduko da herriko lehen bertsolarien txanda, Lantziegon egingo den saioan. Andere Arriolabengoa eta Paula Amilburu euren onena ematen ahaleginduko dira txapelketan aritzeko txartela lortzeko. Bi aramaioarrek batera arituko dira Asier Rubio luiaondoarra, Jon Ruiz de Pinedo gasteiztarra, Serapio Lopez baranbioarra eta Xabier Rico gasteiztarra. Azken biak esperientzia handiko bertsola-

riak dira; hortaz, belaunaldi ezberdinen arteko lehia interesgarria ikusi ahal da Lantziegoko saioan. Bitxikeria gisa, aipatu behar da Lierni Altuna alkatea arituko dela gai-jartzailer lanetan; hala, aurpegi ezagun bat izango dute oholtza gainean Amilburuk eta Arriolabengoak.

Hurrengo asteburuan helduko da sailkatu gabe dauden beste bi aramaioarren ordua. Iker Agirrerena Izarran izango da, azaroaren 4an, egubakoitza.

Peru Abarrategirena, aldiz, azaroaren 5ean izango da, Araian jokatu den kanporaketa saioan.

Agirre eta Igoa sailkatuta

2015eko sei finalistek poltsikoan daukate 2017ko txapelketan parte hartzeko txartela. Horrenbestez, Manex Agirre eta Xabi Igoa aramaioarrek bermatuta daukate euren parte hartzea.

Oraindik ofiziala ez den arren, azken finalistetako batek ez du parte hartuko 2017ko edizioan. Hori dela eta, sailkatzeko kanporaketan arituko diren 24 bertsolarietatik, puntuazio altuena jasotzen duten hamahiru onenak sailkatuko dira.



XABI IGOA

Soto eta Lizaso Aramaion

Pasa den zapatuan ateratako argazkian, Julio Soto eta Sebastian Lizaso ageri dira Kasatxoko bordan kantuan.

Arabako bertso agendaren barruan, bazkaria egin zuten bi gonbidatu bereziekin. Gozatu ederra hartu zuten bertan batu ziren bertsozaleek azpeitiarrak eta nafarrak eskainitako saioarekin.



Argazkietan, Lurgorri bera, Emiliano anaiarekin eta Pako Salaberrirekin Madrilen eta Aramaioko bere etxe kuttuna. J.M. VELEZ DE MENDIZABAL

Lurgorri jaio zela ehun urte beteko dira bihar

Aramaion errotutako euskaltzalea 1916ko urriaren 29an jaio zen. Gerra zibilean preso jausi eta Bilbon fusilatu zuten tropa frankistek, baina gerra aurreko euskal pizkundeko pertsonaia garrantzitsua izan zen, 21 urterekin erail zuten arren

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Batzordeko kide, Madrilgo ikasle batzarreko presidente, sindikalgintzako hizlari, gerra kazetari, idazle eta, batez ere, euskal aberriaren defendatzaile sutsua izan zen Jose Mari Azkarraga Mozo *Lurgorri*.

Gerra zibilean Santoñan preso hartu eta 21 urte zituela erail zuten, baina, oso gaztea izan arren, zeregin garrantzitsuak burutu zituen, beti euskal aberria ipar hartuta.

Aramaiori lotuta

Lurgorri ez zen Aramaion jaio. Errenterian jaio zen, ama bertakoa zelako eta amaren aita medikua zelako. Hala ere, gazetarik lotura berezia izan zuen Aramaio herriarekin. Bertan uda ahaztezinak pasa zituelako eta euskal kulturaren loraldian hainbat hitzaldi eta jaialdi antolatuta zituelako.

Lurgorriren aita Aguraingo familia frankista batekoa zen

eta ama, aldiz, Errenteriakoa. Aitak Informazioaren Ministerioarentzat lan egiten zuen, eta lan kontuek behartuta Madril, Bilbo eta Gasteiz artean bizi izan ziren. Aitak aspalditik zuen Euskal Herriko baserri-herri batean etxea finkatzeko gogo. Garai hartan Toribio Leaniz Barrutia aramaiarra Bilbon ari zen lanean, udaletxean, suhiltzaileen zerbitzuburu gisa, eta zera esan zion Lurgorriren aitari: "Ez ezazu ezer erabaki Aramaio ezagutu arte".

"Lurgorriren aita liluratuta geratu zen Aramaiorekin. Bertan beste Euskal Herri bat ezagutu zuen, Agurainekin, Errenterierekin eta Bilborekin zerikusirik ez zuena", azaldu du Jose Mari Velez de Mendizabalek, Lurgorri buruzko biografiaren egile eta Lurgorriren iloba denak. Hala, Ibargoia kaleko zazpigarrenean ezarri zuten euren etxebizitza azkarragarrek 1926an.

Bederatzi urte zituela pasa zuten lehen uda Aramaion Lur-

gorrik, eta adiskidetasun sakona egin zuen Mario Bonetarekin eta Pako Salaberrirekin.

Azken honekin batera joan zen Lurgorri Madrilera Zuzenbide ikasketak egitera. Euzko Ikasle Batzako presidente izendatu zuten 1933an. Horri esker, harremana izan zuen Bonifacio Etxegarai, Jose Antonio Agirre eta Jose Miguel Barandiaran bezalako euskal pizkundeko protagonistekin.

Bizia Euskadiren alde

Gerra zibilaren hasierak Aramaion harrapatu zuen, eta EAJ-ren aginduei jarraiki Debagoienaren erresistentzia antolatu zuen. Guda kazetari lanetan aritu zen, 1937an Santoñako traizioan preso hartu zuten arte.

Bertatik Bilbora eraman eta Derioko kanposantuko hormaren kontra fusilatu zuten 1937ko abenduaren 16ko egunsentian, Euskadiren alde ohorez borrokatu izanak eman zion lasaitasunarekin.

Plaka berria jartzeko proposamena

Lurgorri omentzeko, bere izena jarri zioten Aramaioko pasealeku bati.

Bere izena zeraman plaka bat jarri zuten harri handi batean, baina denboraren eraginez plaka harritik askatu zen. Berria jartzeko orduan, Lurgorri pertsona eta Tellamendi inguruan dagoen izen bereko lursaila bereizteko testu bat jartzea adostu zen. Atzoko osoko bilkuran, EAJK alderdikide eta familiarekin batera adostutako testua jartzeko eskaera egin zuen.



Plaka zaharra. J.M.V.M.

NIRE USTEZ



MAIDER ALDAI
IKASLEA

Aramaio-Arrasate

Egunen batean autoeskolara apuntatuko naiz. Presio sozialak bultzatuta beharrak baino gehiago, pentsatzen dut. Arratsaldean, Arrasatera. Gaur oraindik ez dut gidabaimenik.

Autobusa: berria, erosoagoa. 1,60? Bai, zera! Auto-stopa egitera ba. Ez dut berba egiteko gogo larregi, ea nork hartzen nauen, galdera asko egiten dizkidan, eguraldi aldaketak arduratuta daukan ala nire ikasketa etorkizunaz hitz egin nahi duen, isiltasunari beldurrak bultzatuta interesak baino gehiago, pentsatzen dut.

Atzamarra atera eta itxaron. Hiru bat kotxe pasa eta laugarrenean barrura. Zu norena zara ba? –uffa, nola erantzun horri? – Eta orain euria? Denbora aldaketa hauek ez dira normalak... –egunero kotxez bazabiltza, bakarrik, nahiko normala da. Baina ez diot hori erantzungo, gaur ez dut bide izkinan geratu nahi.

Ikerren utziko zaitut? –baietz erantzun, kalera noan arren. Autoeskolara apuntatuko naiz.

'Whiplash' filmak itxiko du zine musikaren zikloa

Urriko domeketan egon da zer entzun eta zer ikusi Aramaion, musikarekin lotutako zine zikloan. Amy Winehousen, Brian Wilsonen edo Sixto Rodriguezen biografietan oinarritutako pelikulek harrera ondo funtzionatu dute ikusleei dagokionez, eta antolatzaileak positiboki baloratu dute zikloak izan duen harrera.

Domekan honetako *Whiplash* filmarekin amaituko da zine musikaren zikloa. Jazza maitate duen bateria ikasle baten oinarritzen da. Kontserbatorioko jazz taldean sartzen da eta metodologia zorrotza erabiltzen duen bertako irakasle batek bizitza aldatuko dio.



Ibarra kiroldegiko gimnasioan hainbat erabiltzaile. AMAIA TXINTXURRETA

Ibarra kiroldegiaren zerbitzuak lehiaketara

2017ko urtarrilean bukatuko zaio kontratua Athloni eta Udalak egindako deialdia da datozen bi urtetarako. Bazkide kopurua gora doa urtetik urtera, baita jardueretako erabiltzaile kopurua ere, eta aurten %86tik gorako autofinantzatzea lortu du

Mirari Altube ARETXABALETAKO


Aretxabaleako Ibarra kiroldegiaren zerbitzua ematen duen Athlon enpresari 2017ko urtarrilaren 31n bukatuko zaio kontratua; hortaz, Udalak lehiaketa deitu berri du. Joan den asteko osoko bilkuran onartu zituzten pleguak, eta azaroaren 28a arte dute epea interesatuek eskaintzak aurkezteko.

Martxoan egin zuen Udalak kiroldegiaren ereduaren gaineko hausnarketa, eta han erabaki zuen orain dagoenarekin jarraitzea, hau da, Udalak koordinatu eta zerbitzuak kanpoko enpresei eman; hain zuzen, Athlonen du kirol jardueren, harrearen eta mantenu lanen ardura. Bi urterako hartuko gura dute, beste bi urte gehiago luzatzeko

aukerarekin, eta aurrekontua 780.802 euro da. Diru eskaintza eta eskaintza tekniko baloratuko dituzte, eta Mikel Uribetxebarria kirol zinegotziak azaldu du bakoitzari dagokion porzentajea: "%30 kostuari dagokio eta beste %70a eskaintza teknikoari; azken horretan baloratuko ditugu barne antolamendua, Udalarekin koordinazioa eta


Bazkideak

OHARRA: GUZTIAK IRAILEKO DATUAK



Jarduerak

OHARRA: ERABILTZAILE KOPURUA, IRAILEAN



proposatutako beste hobekuntza batzuk: osasunari eskaintako zerbitzuak eta koordinatzaileen esperientzia, esaterako".

Kiroldegiaren zerbitzuen ardura edozeinek hartuta ere, Udalak dagoeneko erabakita dauka datorren urtean Ibarako ordutegia luzatzea; izan ere, aurten egindako gogobetetasun inkestan eskatuena izan da ordutegia luzatzea: "Proba egingo dugu goizago zabaldua, baita domeka arratsaldeetan ere. 150 ordu gehiago izango dira", argitu du Uribetxebarriak.

%86,4ko autofinantzatzea

Kiroldegiak azken urtean eman dituen datuekin oso pozik daude Udal ordezkariak. Irailen 2.562 bazkide zituen, iaz baino 267 gehiago: "Uda sasoiaren behean egiten du apur bat eta neguan gora; eta iazko irailetik gora eta gora doa". Jardueretan dihardutenen iazko kopuruari, osterara, eutsi egin diote, eta kantxa beteta egoten dela dio: "Gainezka dagoenik ez nuke esango, baina beteta bai, eskola kiroldegi jarduerak direla, saskibaloia, boleibol eta areto futboleko entrenamenduak direla".

Diru sarrerei eta gastuei dagokienez ere oso pozik daude. Urtarriletik irailera bitartean sarrerak 481.178 euro izan dira eta gastuak, berriz, 556.916 euro: "Urte bukaeran 100.000 euro pasatxoko defizita izango dela uste dugu; hortaz, oso pozik gaude, %86,4ko autofinantzatzea lortu duela aurten". Hurrengo urteetara begirako helburua ere zehaztu dute: "%80ren bueltan eustea kiroldegiaren autofinantzetari".

Kiroldegi zabaldu zenetik zerbitzua eman duen Athlon enpresarekin ere gustura agertu da: "Daukagun mailara iristeko lan handia egin dute bai enpresak, bai langileek; hortaz, oso pozik gaude eurekin".

Energia eraginkortasuna

Datorren urtean energia eragin-kortasunaren gaineko azterketa egin gura dute, hobetzeko tarterik dagoen jakiteko. Eta gaineratu du: "Era berean, badakigu instalakuntza zahartzen doan heinean mantenu gastuek gora egingo dutela eta inbertsioak egin beharko ditugula orain daukagun mailari eusteko".

Aspacekoen bisita jaso dute Aretxabaleako Lanbide Eskolan

Ikasleek gonbidatu zituzten eta Arrasateko egoitzako zazpi lagun gerturatu ziren eguaztenean

M.A. ARETXABALETAKO

Menpekotasun egoeran dauden pertsonen arreta ikasketak egin dabilzan Aretxabaleako Lanbide Eskolako kideek Arrasateko Aspaceko lagunaren bisita jaso zuten eguaztenean. Eskola-

ko txokoak erakutsi zizkieten lehenengo eta gero mokadutxoa eskaini.

"Iaz Madrilera eta Toledora bidaiara egin ostean dirutxo bat geratu zitzaigun, eta irakasleak proposatu zigun proiektu bat

garatzeko taldean", jakinarazi du ikasleetako batek, eta gaineratu du: "Iazko ikasturtean ezagutu genituen Aspacekoak, Arrasatera, euren egoitzara joan ginelako bisitan, eta orain guk gonbidatu nahi izan ditugu. Eta gordeta geneukan diruarekin lancha gertatu diegu".

Zazpi lagun gerturatu ziren bi begiralarekin, eta hamasei ikaslerekin elkartu eskolan. Harreberoa egin zuten gonbidatuei eta kontu-kontari, giro alaietan, pasatu dute goiza elkarrekin.



Aspaceko kideak eta ALEko ikasleak elkarrekin, eguaztenean. MIRARI ALTUBE



Skate parkearen muntaia. CONTRATAS FER

Skate parkea egingo dute Markolen azaroan

Ibarra kiroldegi aurreko zelaian jarriko dute eta Contratas Fer enpresak egingo ditu lanok; horren kostua ia 78.000 euro da eta 25.000 euroko diru-laguntza lortu du. Libre geratuko den zatian futbol zelaia kokatzeko proiektua egiten dabilta

Mirari Altube ARETXABAETA

Ibarra kiroldegi aurreko zelaian skate parkea egiten hasiko dira datozen egunotan. Udalak astean eman dio Contratas Fer enpresari lanen ardura eta horien kostua 77.978 euro izango da. Diru-laguntza jasoko du, gainera, Foru Aldundiak kirol ekipamenduetarako gordeta daukan partida batetik; hala, 25.000 euro lortu ditu. Lanak hilabeteko epean bukatuko dituzte.

Herritarren eskaera kontuan hartuta egingo du Udalak skate parkea: "Gazteek behin eta berri eskatutako instalakuntza da", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak. Hain zuzen, otsailan onartutako 2016ko Udal aurrekontua partida bat onartu zuten horretarako.

Futbol zelaiaren proiektua

Deba ibaiaren alboan dagoen zelaiaren zatian jarriko dute skate parkea. Libre dagoen gainerako zatian futbol zelaia egiteko eskaera egin zion UDAk,

eta Udala ados agertu zen horrekin: "UDAK behar baten berri eman zigun eta guk horri erantzun gura diogu", adierazi du Mikel Uribetxebarriak, kirol zinegotziak. Hala, proiektua egiten dabiltzala onartu du: "Proiektua egiten hasita daude eta bukatutakoan erabakiko da zer egin, horren aurrekontua ere jakin beharko da eta".

Araba ibilbidea asfaltatzea

Azaroan beste lan batzuk ere egingo dituzte herrian, Araba ibilbidea asfaltatu, esaterako: "Negargarri dago eta derrigorrean berritu behar da", dio alkateak. Probisa enpresak egingo ditu lan horiek, eta kostua 84.084 euro izango da. Bost egunetan lanok bukatuta izango dituztela jakinarazi dute.

Etterik etxeko laguntza zerbitzua emateko lehiaketa deitu dute

Lau urterako kontratatuko dute, beste bi urtez luzagarria, eta aurrekontua 1.785.821 euro da

M.A. ARETXABAETA

Kontratua bukatuko zaio etterik etxeko laguntza zerbitzua ematen duen enpresari, Arrasateko Gizadiri, hain zuzen, eta Udalak lehiaketa deitu du. Datozen lau urteetarako kontratatu gura dute,

beste bi urtez luzagarria. Aurrekontua 1.785.821 eur da (19,59 euro ordua) eta langileei gaur egun duten hitzarmena aplikatuko diete. Eskaerak aurkezteko epea bukatuko da azaroaren 28an; argibideak Udalaren webgunean.

Lan baldintza duinen aldeko mozioa

Etterik etxeko langileen aldeko baldintza duinak aldarrikatu zituen Irabaziko Luis Mariano Gomez zinegotziak, mozio bidez, urriaren 17ko osoko bilkuran. Zera zioen: "Orduei dagokien portzentajea aldatu egin dute eta orain guztia begiraten dute laguntza emateko orduan: kontu korronteak, norberaren ondasunak, etxeen jabetza... Horregatik, askok utzi egin diote laguntza hori eskatzeari. Orduan Aldundira jotzen dute eta betebeharrak gutxiagorekin ematen dutenez, laguntza jaso eta gero kontraturik gabeko langileak hartzen dituzte, sarritan legez kanpoko egoeran daudenak. Horregatik uste dugu sakon aztertu beharreko kontua dela". Mozioa aho batez onartu zuten, dena den Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Uribarrik zioen ez dela Aretxabaletako kasua: "Gure langileek duten akordioak ez dauka parekorik".

Haize makinaren gaineko erakusketa azaroan, Arkupen

Azaroarekin batera erakusketa berria dator Arkupera, haize makinaren gainekoa hain zuzen ere. 26 eraikuntza-proposamen jasoko dituzte erakusketa aretoan azaroaren 3az geroztik, eta jolas egiteko eta esperimentatzeko aukera eskainiko dute horiek, baita haizearen energiaren gaineko oinarriko hainbat kontzeptu ikasteko ere.

Marraski lehiaketa deitu du liburutegiak irakur punturako

Udal liburutegiko irakur puntuko marraskia aukeratzeko lehiaketa deitu dute liburutegiko kideek. 12 eta 16 urte arteko gaztetxoek har dezakete parte eta saria izango da e-book bat. 20 zentimetroko altuera eta 5,5 zentimetroko zabalera izan behar ditu marrazkiak eta lelo bat. Udal liburutegira eraman behar dira azaroaren 28a baino lehen.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaeta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus



UDAKo kirolari guztiak elkarrekin joan den egubakoitzean, Herriko Plazan. IMANOL SORIANO



Igor Arenaza, Maren Lezeta eta Haritz Igartua artean, oparitutako baloia eskuetan. I.S.



Umeak ereserki berria abesten. I.S.



Kirolari gaztekoak pozik. I.S.



Aretxabaleto karate jokalariek dominekin. ODILLO VAZQUEZ

Ezusteekin osatutako jai giroa sortu du UDAk

Kirol elkarteak antolatutako aste bukaera mundialak giro ezin hobea sortu zuen; ia 500 kirolari eta ereserki berria aurkeztu zituzten egubakoitzean eta Igor Arenaza agurtu zuten. Domekan, ostera, Euskadiko karate txapelkunak erabaki ziren; Eneko Calvo, adibidez

Mirari Altube ARETXABALETA

Joan den aste bukaera borobila izan zen UDArendako. Elkarteko kirol talde guztiak aurkeztu zituzten egubakoitzean, ia 500 neska-mutiko, eta Aitor Ziardegik egin duen ereserki berria eskaini zuten gero txistulariek, Aretxabaleta Abesbatzak eta musika eskolako abesbatzak eta musikariek. Herritarrek harre-

ra beroa egin zioten, eta orain, futbol zelaian abesteko gogotsu daude. Ezustekorik ere izan zen ekitaldian; izan ere, oraintsu arte kirol zuzendari izan den Igor Arenazari agur esan gura izan zioten. Maren Lezetak eta Haritz Igartuak sinatutako baloia oparitu zioten.

Domekan, ostera, Euskadiko karate txapelketa jokatu zen

kiroldegian. Antolatzaileak oso pozik agertu ziren horrek emandakoarekin eta emaitzekin. Eneko Calvo txapelketa izan zen (juniorra, 76 kiloz gainekoa) eta Alex Benitez (kadetea, 70 kiloz azpikoa), Oxel Vazquez (21 urtez azpikoa, 60 kiloz azpikoa) eta Andoni Martin (junior, 76 kiloz gainekoa), hirugarren postuetan geratu ziren.



GOIENA

"Eskerrak neuk eman nahi ditut"

IGOR ARENAZA UDA-KO KIROL ZUZENDARI OHIA

Hainbat urtetan UDAko kirol zuzendari izan denak agur esan du eta elkarteko kideek eskerrak eman gura izan dizkiote.

Eskerrak eman dizkizute egindako lan guztiagatik...

Eskertua dagoena neu naiz. UDAk eman dit aukera herrira zabaltzeko eta jende askorengana gerturatzeko. Eskertuta nago konfiantza osoa izan dutelako nire lanean, eta horren ondorioz ilusio handiarekin jarri ditugu proiektuak abian. UDA zerbait bada, daukan lantaldeagatik da.

Proiektu horri esker UDA eredu izan da leku askotan...

Oso proiektu polita sortu genuen, egia da. Kirola aitzakia hartuta beste helburu eta balio asko landu ditugu, batzuetan asmatuko genuen eta hurrengoan ez. Ibilbidea luzea izan da eta oso oparoa.

Eta orain ibilbide berria hasi duzu; jakin-minez dago jendea...

Gipuzkoa aldeko jokalariei jarraipena egitea da nire lana, baina, oraingoz, Athleticean sartzen nabil. Hori bai, horra ezingo nintzatekeen iritsi UDAk emandako aukerarik gabe. Beti egongo naiz eskertua.

"Gero arte" bakarrik da?

Hori gurako nuke; eta laguntzeko beti nago gertu.

'Heroiak' antzezlanaren bihar Agirre, Uranga eta Sorozekin

Luxuzko komedia eskainiko du bihar, zapatua, Txalo Produzioak-ek Aretxabaletan (22:00): *Heroiak*. Izan ere, Kultura Sailerri esker luxuzko hiru aktore elkartuko dira Arkupeko ohol-tzan: Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Soroz. Gerrako soldaduendako zahar egoitza batean dauden hiru beterrano dira eskarmentu handiko hiru aktoreak; bat herrrena da, besteak agorafobia du eta hirugarrenak zorabioak izaten ditu buruan duen metraila zatien erruz. Hiru soldadu ohi horiek zahar egoitzatik ihes egitea erabaki dute eta hainbat gorabehera biziko dituzte. Hala, umorez eta xelebrekeriekin beteko dute Arkupe.

Domekan, ostera, umeendako ikuskizuna izango da Arkupen, hau ere Txalo Produzioak-ek eskutik (17:00): *Magia lapurra*. Magiarako zaletasuna duen Dorleta neskatoaren gorabeherekin ondo pasatzeko tartea izango dute neska-mutikoek.

Fandango eta arin-arin ikastaroak azaroko martitzenetan

Loramendi elkarteak fandango eta arin-arin dantzen oinarritzko ikastaroa antolatu du azarorako; hona hemen egunak: 8, 15, 22 eta 29. Udaletxe zaharrean dira eskolak, 19:00etan. Izena emateko Loramendira jo behar da: loramendielkartea@gmail.com edo 685 75 67 29. Bazkideendako debalde da eta gainerakoek 5 euro ordaindu behar dute.

Teknologia berrien gaineko hitzaldia dute erretiratuek

Telefono mugikorrak eta tabletak erabiltzen irakatsiko die KZguneko teknikari Iratxe Baladak Basotxo erretiratuen elkarteko kideei. Azaroaren 3an, eguaztenez, elkartuko dira Basotxon bertan, 17:00etan.

Lehenengo, oinarritzko kontzeptuak irakatsiko ditu Baladak, eta ondoren, galderak egiteko tartea izango dute erretiratuek.

"Chiapasko bizimoduaz maitemindu nintzen"

IURRE ROMARETAZABALA BORONDATEZKO LANKIDEA

22 urtez izan da Chiapasen (Mexiko) bertako indigena eta atzerritarrei laguntza eskaintzen. Pobreziaren aurka egin arren, zapatisten ideologiak ere erakartzen du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Iurre Romaretazabala eskoriatzarra 22 urtez joan da Chiapasera (Mexiko) bertako indigena eta atzerritarrei laguntza ematera. Aurten ere bertan izango da lau hilabetez, azaroaren 3an joango da hara eta otsailaren 24an bueltatuko da.

Zer dela eta hasi zinen Chiapasera joaten?

1994. urtean turista moduan joan nintzen Mexikora, eta Chiapasera joatea erabaki nuen, nahiz eta bidaia agentziakoak ez joateko esan zidan. Garai hartan gerra zen han, eta, arriskua egon arren, joatea erabaki nuen. Ondoren, 1995ean, laguntza eskaintzera joan nintzen bereziki, eta, hango muturreko pobrezia ikusita, ordutik gaur egunera arte ahal dudana egiten ahalegindu naiz.

Ordutik hona, urtero joan izan zara. Zenbat denborarako?

Lehen urteetan bi hilabeterako joaten nintzen soilik, eta, 1999. urtea ezkerro, ia lau hilabete pasatzen ditut han. Hango bizimoduaz maitemindu nintzen; ez da pobrezia bakarrik ikusten dena, zapatisten hausnarketek ere liluratuta utzi ninduten.

Kontatu, pixka bat, bertan ikusitakoak eta egindakoak?

Eguzki plakak ipini ditugu komunitateetan, medikazioak eramaten ditugu, josteko makinak, ura eramateko instalazioak jarri ditugu, arropa eraman... Laguntza txiki asko egiten saiatzen naiz. Esaterako, gor-mutu bati aparailu bat erosi genion, eta gaur egun lanean ari da... esperantza eman genion. Hala ere, muturreko pobrezia hori ikustea gogorra da.

Ordutik hona aldatu egin da egoera, eboluziorik izan da?

Gaur egun, zapatistek hobeto bizi direla diote. Beraien lurrak dituzte, eta baita euren legeak ere. Legeei dagokienez, Gobernu Onaren Batzordea izeneko ins-



Iurre Romaretazabala.

tituzioa daukate. Oso interesgarria da; esaterako, hamabost egunera, ustelkeria saihesteko, herritarrek ordaindu gabeko "lan politikoak..." egiten dituzte txandakatuz. Urtero polizia ere txandakatzen da beraien artean... hemen dena kritikatzan dugu, baina egoera horretan jartzea ez da erraza. Beste mundu bat sortu dutela esan daiteke, nahiz eta beti ez dituzten egoki egiten gauzak; alde onak dituen


arren, ez da praktikoa. Horrez gain, Casa Cereza izeneko espazio komunitarioko emakumeei ere laguntza eskaintzen diet. Bertako kartzela Cerezo da, eta hortik dator izena, ironikoki; han dauden emakume gehienak etorkinak dira, bidegabe kartzelatuak izan direnak. Bost urtean 60 emakume atera ditugu kartzela horretatik, eta, ondoren, ahal dugun neurrian laguntza ematen diegu.

Zein proiektu burutuko duzu aurten?

Betiko moduan, diru pixka bat eramango dut, baina motibatzen nauena da laguntza morala ematen diedala. Piztiaren Treneko etorkinei ere lagunduko diet. Tren honen ganean joaten diren etorkinak aterpetxeetan geratzen dira, apaizek kudeatzen dituztenak, eta haiekin ere egongo naiz, ukenduak eramango diet...

Bertako ideologia Eskoriatzara ere ekarri duzu, ezta?

Eskoriatzan 17. Aste Zapatista egingo dugu aurten. Zaila da kontzientziak esnatzea, eta ez da lortzen jendeak txipa aldatzea. Hala ere, EskoZap taldea daukagu eta beti ditugu eta izango ditugu ateak zabalik aldaketa nahi duenarentzat.



Iurre Romaretazabalak Chiapasko komunitate batean ateratako argazkia.

Arimen Gaua ospatzeko ekintza ugari izango dira Eskoriatzan

"Xanduli, manduli, kikirriki... eman goxokiak guri!" esanez gozokiak eskatuko dituzte haurrek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Pasa den urtean moduan, aurten ere, Eskoriatzako Gaztelekuak, Tortolis ludotekak eta Hezkuntza Foroak elkarlanean Arimen Gaua prestatu dute.

Urriaren 31n izango da ospakizun nagusia, baina aurretik, gaztelekuan eta Tortolis ludotekan ekintzak antolatuko dituzte. Ludotekan, esaterako, gaur, 18:00etatik aurrera jolas beldurgarriak egingo dituzte, eta nahi duena bertaratu daiteke. Urriaren 29an eta 30ean, berriz, gaztelekuan beldurrezko ipuinak

eta beldurrezko maskarak egingo dituzte.

Arimen Gaua, aldiz, urriaren 31n izango da. 18:00etan, nahi duten haur guztiak ludotekan elkartu eta mozorrotu egingo dira –norberak eraman beharko du mozorroa–.

18:30ean, Herriko plazan kalabaza hustuketa hasiko da –mozorrodunei emango zaie lehen-tasuna– eta 19:00etan, beldurrezko ipuin kontaketa egongo da plazan Maider Galarzaren eskutik; eta euria egiten badu, kultura etxean egingo da.

Oihal akrobazia egiten ikasteko aukera izango da azaroan

Martitzenetan eta eguenetan izango dira saioak haur eta helduentzako Agurtzane Telleriaren eskutik

Imanol Beloki ESKORIATZA

Azaroan oihal akrobazia ikastaroa hasiko da Eskoriatzako gimnasioan, pilotaleku azpiko gelan. Prezioa 15 euro da –klase solteak–, eta 40 euro, hileroko as- tean behin joan nahi duenarentzat. Martitzenetan eta eguenetan izango dira saioak 18:30etatik 19:45era. Martitzenetan helduendako izango dira eta eguenetan haurrentzako.

Oihaletan aritzeko hastapena izango da oinarrian ikastaroaren funtsa. "Lehenengo, beroketak egingo dira yoga pixka bat egi-

nez, eta gero, oihaletara pasako gara figurak egitera", adierazi du Agurtzane Telleriak, oihal akrobazia ikastaroan irakasle izango denak.

Helburua talde finko bat osatzea dela adierazi du Telleriak: "Taldea osatzen bada, eta indarra hartzen badugu, herrian erakustaldi bat egitea da asmoa, beraiek nahi badute". Izena eman nahi duenak edo informazio gehiago behar duenak 609 556 210 telefono zenbakira deitu dezake, edo agur00.at@gmail.com helbidera idatzi.

'Aztarnak' pintura erakusketa Inkernu tabernan ikusgai

Azaroaren 4an, *Aztarnak* pintura erakusketa irekiko da Inkernu tabernan, 19:00etan. Hildakoen Eguna ospatzeko, akrikoluan margotutako lanak ikusteko aukera izango da, luntx batekin lagunduta. Horrez gain, artistak egindako *Catrina* baten irudia Charo Gallegok dramatizatuko du performance baten bidez.

Bertso saioa egingo dute Lizasok eta Euzkitzek

Azaroaren 19an, Sebastian Lizasok eta Xabier Euzkitzek bertso saioa eskainiko dute Apotzagako San Miguel merenderoan, 70 pertsona ingururendako. 20:30ean hasiko da saioa, eta, Inkernu tabernan salgai izan diren sarrera guztiak agortuta dauden arren, 20 sarrera inguru merenderoan bertan daude salgai oraindik.

Domu Santu egunerako kanposantua prest

Eskoriatzako kanposantuan eraberritze lanak irailaren 27an hasi ziren, eta, aurreikuspenak beteta, amaituta daude egin beharreko aldaketa guztiak. Hesi batzuk jartzea falta den arren, aukera dago bertara sartzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako kanposantuaren alde berriagoaren eta zaharagoaren arteko komunikazioa bideratzeko eta kanposantuko irisgarritasuna hobetzeko lanak amaituta daude dagoeneko. Obra hasi aurretik, Domu Santu egunerako amaituko zituztela adierazi zuten Udaletik, eta, detaileren baten faltan, aukera izanongo dute herritarrek egun horretan kanposantura sartzeko. "Hesi batzuk jartzea falta den arren, bukatuta daude lanak", adierazi du Aritz Urrutiak, Eskoriatzako udal teknikariak.

Kanposantuko lurra berritu egin da, zolatuta, hormigoï inpresu batekin; hala, sarrerako eta hilobien arteko bidea egoki jarrita. Honekin batera, pareta konpondu da, zaharra botata, eta lekua handitze aldera horma-hilobi batzuk kendu egin dira. Irisgarritasuna hobetzeko, lehen zeuden eskailerak egokitu egin dira, eta arrapala berri



Amaituta daude Eskoriatzako kanposantua eraberritzeko lanak. I.B

bat jarri da; dagozkion eta bete behar diren neurrien arabera egin dute.

Goiko sarrera itxita

Kanposantuak bi sarrera ditu: eskaileretatik gora oinez igo

daitekeena –sarrera nagusia– eta goiko alde deritzona, bertaraino autoz ere joan daitekeena. "Kanposantuko atzealdean, gora igotzeko aukerarik ez da egongo oraindik, itxita egongo da. Dena den, bertan ez dago hilobirik ez ezer, eta goiko zatia itxita utzita egotearen arrazoia da arriskutsua izan daitekeela, eta beste proiektu berri bat egiteko asmoa dagoela". Hala ere, proiektu hau epe luzerakoa izango da, eta informazio gehiago aurrerago helaraziko dutela adierazi dute Udaletik.

Aurreikuspenak beteta

Obrak hasi berri, azaroaren 1erako lanak amaituta izatea aurreikusi zuen Eskoriatzako Udalak, eta, lanak ondo joanez gero, urriko azken asterako. Hala, aurreikuspenak bete egin dira, eta egin beharreko lanak amaituta daude.

Sasoï Eraikuntzak enpresak egin ditu kanposantuko lanak, eta Eraiki enpresak eraman du obra zuzendaritza. Aldez aurretik adierazi moduan, aurrekontuaren barruan egin dituzte lanak eta guztira 50.000 euro inguruko kostuarekin.

Perretxikoak bilatu, ezagutu eta sailkatzeko aukera izango da

Errotari Elkarte Mikologikoaren laguntzarekin, perretxiko bakoitza izendatu eta zalantzak galdetu ahalko dira

I.B ESKORIATZA

Zapatu honetan, azken urteotan egin ohi den moduan, Luis Ezeiza Herri Eskolako Koldotxo Guraso Elkarrekin antolatuta, mendi irteera egingo da perretxikoak bilatu eta ezagutzeko. 10:00etan irtengo dira Herriko Plazatik, eta arratsaldean, 16:30etan, perretxikoen sailkapena egingo dute Kultura etxean Errotari Elkarte Mikologikoaren laguntzarekin.

Domekan, berriz, perretxiko mota ezberdinak sailkatuta ditzutela, 12:00etatik 14:00etara bitartean perretxiko erakusketak egingo da Herriko Plazan. Bertan, umeentzako margo txapelketa ere egongo da, bide batez, eta gaia, nola ez, perretxikoak izango da. Umeentzako sariak egongo direla adierazi dute antolatzaileek, baina aurten ez dira taloak egiten izango. Kol-



Perretxiko erakusketak. LARRAITZ ZEBERIO

dotxo Guraso Elkarteko Josema Melgarejoren esanetan: "Aurten berezia izango da zubia delako, eta, horregatik, ez dakigu zenbat jende gerturatuko den. Hala ere, zalantzak dituztenek eta mikologiak ikasi nahi dutenek aukera aproposa izango dute".

Xakean aritzeko taldea osatu nahi du Eskoriatzako Udalak

Era askotako adimenak garatzeko, erreminta pedagogiko gisa... balio du mahai-joko honek

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako xake talde bat sortu nahi du Udalak. Talde irekia, adin guztietara zabalik egongo dena, xakean ikasteko eta jolas-teko aukera eskaintzeko. Eta hori egiteko boluntario bila ari da Udalak, xakezaleak, jokatzeko dakitenak edo ez dakitenak, interesa dutenak, gogoia daukatenak, edo denbora pixka bat duten pertsonak. Arantxa Unzueta udal teknikariaren esanetan: "Xakean jokatzeko dakiten herritarrik identifikatu nahi ditugu hasiera batean, eta ondoren, taldea osatzea izango da helburua ikasi nahi dutenak batuz".

Interesa duenak kultura etxera deitu dezake, 943 71 46 88 telefonora, informazio zehatza lortzeko. Horrez gainera, zalantzak argitzeko kultura@eskoriatza.eus helbidera idatzi dezake.

Xakearen onurak

Xakeak era askotako adimenak garatzen ditu –adimen emozionala barne–. Gainera, egungo gizarterako erabilgarrien diren bertuteak lantzeko balio du: arreta, autokritika, irabazi eta galtzearen kudeaketa, zirrara primarioen kontrola, pentsamolde logiko eta ordenatua erabakiak hartzea, irudimena...

Erreminta pedagogiko gisa xakeak duen balioaz egin diren ikerketek emaitza positiboak erakutsi dituzte. Horren adibide da Generalitateak bultzatutako ikerketa zientifikoa, Lleidako eta Gironako unibertsitateen eskutik egin dena. Ikerlan horren emaitza nagusia da: "Xakea ikasi duten ikasleek emaitzak hobetu dituzte, oro har, eta errendimendu akademikoa hobetu egin dute matematikan eta irakurketan".



Liztor habia kanposantuko sarreran. IMANOL BELOKI

Liztor asiarraren habia

Eskoriatzako kanposantuko sarreran dagoen zuhaitzean, liztor asiarraren habia ikus daiteke. Udaltzaingoen dagoeneko 20 habia inguru kendu dituzte dagoeneko aurten, eta adierazi dute habia hau datorren astean kenduko dutela.



'La familia bien, gracias' antzerkiko protagonistak. J.A ARETA GOÑI

'La familia bien, gracias' antzezlana izango da zapatuan

Umorea oinarri izanda, adin guztiei zuzendutako lana taularatuko dute Ausardi antzerki taldekoek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Amuska Emakume Elkartek antolatutako *La familia bien, gracias* ikuskizuna Errenteriatik etorritako Ausardi antzerki taldeak eramango du oholtzara. Komedia gisa antzeztutako lana zapatuan izango da, Zaldibar antzokian, gazteleraz, eta 19:00etan hasiko da. Sarrerak hiru eurotan izango dira salgai aldeztuak Manuel Muñoz kiroldegian.

Errenteriako Beti Bizkor zaharren egoitzako erretiratuek sortutako taldea da Ausardi eta bertako jubilatuek antzeztuko dute obra. Andone Esparzak zuzenduko du lana, eta Begoña Garcia, Feli Elorza, Javier Rivas, Joaquina Ripalda, Lucia Castro, Maria Asun Prego, Nelly Ballesterio eta Abel Alonsok antzeztuko dute. "Edozeinek izan dezakeen egoera familiarak antzeztuz, guk familian

dugun egoerekin antzekotasunak bilatzea da obraren funtsa", adierazi du Andone Esparza zuzendariak. Horrez gain, betiere, umorea oinarri izanda, pertsona batek erretiratzean hartu dezakeen independentziaren gainekoa da obra.

Helburua, umorea lantzea

Familia bat emakume nagusi baten atzetik ari da, bere herentziaren bila, arduratuta bere osasunarengatik, eta honek ez die kasurik egiten, libre bizi nahi duelako.

Emakume nagusiak, kasu egin beharrean, independentzia nahi du, eta, horregatik, bidaian joateko asmoa duela azalduko du familian. Egoitza batera joan beharrean, lagun batzuekin pisu batera joan nahi du bizitzera... Kezkak alde batera utzita, bizi egin behar dela izango du helburu protagonistak.

zan egongo dira saskiak erakusten eta herritarren izenak jasotzen. 50 euroko prezioan izena eman, eta kanpaina amaitzean saskiak entregatuko dira.

Kanpainak urriaren 28tik azaroaren 8ra iraungo du, eta saski beltza edo zuria jasotzeko aukera izango da. Ordaindutakoaren %25, berriz, Nafarroa hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da. Saskiak eskatzeko beste modu bat info@atxorrotx.eus helbidea izango da.

Errigorako saskien kanpaina gaurtik aurrera Eskoriatzan

Nafarroa hegoaldea ardatz izanda, bertako produktuek Euskal Herrira zabaltzeko eta euskalgintzari bultzada emateko sortu zen Errigora egitasmoa.

Eskoriatzan gaur hasiko du *Nafar hegoaldeko uzta euskara puzka* leloa duen kanpaina Atxorrotx Kultura Elkartek. Hala, 19:30etatik aurrera pla-

Arrakastatsua izan da III. Gatzaren Eguna

Mota guztietako ekintzak izan ziren domekan, gaztetxoentzat zein helduentzat, eta eguraldiak uste baino gehiago lagundu zuenez, eguna behar bezala ospatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek, Joannes Mendizabal kultura zinegotziaren esanetan

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Eguraldia zela eta, gatzagarrik beldur ziren Gatzaren Eguna behar bezala ospatzeko aukera izango ote zuten. "Eguraldiak lagundu egin du eta jende dezentet gerturatu da; beraz, gustura", dio Joannes Mendizabal kultura zinegotziak.

Gatza bakarrik ez

Gatza izan zen eguneko protagonista nagusia, herriari nortasuna ematen dion produktua. Hala ere, beste hainbat gauza ere egon ziren. Mendi ibilaldian batutako gaztaina erreak, ogia, gazta, barazki ekologikoak, pastelak eta eztaia, besteak beste.



Basoan batutako gaztainenak jan zituzten, danbolinean erreta. IBON CARMONA



Barazki ekologikoen azoka. I.C.



Haurrak ogia egiten, plazan. I.C.

Beteranoen Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte bihar

Bi partidu izango dira, Jodra-Kintana/Beraza-Etxeberria eta Lazkano-Korta/Gomez-Zubiria, 11:30ean hasita

E.A. LEINTZ GATZAGA

Martxoan hasitako txapelketa bihar, zapatua, amaituko da.

Bi mailatan banatu dira txapelketa osatu duten 16 bikoteak. Bigarren mailako finala Jodra-Kintana legutiarrek jokatuko dute Beraza-Etxeberria egoibartarren aurka, 11:30ean. Hau bukatzean, lehenengo mailako finala izango da, Lazkano-Korta arrasatearrek eta Gomez-Zubiria mallabitarrek jokatuko dutena.

Badira hainbat urte txapelketa hau antolatzen dutela, eta ordutik, urtero egiten dute. "Ez nago guztiz ziur, baina 8 edo 9 urte izango dira honezkeron", adierazi du Mauricio Zubillaga antolatzaileak.

Zubillagak berak ere parte hartu du txapelketan. Izan ere, Debagoieneko hiru bikotek hartu dute parte, Zubillaga-Bengoa gatzagarrek, Saizar-Etxeberria aramaioarrek eta finalera iritsi diren Lazkano-Korta arrasatearrek, hain zuzen.

Gogoan iltzatzen diren sentipenak

"Oso polita, hunkigarria", halakoxea iruditu zitzaion Osintxun 1936an fusilatutakoen senideei 80. urteurrenako omenaldia; malkoak masailetan, zenbat negar zortzi hamarkadotan; gogoan gordeko dute, faxistek kendu zieten gordetzen duten bezala

Julen Iriondo BERGARA

"Berba egitten genduan bakoitzian, negarra zan [isiltasuna], amakin, negarra zan". Eta urteek ez dute iturria lehortu; zapia eskuan eta malkoa begietan bizi izan zuten senide batek baino gehiagok fusilatzen 80. urtemugako ekitaldia. Tiro hotsek eragindako malkoak, biolin eta bertso doinuz etorritakoak, lehen eta orain, Jose Goikoetxea, Ricardo Zangitu, Rufino Akizu eta Tomas eta Ildefonso Iñarra gogoan.

Nola ez gogoan izan, haiek gertatzean 3 urte soilik izanda ere, Marina Dolara Zangituk bezala -amaren neba zen Ricardo Zangitu-: "3 urte euki arren, penazko gauzak geratu egiten dira". Nola ez gogoan izan: "Hementxe tiruak entzun eta dana egin zittuen nere gurasuak".

Begirada finko, une batez oraina utzi eta iraganera, 1936ko urriaren 20 hartara bidaiatuko balute bezala, nola jarduten duten senideek! "Tomas Iñarraren andriak esaten eban, nere ama-

giñarrebak [zioen Mari Karmen Zarrabek], ahaztu sekula ez, eta gorrotua be ez dana kendu e! Hori ez zan egin deskuido batian; hori egin zan nahi zala".

Bost langile xume erailak, arrazoirik gabe atxilo hartuak, epaituak ere izan gabe fusilatuak; heriotzen 75. urteurrenean Osintxu sarreran hil zituzten lekutik gertu jarritako monolito aurrean, 80.ean ere omenduak. Enaitz Alustizak bertsoan zioen bezala: "Egin zutena ez dugu ahazten, eta ez dugu ahaztu nahi".



Domekan egindako manifestazioa, senideak buruan.



Mari Karmen Zarrabe, Tomas Iñarraren erraina, loreekin.

GURE BEZEROEN EROSOTASUNA HOBETZEN JARRAITZEN DUGU.



Orthophos SL 3D (TAC 3D Digitala)

HASIERATIK BUKAERA ARTE TRATAMENDU OSO-OSOA GURE KONTSULTAN EGITEKO AUKERA DUZU.



Erradiografia sistema berriena!
Patologian, implantologian eta ortodontzian aplikagarria!

HARRI ZURI
HORTZ KLINIKA

Ibargarai 21, behea - BERGARA
Tel.: 943 25 34 34 - 664 47 05 72

Astelehenetik ostiralera:
09:00 - 13:00 / 14:00 - 20:00
Zapatuetan:
Aurrez deituta

Ikus gure webgunea: www.harrizuri.com



Aste bukaeran urgentiaren bat baduzu, deitu lasai mugikorrera!

Punta-puntako teknologia erabiltzen dugu

Medizina erregeneratzailea lantzen dugu (PRGF plasma), zikatrizazio hobea lortzeko eta hobeto osatzeko

Kromoterapia eta Shiatsu erlaxatze teknikak erabiltzen ditugu, lasai senti zaitezten



Aurrekua dantzaten.



Senideetako batzuk, Jon Balentziagak egindako monolitoaren atzean.



Ekitaldia jarraitzen, fusilatuen senideak lehen lerroan eserita direla. ARGAZKIAK: OIHANA ELORTZA

San Joxepekoak oso pozik Kulturaldiak emandakoarekin

Felix Garitanoren hitzaldia, Ikusi-Makusiren antzezlanaren eta azken bazkaria, adibidez, arrakastatsuak izan dira

Julen Iriondo BERGARA

Hilaren 13an hasi eta aurreko zapatara arte egin dute Kulturaldiak, eta pozik geratu da emandakoarekin San Joxepeko zuzendaritza: "Ondo joan da dena", zioen Jose Ramon Eguren presidentek. Jon Molina parrokoaren hitzaldiarekin hasitako ekitaldi-sortari, eskularen erakusketarekin eman zioten jarraipena: "Nahikotxo jende etorri zen ikustera".

Oso gustukoa gertatu zena izan zen Felix Garitanok sinismenaren gainean egindako saioa; Garitanok bertan esandakoak jaso eta liburuxka egin dute, hitzaldian egon zirenen eta interesa agertu zutenen artean banatzeko -datorren astean-.

Errioxara egindako bidaian, eta mahats-biltze garaia izanda, mahatsa upategira nola iristen zen ikusteko aukera izan zuten,



Bazkalostean dantzan. IMANOL SORIANO

besteak beste. 70 lagun izan ziren Ikusi-Makusikoen antzezlanaren, eta ia beste hainbeste itxiera bazkarian. Gehienak opari eta guzti joan ziren gainera etxera. San Joxepekoek eskerrona agertu nahi diete opariak eman zituzten enpresei.




Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

BEILATOKIA

ETENGABEKO ZERBITZUA

LORE KOROAK

ESKELAK

TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA

Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net



Hainbat puntu adostu dituzte 2017ko zergetan

Gobernuaren aldeko botoekin eta oposizioaren kontrakoekin onartu zituzten osoko bilkuran datorren urterako ordenantza fiskalak. Hala ere, EAJk eta EH Bilduk lortutako adostasun maila azpimarratu zuten. KPla beste igoko dira zerga eta tasa gehienak

Julen Iriondo BERGARA

"Hainbat puntutan adostasunera heldu gara denon lanari esker, oposizioaren eta gure lanari esker", zioen Elena Lete alkateak; eta EH Bilduko Leire Iruinek: "Guk, Gobernuan egon ginen zortzi urteetan ez genuen inongo ekarpenik jaso, eta ez dugu konpartitu izan oposizioa egiteko modu hori". Horregatik, "oposizio eraikitzaile" baten izenean, ekarpenak egin eta hainbat gauzatan EAJrekin adostasuna lortu izana azpimarratu zuen Iruinek; eta jeltzaleek gauzak lantzeko behar beste denbora eman baliete adostasun gehiago leudekeela ere bai.

Edukira sartuta, tarifa sozial berria ezarri dute Agorrosinen, eta neurri bera aplikatuko dute Osintxuko, Angiozarko eta Oxirondoko ludoteketan ere. Azken hori izan da EH Bilduk EAJrekin adostutako puntuetako bat. Beste batzuk aipatzen hasita, koalizioa pozik agertu zen energia efizientzia ikuspegitik etxebizitza birgaitzeagatik jaso beharreko hobaria %100ean mantentzearen -%70era jaitea zen EAJren asmoa-. Ekonomia jardueren gaineko zergan ere %25eko hobaria adostu zuten, enpresaren tamainaren arabera euren lantaldea %10 edo %20 handitzen duten enpresentzat.

Desadostasunei dagokienez, EH Bilduk eskatu zuen aurten %20ko igoera zuzendu eta Agorrosingo tasak %10 jaitea. Azaldu zuten igoerarekin abonatuena %8 galdu dituela Agorrosinek, eta %20ko igoerarekin zerbitzuaren defizita "180.000 euro" murriztetik -Gobernuak helburu jarritakoa; 174.000 euro zehazki- "nahikoa urrun" geratuko direla; alkateak, ostera, Agorrosingo kirol jardueran "mantendu" egin dela zioen, eta erlatibizatu egin zuen bazkide galera: "Agian, hortik atera direnak dira bazkide zirenak baina erabiltzen ez zutenak. Besteek jarraitu egin dute, eta hori demostratu da urtean zehar", zioen. Urte amaierako zenbakien zain, %20ko igoerak azken urteetako Agorrosinen defizitaren neurri gabeko goranzko joera agertu zuen Letek. EH Bilduren ustez, hala balitz ere ez luke justifikatuko zerbitzu publiko baten tasaren %20ko igoera. 2017an %1 igoko dira Agorrosingo prezioak. Horrez gain, Elgetako eta Antzuolako Udalek finantzaketan parte hartzeko adostasunik lortu ez eta Bergaran errolatuta ez daudenen errenergua %25etik %30era pasatuko da.

Irabazik hainbat emendakin aurkeztu zituen, baina gehienak atzera bota zituzten, nahiz eta zenbaitek EH Bilduren babesa jaso, ez horrela Gobernuarena. Azokara bertako produktuak eta produktu ekologikoak ermaten dituzten baserritarrei hobaria aplikatzea eskatzen zuena izan zen horietako bat. Alkateak azaldu zuen ezin dela gehiago handitu azokakoekiko kaleko dendariak duten desabantaila -kaleko hainbatek ere saltzen dituztelako bertako produktuak-. Aiert Lizarralde azaldu zuen, orokorrean, "bentako lan on bat egiteko oso urrun" daudela Bergarako Udalean.

2017ko ordenantza fiskalak

Oro har, KPla adina igoko dira zergak, KPla positiboa baldin bada; osterantzean, ez da aldaketarik izango. Badira, ordea, salbuespenak; 2016ko ordenantzekiko aldaketak dira hemen adierazten direnak.

Tasan aldaketak

- **Erabilera anitzeko etxebizitza** %1,5eko igoera, 2016ko KPla txikiagoa bada; handiagoa bada, KPla.
- **Agorrosin** %1eko igoera abonuetan eta ikastaroetan. Bergaran errolatuta ez daudenen errenergua, %25etik %30era.
- **Ur zerbitzua** Aldaketarik ez.

Hobariak

- **Ekonomia jardueren gaineko zerga** Langile kopuruaren arabera, urte baten lantaldea %10 edo %20 handitzen duten enpresentzat, %25eko hobaria.
- **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga** %95, emisio gabekoentzat; %80, hibridoentzat. %50 familia ugariantzat -ibilgailu bakarra familiako-.
- **Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga** Eraginkortasun energetiko irizpideekin fatxadak konpontzean, %100. Fatxadak margotzeagatik, %80. Ilogailu berria jarri gero, %100.
- **Agorrosin** %50 arte, diru-sarreraren arabera (Tarifa soziala 2). %25, 65 urtetik gorakoek, lanegunetan irekieratik 16:00ak arte, eta jaiegunetan egun osoz.
- **Euskaltegia** %25, birmatrikulazioetan.
- **Ludotekak** %100, Tarifa sozialaren irizpideekin.

Gripearen kontrako txertoa, datorren astean auzoetan

Eguaztenean, azaroak 2, Osintxun izango dira anbulatorioko kideak, hala nahi dutenei gripearen kontrako txertoa jartzeko; 12:00etatik 12:30era izango da, liburutegian. Labegaraietara, ostera, hurrengo egunean joango dira, egunean. 11:00k eta 12:00ak artean egongo da txertoa jartzeko aukera, kiroldegian.

'Familia eta eskolaren arteko komunikazioa', hilaren 8an Irizarren

Etxadiko profesionalek emango duten hitzaldia Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gurasoentzat izango da bereziki, eta 18:00etan hasiko da. Izena eman behar da: 943-77 91 26/943-77 91 65. "Familiaren eta eskolaren arteko komunikazioa adin txikikoen garapena sustatzeko gako izateko estrategia praktikoa batzuk" aurkeztuko dituzte.

Valleko kondearen gaineko erakusketa, gaurtik Aroztegin

Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa: garai aldaketa baten isla izeneko erakusketa azaroaren 13ra arte egongo da ikusgai. Valleko kondea, bere argazkien bitartez, bukatzen ari zen bizimodu baten adierazle da. XIX. mendeko bukaeratik XX. mendeko 30eko hamarkadara arteko gizarte aldaketa erakusten dute argazkiek.

Arizondoren eskutik azaroan, oinarritzko argazkilaritza

Azaroaren 7tik 30era izango da Arizondo Argazkizale Elkartearen oinarritzko argazkilaritza ikastaroa. Astelehen, martitzen eta eguaztenetan izango da, eta denera 24 ordu, 19:15 eta 21:15 artean, elkartearen egoitzan. Hamalau lagun izango dira gehienez, eta herrikoek lehentasuna izango dute. Izena emateko zenbakia: 943-76 00 01 -lan orduetan-.



NIRE USTEZ

IOSU ELORTZA

Miresmena

Askotan ez gara konturatzen, ez zaigu burutik pasatu ere egiten. Egunerokotasun bezala, iratzargailuak edo mugikorrek jotzean altxatu eta beste egun bati ekiten diogu normaltasunez. Egunerokotasuna barneratua dugu, ez diogu garrantzirik ematen, baina badira egunerokotasun horri aurre egiteko lanak dituztenak.

Loteria txar bezala izendatzen dut. Batzuek, jaiotza egunetik daramate; beste batzuek ustekabeen, egun batetik bestera, bizia aldatzen die. Ez naiz Gabonetako milioiez ari, ez, osasun arazoez baizik.

Egunerokotasuna arazo barik aurrera eramatea gauza handia da. Zorionez, aurrera pauso handiak ematen ari dira, eta arazoren bat dutenen bizi kalitatea asko hobetu da. Sekula ezin da galdu esperantza, tunelaren amaieran argia azalduko denarena.

Egunerokotasun horretan laguntzen duten familia, erakunde eta boluntarioentzat dira lerro hauek. Katxalin, FundAME, Aspanogi eta beste hainbat talderi eta ospitaleetan lanean zabilatzaten profesional guztiei esan nahi dizuet, nire miresmen osoa duzuela.

1940an eta 1953an jaiotako bazkaria eta afaria

1940koek azaroaren 12an egingo dute bazkaria Azpeitxin (14:00). 13:00etan elkartuko dira Sierbetan. Izena, hilaren 5era arte: 943-76 18 33 edo 650 09 25 53. 1953koek hilaren 26an egingo dute afaria. 20:30ean aterako da autobusa, azokatik Tartufora. Izena, han eta Tasiorenean, edo Juan Antonio Unzurrunzagari edo Imanol Agirreri esanda.

Wolfram Encounter: lehen edizioa ospatuko da

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien barruan, azaroaren 5ean eta 6an Aranzadi Ikastolako gimnasioan hainbat jokorekin 28 orduko txapelketa egingo da. Horrez gain, beste hainbat ekintza izango dira Seminarioko karpan

Imanol Beloki BERGARA

Bergarako zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien astearen baitan, Wolfram Encounter lehen edizioa egingo da Bergaran. Azaroaren 5ean 10:00etan hasi eta azaroaren 6an 14:00etan amaituko da 28 orduko txapelketa. Aranzadiko seminarioko gimnasioan egingo da txapelketa eta bertan parte hartzeko izena eman beharko da wolframencounter@gmail.com helbidera idatzita.

Kirol elektronikoak sustatzeko eta herritarrei ezagutzera emateko antolatu dute ekimena, elkarlanean, Maijokuk, Eibarko Omnis Klubak eta udalak.

Hiru joko txapelketan

Counter Strike Global offensive, *Ligue of Legend* eta *Hearthstone* jokoetan arituko dira, eta bi partidatara jokatu dute. Plazak mugatuak izango dira -48- eta izena eman ez duena txapelketan ez jokatu arren, bertara joan daiteke ikustera.

Iker Dominguez ekimenaren antolatzaileetako baten esanetan: "Iaz egin genuen txapelketa txiki bat jokoak ezagutzeko, eta aurten zerbait handiagoa egitea erabaki dugu, 28 orduko txapelketa, hain zuzen. Nork bere ordenagailua eraman beharko du eta argindarra eta Internet, berriz, guk jarriko dugu".

Beste hainbat ekintza

Seminarioko karpan beste hainbat ekintza izango dira jokoen txapelketaz gain. *Zorman* izeneko *youtuber*-a izango da hitzaldia ematen. "*Youtuber*-a da, eta bere esperientzia kontatuko digu honetaz bizi denak". Horrez gain, EA Sports-eko profesionala den Lukas Rojo ere bertan izango da. "Iaz Espainiako liga irabazi zuen *League of Legend* jokora jokatzeko, eta hau ere bere esperientzia eta bizitza kontatzerako etorriko da".

Azkenik, hitzaldiez gain, material birziklatuekin errobotak egiteko ikastaroa egongo da umeentzako.

Lokatza Ziklismo Eskolak 40 urte beteko ditu

Azaroaren 19an, 40 urteak ospatzeko bazkaria egingo da Aranzadiko gimnasioan. Izena Gracian Mertzerian eman beharko da. Horrez gain, azaroaren 5etik aurrera, lau txirrindulari profesionali buruzko erakusketa jarriko da ikusgai Dixula tabernan: Jesus Arantzabal, Migel Bengoa, Santi Aiastrui eta Jose Inazio Askasibar.

Hainbat karateka bergarar Espainiako Txapelketara

Begarako Shotokan taldeko hainbat karateka sailkatu dira azaroan Tenerifen jokatu den Espainiako Txapelketarako. Kadete mailan, Markel Salgado bigarren eta Irene Castelos laugarren. Juniorretan, Joseba Perez de Aguado eta Urko Nogales hirugarren; eta 21 urtez azpikoekin mailan, Iker Osinaga lehena eta Andoni Mujika hirugarren.

Azken postuetatik ateratzeko lanetan BKE eskubaloikoak

Gipuzkoako txapelketako Soralue BKE eskubaloitako Saieko taldearen aurka jokatu du zapatuan. 16:00etan izango da, Labegarietan, eta sailkapenean gora egin beharrean daude.

Gipuzkoako bigarren mailako Soralue Bergara saskibaloitako taldeak, aldiz, Viento Sur taldearen aurka jokatu du azaroaren 6an, 16:30ean, Labegarietan.

Gipuzkoako Txapelketako lau partidu gaur Bergaran

Gaur, 19:45ean hasita, Bergarako Udal Pilotalekuan Gipuzkoako Txapelketako errendimenduko hiru partidu eta gazteen partidu bat jokatuko da. Azken hau final-laurdenetakoa izango da, gainera. Domekan, berriz, 11:30ean, DV Pilota Txapelketaren barruan, promesek partidu bat jokatu dute eta seniorrek beste bat.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26/ 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab


Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
 - Ureztatze sistemak
 - Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
- Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45





Aroztegi aretoan egin zuten 'Stop motion' tailerra. IMANOL SORIANO

Txotxongilo Mostrak ez die hutsik egin ikusleei

Lau egunez nazioarteko artistak bildu dira Bergaran, Taun Taun Teatro konpainiak hamairugarrenez antolatutako zikloan parte hartu dute. Emanaldiek erantzun "oso ona" izan dutela nabarmendu dute antolatzaileek, jende asko erakarri baitute

Maite Txintxurreta BERGARA

Bergarako 13. Helduen Txotxongilo Mostrak dagoeneko eman du eman beharrekoa. Bada, lau egunez herria txotxongiloen magiaz bete da, eta nazioarteko izen handiko artistak izan dira gurean. Beste behin ere, Taun Taun Teatro konpainia ardura da ekimena antolatzeaz, Bergarako Udalaren laguntzarekin, eta aho zapore onarekin geratu dira behin zikloa bukatuta.

Taun Taun Teatrotako Itsaso Azkarateri aurtengo edizio honetaz egin duten balorazioaz galdetuta, "oso ona" izan dela dio. Hilaren 20an, eguna, hasi zen mostra, eta domekara arte iraun zuen. Lau egun horietan zehar, bederatzi ikuskizun desberdin izan dira herrian, agertoki desberdinetan; batzuk barruan, eta beste batzuk kanpoan.

Askotariko emanaldiak izan direla nabarmendu du Azkaratek, "elkarren artean oso desberdinak teknika aldetik", antolatzailearen hitzetan.

Ikuskizunak jendez lepo

Itsaso Azkaratek ikusleen erantzun ona nabarmendu du. Izan ere, hitzorduetan "jende asko" izan dela dio. Eguen iluntzean Deabru Beltzak taldekoek kale ikuskizun bat eskaini zuten, *Su à feu* izenekoa, kalean zebiltzan herritarren atenzioa piztu zuena musika, txinparta eta mozo-erro deigarriekin.

Hori, baina, hasiera besterik ez zen izan. Hurrengo egunetan hitzorduak Zabalotegi aretoan, San Martin plazan eta gaztetxean izan ziren. Bada, emanaldi guztiak ikustera jende mordoxka gerturatu zen. Kartzela zaharreko *Variette White* ikusteko, esate baterako, aretoko eserleku guztiak bete egin ziren eta jende

ANTOLATZAILEEK NABARMENDU DUTE "JENDE ASKO" IZAN DELA MOSTRAKO IKUSKIZUNETAN

dea zutik geratu zen ikusten. Bestalde, Azkaratek zapatuan plazan izandako emanaldiek izandako arrakasta nabarmendu du. "Gaueko *Naufragos* emanaldian, kanpoan egin zena, 400 bat pertsona batuko ziren", dio. Bestalde, eguerdi eta arratsalde partean plazan muntatu zuten agertoki berezi batean, txakur txabola itxurakoa, Cal y Canto konpainiak *Perro Perdido* lana taularatu zuen. "Hiru emanaldi izan ziren, eta hiruretan jendez topera egon zen", dio Azkaratek.

'Stop motion' tailerra

Bestalde, berrikuntza moduan, zapatu goizean *Stop Motion* tailerra egin zuten Aroztegi aretoan, animaziozko film laburrak egiten ikasteko. Ibai Aizpurua adituak gidatu zuen tailerra, eta Azkaratek azaldu du talde txikia batu zen arren "profesionalen pareko" lanak egin ahal izan zituztela. Hala, gidaria zein antolatzaileak "oso gustura" daude ikastaroak eman duenarekin.

Patxi Larrion bergararrak bere lehen eleberria aurkeztu du

Feriatzaileak du izena liburuak, eta Nafarroan, Urbasa inguruan zein Iruñean kokatzen da istorioa

M.T. BERGARA

Patxi Larrion bergararrak *Feriatzaileak* liburuak aurkeztu zuen eguaztenean Irizar jauregian, familiarreko eta lagunez inguratuta. Izan ere, gaur egun Iruñean bizi da Larrion, eta argitaratu berri duena bere lehen eleberria da.

Zortzi Oscar sari jaso zituen Patton pelikularen Urbasako eta Iruñeko grabaketetan abiatzen da istorioa, eta hango lantaldearendako zerbitzu lanetan ziharduten Martin Galdeano eta Luis Urrea lagunak ditu protagonistatzat.

"Urbasa zinearekin lotzen dut beti", dio Larrionek. Izan ere, Bergaran bizi zela, Sakana aldera joaten zen sarri, bere gurasoan herrira, eta bidaia horretan Sakanatik pasatzen zen. Bada, behin baino gehiagotan tokatu zitzaion pelikularen bat edo beste filmatzen ari zirela bertatik pasatzea. Oroitzapen horietatik abiatuta idatzi du *Feriatzaileak*.

Toki eta pertsona erreferentziak Patxi Larrionek azaldu zuen bere eleberrian leku-izen asko darabilela, Iruñeko eta Urbasa



M.T.

inguruko jendeak, batez ere, "uneoro irudika dezan non gertatzen den istorioa".

Bada, pertsonaiak aukeratzekoan, berak ezagututako pertsona errealak ere hartu zituen oinarri Larrionek.

Idazleak azaldu zuen "dokumentazio lan handia" egin duela, eta hala ere, nobela "oso bizia" idatzi nahi izan duela, deskribapen gehiegi ere sartu gabe.

Larrion argitaratu berri duen liburuaren aurkezpenak egiten dabil orain. Horretarako, nobela "klabe" den maleta marroia darama berarekin.



M.T.

Bertsoak Mizpirualden

Ainhoa Agirreazaldegia elgetarrak eta Gregorio Larrañaga *Mañukorta*-k alaitu zuten eguaztenean Mizpirualdeko egoiliarren arratsaldea. Lankuren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Adin-Adin* egitasmoaren baitan, bertso saioa eskaini zuten. Hainbat egoiliar batu ziren bertsoak entzuterako, eta bertsolariak txalo zaparrada jaso zuten.



GERTURATU ETA HAMALAU

UDAZKENEAN ERE, GOIENA TELEBISTA

goiena[“]
ZU HEMEN ZAUDE



Norberaren barrua hobeto ezagutzeko ikastaroan 30 lagunek hartu dute parte. MAIDER ARREGI

Pozik eta harmonian bizitzeko gako bila

Jesus Mari Matak hamar urte daramatza hurrekin ikastaroak lantzen, norberaren barrua hobeto ezagutzeko. 'Nigan' proiektuak indarra hartu du eta gaztetxoekin izandako esperientzia aberasgarria, orain, helduekin jarri du praktikan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pozik bizitzea, norberaren buruarekin harmonian eta lasai egotea. Ez da horren erraza, gaur egungo gizarteak daraman abiadura azkarrarekin. Hala, isiltasunaz gozatzen ikasteko eta lasaitasuna bilatzen laguntzeko ikastaroa egiten dihardute, bigarrenez, Antzuolan. "Gure

barrua ikusi eta bertan dauden mugimendu guztiak aztertzen ditugu ikastaroan. Hona datorenak pozik bizi gura du, barruarekin lasai, eta bakean egon nahi du", azaldu du Jesus Mari Matak, ikastaroko gidariak.

Hiru arlo lantzen dituzte: psikologia eta afektibitate (emozioak); arreta; eta barruko isil-

tasuna. "Denok sekulako grina daukagu barruko isiltasunarekin bizitzeko. Adibidez, haurrak etengabeko mugimenduan eta ekintzatan egon behar direla uste dugu; baina ikastaro honen bitartez, ikusi dugu haurrak isiltasunarekin disfrutatu egiten dutela. Gizarte honetan beharrezkoak dira horrelako momen-

tuak; lasaitasuna eta zoriontasuna izateko".

Bizi kalitatea hobetu

"Badaude egunerokotasunak eragiten dizkigun arazoei aurre egiteko mekanismoak. Baina, horretarako, zure gorputza, barrua, ezagutu beharra duzu, eta ondoren zer egin jakin eta aplikatu. Barrua lantzeak gure bizi kalitatea hobetuko du. Izan ere, psikologiak asko aurreratu du eta oso mekanismo errazak eta sinpleak daudela azaltzen dugu saioetan. Hau da, esperimentatzea da gakoa; isiltasunean nagoela zer sentitzen dudana, alegia", argitu du *Nigan* ekimeneko bultzatzaile antzuolarrak.

Gaineratu du gizaki orok dituela bizitzeko aspirazioak; eta aspirazio horiek zapuzten badira, askotan frustrazioa eragiten dutela. "Aspirazio horiei bidea eman behar zaie pozik bizitzeko. Aspirazio horiek nola lortu ikasi behar dugu gure bizi kalitatea hobetzeko".

Ikastetxeen interesa

Aramaio, Arrasate, Oñati eta Bergarako ikastetxeek hurrekin barrua lantzeko interesa azaldu dutela dio Matak. "Mariaren Lagundian azaroan hasiko gara ikastaroekin. Bailarako ikastetxe askok ere aintzat hartua daukate garrantzia".

Azaroaren 4an, gazteendako saioa eskainiko da Orlanen, 18:30ean. 13 eta 19 urte artekoendako doako saioa da.

ALOR PSIKIKOA ETA EMOZIONALA, ARRETA ETA ISILTASUNA LANTZEN DUTE IKASTAROETAN



MAIDER ARREGI

"Dugun onena ateratzen da"

SILVIA MARIA
HAUR HEZKUNTZAKO
IRAKASLEA

Silvia Maria Haur Hezkuntzako irakaslea da. Hurrekin esperientzia positiboa izan duela dio.

Nolatan animatu zinen urrats hau egitera?

Yogatik abiatuta, horrelako esperientzietan murgildun nintzen. Horrela, nire proiektua ere bertan zentratu nuen. Izan ere, LOMCEn, curriculumean zentratzen dira soilik, eta ez esparru pertsonalean. Hau da, ez ditu pertsonak, haurrak, ardatz hartzen.

Zein onura dakartza?

Geletan ezagutzen ez genuen haurren alderdia azaleratzen da. Euren onena ateratzea lortzen dugu. Haur guztiak dute barruan zerbait emateko eta hezkuntzatik ondoen egiten dutena aurrera eramaten lagundu behar diegu. Bakoitzak badu-eta zerbait ona barruan.

Mikel Bargiela: "Zineak espazioa izatea merezi duela uste dugu"

Aurten berriro eskainiko dituzte euskarazko azpitoluarekin helduendako filmak Torresoroan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Helduendako zine emanaldiak hileko azken domeketan izango dira 18:30ean Torresoroan. "Orain artekoak arrakasta txikia izan duten arren, ordutegia eta eguna aldatuta jende gehiago ger-

turatuko dela uste dugu pelikula ikustera. Saiatzen segi behar dela uste dugu, zineak Antzuolan espazio bat izatea merezi baitu, aberasgarria da", azaldu du Mikel Bargiela zinegotziak. Hala, etzi, lehen filma eskainiko

da: *Shock Doctrine*. Eskainiko diren pelikulak Filmazpiten katalogoak izango dira eta bertsiorekin orijinalean euskarazko azpitoluarekin. "Oraindik ez daukagu eskainiko diren pelikulak aukeraturik, baina denetarik izango da: dokumentalak, egungo munduaren errealitatearekin zer ikusia duten gaiak jorratzen dituztenak (emakumeek bizi duten errealitatea, adibidez), edo nobela eta artea ardatz duten pelikulak". Bargielak dio hiru helburu dituela ekimenak:

"Pedagogikoa (ikastea) zinearen bitartez, herritarrak zinearen mundura gerturatzea (sentsibilizazioa), eta entretenitzea eta ondo pasatzea".

Hala, azaroaren 25ean, Emakumeen Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, emakumeak ardatz izango duen filma eskaini gura dutela gaineratu du Bargielak.

"Zine emanaldiak, hilabeteko azkenengo domeketan izango dira, azaroan izan ezik. Urrik apirilera arte, 18:30ean eta doan".

Erriberan euskara bultzatzeko bertako produktuak salgai

Erriberako elikagaiekin osaturiko saskia erosteko aukera izango da aurten ere Antzuolan. 50 euro balio du saski bakoitzak eta lortutako diruaren %25 Erriberan euskara sustatzeko erabiliko da. Azaroaren 8ra arte dago izena emateko aukera liburutegian edo Itzar liburu dandan. Aurten, produktu ezberdinez osatutako saskiak daude.

Erregionalak, kadeteak eta gazteak aurkeztuta

Aurreko astetan futbol eskolako lau taldeak aurkeztu zituen Antzuolako Kirol Elkarteak. Guztira, 56 neska-mutiko. Orain, lehen erregionalekoek, kadeteek eta gazteek denboraldi berrirako talde argazkiak atera dituzte Eztala zelaian

Maider Arregi ANTZUOLA

Abian da denboraldia herriko futbol taldeendako. Helburua, baina, AKEk dituen talde guztiendako berbera dela dio Mikel Kerexeta lehendakariak: "Futbolaren bitartez kirola egiteko aukera eman eta batez ere disfrutatzea da helburu nagusia eta denendako dugun asmoa".

Entrenatzaileak hauek dira: lehen erregionalean Igor Larrea eta Josu Zubikarai; gazteetan Jon Madariaga eta Txomin Esnaola; kadeteetan Aitor Lete, Mikel Agirre, Aitor Alonso eta Iker Altube; eta infantiletan Iker Gardoki, Ander Aranburu eta Mikel Jauregi.

Futbol eskola

Aurreko astean, baina, futbol eskola osatzen dutenen taldeak aurkeztu zituzten. Guztira, 56 neska-mutikok osatzen dute eskola. Hala, mutilen bi talde osatu dute alebinetan (25 mutiko), benjaminetan talde bakarra (18 mutiko) eta alebinekin eta benjaminekin osatutako nesken taldea ere osatu dute aurreko (16 neska). Guztien argazkiak goiena.eus/antzuola helbidean dituzue ikusgai.



Gazteen taldea, Eztalako zelaian. AKE



Kadeteen taldea, Eztalako zelaian. AKE



Lehen erregionalekoak, Eztalako zelaian. AKE

Askotariko gaztak dastatzeko aukera izango da Aitz Garbin

Ahuntz eta ardi gaztak dastatzeko aukera izango da azaroaren 6an, domekan, Aitz Garbi tabernan

M.A. ANTZUOLA

Herriko eta inguruko bailare-tako baserrietan egiten diren gazta motak dastatzeko aukera izango da Antzuolako Aitz-Garbi tabernan. Dastaketa azaroaren 6an, domekan egingo dute.

Ahuntz eta ardi gaztak dastatzeaz gain, bakoitzaren ezaugarriak zeintzuk diren ere azalduko zaie parte hartzaileak gaztaren mundura murgilduz.

"Horrez gain, baina, baserri-tako gaztagile horien bizimodua eta lanak ezagutuko dituzte bertaraten direnek. Aukera parega-

bea jaten dugunaren atzean zer eta nor dagoen jakiteko", azaldu dute antolatzaileek.

Izan ere, herriko gaztagile batak ere parte hartuko du. Hala, Antzuolako Pikunieta baserrikoek, ardi gazta nola egiten duten azalduko dute eta honek dituen bereizgarriak ekarriko dituzte. Bertan izango dira Itziaroko Egixa baserrikoak (ardi gazta) eta Soralezeko Egotzakoak (ahuntz gazta). Hamasei lagunendako plaza mugatua dago. Izena azaroaren 3ra arte eman daiteke Aitz Garbin.



PILAR ETXANIZ

LOMCEri ezetz esateko batu dira

Antzuolarrek, martitzeneko elkarretaratzean ezetz esan zioten LOMCEri eta horrek dakarren errebalidari. 09:00etatik 10:00etara egin zuten geldialdia Steilas eta ELA sindikatuek eta Eskola Publikoko Ikasleen Guraso Elkarteak (EHIGE) deitutako agerraldian. EH Bilduk ere bat egin zuen. Ondoren, manifestazioa egin zuten erdiguneari barrena 112 lagunek.

Antzuola eguna ospatuko dute Mizpirualden

Urtero legez, Landatxoeko lagunak eta Udaleko ordezkariak Bergarako Mizpirualde egoitzan dauden herritarrei bisita egingo diete zapatu arratsaldean. Festa giroa izango da nagusi. Helburua bertan dauden herritarrei Antzuolak ez dituela ahaztu adieraztea da, eta poztasun eta alaitasuna eskaintzea. Musika herriko trikitilariak jarriko dute.

San Jose ingurua txukuntzeko auzolanerako deia

Domekarako, urriak 29, San Jose eta San Joserako ibilbidea auzolanerako garbitzeko deialdia egin du Udalak. Sastrakak garbitzeko lanak asteon egin dituzte, eta orain, horiek biltzeko eta zaborra jasotzeko auzolanerako herritarren laguntza behar da. 09:30ean abiatuko da auzolana; bukatzen denerako hamaiketakoa prestatuko du Udalak.



Benedikta Bergaretxe Elgetako kanpandorreko bi kanpai handienei begira. L.Z.



Herrigunea kanpandorretik ikusita. L.Z.

Hil-kanpaien usadio zaharra

"Andrazkoari bost eta gizonezkoari zazpi". Benedikta Bergaretxek dio hori horrela izan dela bere akordu guztian. Emakumeak urteetan bete du eginkizun horrekin, baina ordezkoren bat agertzea nahiko luke usadio zahar horrek jarraipena izan dezan

Larraitz Zeberio ELGETA

Beste herri askotan moduan, Elgetan ere egunero entzuten da kanpai hotsa. Lehen baino gutxiago, baina oraindik ere komunikazio modu bat da honako hau. "Behetik jotzen dira orain kanpaiak. Lehen ere bai. Soka bana zegoen elizako sarre-ra nagusiko alde banatan. Hori bai, haietako bat apurtzen zenean kanpandorrera igo behar izaten genuen. Kanpai-mihitik zintzilik dagoen sokatik tira egin eta jotzen genituen kanpaiak". Benedikta Bergaretxeren ahotik entzun ditugu azalpen horiek guztiak. Aspaldiko urteetan bera arduratzen da tokatzen denean Elgetan kanpaiak jotzeaz. Kanpandorrerako bidea egin dugu haren eskutik. 148 maila igo ditugu martxa onean, eta, uste moduan, herria beste modu batera ikusten da han goitik.



Zazpi kanpai daude kanpandorreen

Sei teilatupean daude eta zazpigarrena —Aingeru kanpaia— teilatu gainean dago. Hilabete da kanpaietako bati mihi-kanpaia aldatu diotela. Apurtu egin zen, eta, pieza berezia izanik, neurriera egiteko eskatu zioten Valentziako enpresa bati. Jesus Montielek ipini zion mihi-kanpai berria lehen planoan dagoen kanpaiari.

Beste leku askotan moduan, denboraren joana markatzen dute, gehienbat, Elgetako kanpaiak. Hamabost minutuan behin entzuten dira herrian. Gaur egun sistema automatiko bat dago ipinita, eta ez du inork antzina moduan atzera eta aurrera ibili beharrik. Hori bai, meza aurretik, hileta elizkizuna dagoenean edo herrian bateren bat hiltzen denean ere jotzen dituzte kanpaiak Elgetan. Behetik jotzen dira, botoi bat sakatzea besterik ez da, baina kasu honetan ere bateren batek hartu behar du ardura. "Batez ere, hil-kanpaien kasuan", dio Bergaretxek. "Andrazkoari bost jotzen dizkiogu, eta gizonezkoari zazpi. Hori horrela da nire akordu guztian", azaltzen du.

Errelebo bila

Oraingoiz, Benedikta Bergaretxeri dagokio ardura hori. "Esango nuke nire aurretik Antonio Markiegi sakristauak jotzen zituela kanpaiak. Hura gauza izan ez zenean batek egingo zuela, besteak egingo zuela... Urteetan nenbilen elizan, eta, azkenean, nik ekion nion". Urtarrilean 81 urte beteko ditu emakumeak, eta pentsatzen hasita dago ordezkoa beharko lukeela. "Noski ardura handia dela. Kanpoan bazaude ere ardura hori duzu, eta deitzen badute pentsatzen dugu: 'Ene! Ezin naiteke joan orain!'. Gainera, arduratsu jokatu beharra dago. 'Hil-kanpaiak jo aurretik familiaren abisua



L.Z.

jaso behar dugu", azaltzen du Bergaretxek. "Batuetan gertatzen da familiak deitu aurretik izatea heriotzaren berri, baina ez ditugu kanpaiak jotzen familiaren abisua jaso arte".

Sasoian onen da oraindik Benedikta Bergaretxe, baina ordezkoren bat azaltzea nahiko luke. "Eskatu dut erreleboa, baina, oraingoiz, ez da inor aurkeztu. Ea norbait animatzen den! Nik erakutsiko nioke", azaltzen du, irribarrez.

Aspaldiko usadioa

Elgetarrek, batez ere adinez nagusienak direnek eta herrigunetik gertu bizi direnek, garrantzi handia ematen diete kanpai hotsei. "Batuetan entzun ez badituzte galdetu egiten dute: 'Gaur ez da kanpairik entzun?'. Horregatik uste dut usadio hau bukatuz gero batek baino gehiagok igarriko lukeela faltan", dio Bergaretxek.

Gauza den bitartean jarraituko du hil-kanpaiak jotzen. Aitortu du, dena den, inoiz-edo jo dituela kanpaiak bere ordezkertuko senitarteko batek.



Elgetako udalbatza martitzenean egindako osoko bilkuran. L.Z.

Udal zerga eta tasa gehienak bere horretan

Elgetako Udalak mantendu egingo ditu eskumenekoak dituen udal tasa eta zerga gehienak. Oposizioa abstenitu egin da. Ohiko egoitza ez diren etxebizitzaren gaineko %100eko errekarua da desadostasun horren zergatia

Larraitz Zeberio ELGETA

Martitzenean egindako osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak 2017rako ordenantza fiskalak. Orokorrean mantendu egingo dituzte udal zergak eta tasak. Hondakinen tasa, hori bai, igo egingo dute %5. Hala, ohiko etxebizitza batek 110,18 euro ordainduko ditu urtean. Base-rirei, aldiz, hobari handiagoa

aplikatuko zaie: %25 izatetik %50 izatera pasako da.

Balio katastralen berrikuspenak ere aldaketak ekarriko ditu Udalak aplikatuko dituen tipoe-tan. Zerga horri dagokion diru-bilketa ez jaisteko Udalak handitu egingo ditu tipok. Jabeek jakinarazpena jasoko dute etxean.

Errekargua etxebizitza hutsei

Oposizioa abstenitu egin zen ordenantza fiskalen onarpenean. Arrazoiak ohiko egoitza ez diren etxebizitzaren gaineko %100eko errekarua izan da. Ez gaude ados errekarua horren aplikazioarekin", esan zuen Gu Geu Elgeta plataformako Mikel Larreak. "Ez dugu ikusten neurri

horrekin etxebizitzak alokairurako merkaturatzen direnik. Zigor moduan ikusten dugu". Iraitz Lazkano alkateak esan zuen Elgetan 118 etxebizitza daudela etxebizitza hutsen errol-dan. "Hamar pertsonako etxebizitza bat, eta ez dago alokatzeko aukerarik". Desadostasunak desadostasun, egoerak plan integral bat eskatzen duela uste dute alde biek.

Zinegotzi karguari uko

"Lan arazoak eta arazo pertsonalak" medio, Agurtzane Alkaldak uko egin dio zinegotzi karguari. EH Bilduk Mirari Larrañaga proposatuko du Alkaldak zituen ardurak hartzeko.

Prozedura berria Espaloiarendako

Udalak prozedura negoziatua ipini du martxan Espaloia kafe antzokiaren kudeaketa nori eman erabakitzeko. Hutsik gelditutako lehiaketa publikoaren inguruan galdetu zuen oposizioak, kezka azalduta prozedurak markatzen zuen erabakitzeko mahai osatu ez izanarekin. Udal arduradunek erantzun zuten hautagaitza bakarria aurkeztu zela lehiaketa publiko horretara, eta ez zela eskatutako gutxieneko baldintzetara egokitzen. Azaldu zuten horregatik ez zela erabakitzeko mahaia osatu, eta kultura batzordean eman zela erabakiaren berri. Kultura zinegotzi Janire Lazkanok gaineratu zuen prozedura negoziatu bat dagoela orain martxan. "Oraingo, bi interesatu daude, eta besterik balego azaroaren 11ra arteko epea zabaldu dugu udaletxean hautagaitzak jakinarazteko".



L.Z.

Arratsalde osoa ipuinetarako

Gaur, barikua, ospatuko dute Arimen Gaur Elgetan. Seigarren mailako ikasleek *Karlistaren altxoraren bila* ikuskizuna egingo dute 20:00etan. Linterna eramateko gomendioa egin dute. Aurretik, 17:20an, Eneritz Artetek *Zenbat gurari!* izeneko ipuin kontalari saioa egingo du liburutegian 4 eta 9 urte arteko umeendako. 19:00etan amaituko da.

Goibekok bi urtean behin egingo du Euskaltzaleen Eguna

Goiena komunitatea

Goibeko / ELGETA

"Goibeko euskaltzaleen topagunetik balorazio oso positiboa egiten dugu bai jaiatzeko bai *euskararen sokarekin* lortutakoaz. 300 lagunetik gora izan ginen sokan euskararen alde. Euskarak partidua kalean jokatzen duela erakutsi dugu, eta animatu gura ditugu herritarrek euskaltzale-

tasunarekin jarraitzea 365 egunetan.

2017an Korrikarekin bat egitera deituko dugu jendea, eta 2018an izango da berriz mezu berriarekin *euskararen soka*. Urtero egitea baino bi urtean behin egitea erabaki dugu.

Erakunde zein norbanako, auzolanean egindako jaiak laguntzaile asko izan zituen. Eskerrak asko denei, bereziki bazkideei; izan ere, haiek emandako dirua erabili dugu egun horretako ekintzak ordaintzeko".

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK - 1. JARDUNALDIA

O. Erostarbe-G. Arizmendiarieta / J. Mañarikua-B. Arabalaza **11-18**
H. Gallastegi-O. Askasibar / I. Retolaza-M. Elkoro **11-18**
I. Ugarteburu-S. Bouzas / J.M. Zubiaurre-P. Larrea **06-18**

PARTIDUAK, 2. JARDUNALDIA

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

H. Gallastegi-O. Askasibar / I. Ugarteburu-S. Bouzas
I. Retolaza-M. Elkoro / A. Telleria-A. Ibarluzea
E. Ormaetxea-A. Valle / M. Beretxinaga-
I. Unzetabarrenetxea
A. Elorza-O. Sasurua / E. Garate-E. Maguregi

Domekan ikasturteko lehen Herrixa Dantza saioa, Espaloian

Goiena komunitatea

Herrixa Dantza / ELGETA

Ikasturte berriko lehenengo dantzaldia iragarri du Patxi Monterok domekarako. Elgetako Udalak lagundutako ekimena da eta Espaloia kafe antzokian izango da dantzaldia. 19:00etan emango diote hasiera, eta, ohiko moduan, ordu eta erdiko iraupena izango du. "Gidatutako dantzaldia da Herrixa Dantza, musika eta dantza tradizional ludikoekin osatutakoa: sokan, bikoteka, soltean, borobilean, taldeka... denetarik. Helburua da animatzen diren herritarrek dantza elkarrekin ondo pasatzea". Kafe antzokiko taberna itxita egongo da.

Zirkulazioa Eibarrera

Eibarko Udalak ez du berriz Elgetarako zirkulazioa moztuko Ipuruan partidua dagoenean. Bi udalen arteko hainbat gestioaren ostean, Eibarko udaltzainburorde Guillermo Argente jakinarazi du Ubitxa kaletik desbideratuko dutela bi noranzkoetako zirkulazioa. "Uste dugu irtenbide egokia izan daitekeela, eta domeka eguerdiko Eibar-Villarreal partiduan egingo dugu proba lehen aldiz. Bi udaltzain ipiniko ditugu aldizkako zirkulazioa antolatzeko".



Arantzazuko Aixkirri baserriaren aurrean egin zuten prentsa agerraldia Arantzazu Defenda Dezagun! plataformako kideek, harrobia atzean zutela O.E.

Ez dute harrobia handitzerik gura

Oñatiko udalbatza osatzen duten bi alderdiak, EH Bildu eta EAJ, daude Arantzazuko harrobia handitzearen kontra, ingurua naturagune babestua delako eta ondorioak handiak izango liratekeelako. Bailarako hainbat eragile ere aurka agertu dira.

Oihana Elortza OÑATI

1960ko hamarkadaren hasieran jarri zuen martxan Arantzazuko harrobia Patricio Etxeberria enpresak. Egun, Aridos Aloña ustiatzen du eta handitzeko proiektua aurkeztu du Eusko Jaurlaritzan. Handitzea lortuko balu, egun duen zabalera bikoiztuko luke, 52.300 metro karratutik 100.000 metro karratura. Harrobia non dagoen eta proiektu horrek ekarriko lituzkeen ondorioak ikusita, handitze horren aurka daudela adierazi dute udalbatza osatzen duten alderdi biek, EH Bilduk eta EAJk. Baita Arantzazu Defenda Dezagun! herri plataformak osatzen duten bailarako hainbat eragilek ere.

Herri plataforma

Plataforma horretan daude, adibidez, Arantzazuko auzotarrak, frantziskotarrak, Aloña Mendi-

ko mendi saila, eskalatzaila taldea, Aloñako lagunak, Oñatiko gaztetxea, Oñatiko Naturzaliak, Naturtzaindia taldea eta Bergarako Mendia Bizirik Pol-Pol taldea. Eguzki taldeak, EH Bilduko batzarkide batek eta Oña-

tiko eta Elgetako Udaleko EH Bilduko ordezkariak ere babestu zuten plataformak joan den zapatuan egin zuen prentsa agerraldia.

Pello Zabalak hitz egin zuen guztien izenean eta kontra ego-

Jaurlaritzak erantzun behar du

Duela urte pare bat Jaurlaritzak txosten bat eskatu zion udalari handitze horrek izango lituzkeen ondorioak jasoko zituena. Teknikarien eta adituen laguntzarekin egin zuen udalak txostena eta Jaurlaritzara bidali. Orain Aridos Aloña enpresak berak egin du txosten bat proiektuak naturan ze eragin izango lukeen adierazteko. Udalak alegazioa jarri du horren kontra egoera biologo batekin batera landuta, "forma kontuengatik bakarrik ikusten delako orokortasunean oinarritutako txostena dela". Naturtzaindia taldeak ere jarri du; azaroak 3ra arte aurkez daitezke. Handitzearen proiektua ez dago oraindik onartuta eta Jaurlaritzak du baimena emateko eskumena. Saiatu arren, GOIENAK ez du ez Jaurlaritzaren ez enpresaren erantzunik jaso.

teko dituzten arrazoiak aipatu zituen. Azaldu zuen ez dutela ulertzen inguruak dituen balioak bultzatzeko instituzioek egin duten esfortzua kontuan izanda, "naturaren balioak, sinbolikoak zein bisitariak erakartzekoak", nola etor daitekeen orain horrelako proiektu bat. Ingurua aldatzeak Natura 2000 eremua arriskuan jarriko lukeela aipatu zuten. Gainera, "sortuko duen hautsak inguruko zelai, akuifero eta babestutako floran izango duen eragin kutsatzailea handia izango da akuifero garrantzitsuak dituen unitate hidrologikoa izanik, egungo ur dinamika guztiz aldatuko du", Zabalak esan zuen moduan.

Dardara

Handitze horrek legearen aldetik ere distantzia arauak ez dituela errespetatzen esan dute plataformako kideek. Diote legearen arabera harrobiak etxebizitzetatik gutxienez bi kilometrora egon behar direla; Arantzazu bera 1,5 kilometrora dago eta hainbat baserri 100 eta 400 metro artean. Horrek auzotarren zein ibiltarien segurtasuna arriskuan jartzen duela adierazi dute. Gomiztegi Artzain Eskola ere oso gertu dago, harrobiaren gainean. "Lan jardun handia izan duten urteetan harriak etxeraino etorri dira eta dardarak askotan igarri ditugu", dio Gesaltzako Elias Zumaldek. Dardara horiek Arantzazuko santutegiko leihoetan ere igarri izan dituzte.

EH Bildu kontra



MIKEL BIAIN
ALKATEA

Mikel Biain alkateak azaldu duenez, Udal Gobernu proiektuaren kontra dago erabat. "Handitze hori kokatzen da Natura 2000 eremuan. Eremu hori babestua da eta babes hori ez da kasualitatea; inguru horretan dagoen fauna, flora eta habitatak balio handikoak direlako dago babestua. Gainera, Europako araudiak babesten duen eremua da. Astakeria da momentu honetan harrobiaren handitzea proposatzea".

Udaleko Ingurumeneko eta Hirigintzako teknikariak eta Mercedes Balentzuela biologoak ere eman zituzten azalpenak martitzeneko bilera irekian.

Proiektuaren aurka EAJ ere



LOURDES
IDOIAGA
EAJ

EAJ ere handitzearen kontra dago. Horixe esan du udal bozeramaileak, Lourdes Idoiyagak. "Handitzeko proiektuaren kontra gaude gu ere eta hori argitu gurako genuke. Handitzearen kontra eta udalak aurkeztu dituen alegazioen alde gaude. Guk kritikatu duguna da Udal Gobernuak beste bide zuzen eta eraginkorragorik ez erabili izana hain garrantzi handia duen gai honekin, baina proiektuaren aurka gaude eta alegazioaren alde", zehaztu du Idoiyagak.

EAJk prentsa oharra ere atara du, Idoiyagak esandako horixe berresten duena.

Kondeen kriptara bisita bereziak, asteburuan

Santu Guztien zubia dela eta, Turismo Bulegoak bisita bereziak antolatu ditu kondeen kriptara ezagutzeko, domekan eta astelehenean, 13:00etan; bestalde, Arrikrutzeko Kobek ere egunero irekiko dituzte ateak eta erreserba egitea gomendatzen da

Eneko Azurmendi OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoak bisita gidatu bereziak eskainiko ditu Oñatiko Mikel Deunaren parrokian dauden hilobiratzeak ezagutzeko, urriaren 30ean eta 31n, domeka eta astelehena. Gebaratar kondeen kriptara eta bertako hilobi gotikoaren berezitasunak nabarmenduko dira bisita honetan.

Bi egunetan, 13:00etan izango da hitzordua, Turismo Bulegoan bertan, eta bertatik abiatuko da taldea, parrokiarantz.

Ohiturak aldatuz badoaz ere, Santu Guztiak eta hildakoak omentzen diren egun hauek, hilerrira joaten jarraitzen du



Oñatiko kondeen kriptara. B. ABARRATEGI

jendeak, hildakoei omenaldi xume bat egitera. Baina hau 1804. urtetik honako historia duen ohitura baino ez da. Lehenago, hildakoak hilobiratze tokia eta lurperatze horien aitzakian eginiko lanak daude gaur egungo ondare artistiko-historiko garrantzitsuenen artean.

Izen-ematea

Bisita hauek gozatu nahi duenak Turismo Bulegoan izango du izena emateko aukera: bertara gerturatuta, 943 78 34 53 telefonora deituta edo turismo@onati.eus helbidera idatzita.

Horrez gain, bisiten gaineko informazio gehiago nahi duenak ere gauza bera egin ahal izango du.

Arrikrutz, egunero zabalik

Bestalde, Arrikrutz-Oñatiko kobek egunero zabalduko dituzte ateak egun hauek eta 53 Galerian zehar lurpeko mundua ikusteko aukera izango du bertaratzen den orok. Aurrez erreserba egitea gomendatzen da, 943 08 20 00 telefonora deituta edota arrikrutz@onati.eus helbidera idatzita.



Logotipo berria. ENEKO AZURMENDI

Logotipo berriak aurkeztu ditu Txantxiku Ikastolak

50. urteurrena betetzen ari den honetan, bi dira irudi korporatibo berriak: alde batetik, hemendik aurrera ikastetxearen irudia izango dena -argazkikoa-, eta, horretan oinarrituta, urteurrena betetzen ari diren ikasturtean zehar erabiliko dutena. "Ikasturte berezi honetan aukera egokia ikusi dugu gure irudia gaurkotzeko", dio Zigor Ibartzabalek, ikastolako zuzendariak.



MOYUA

HILETA ZERBITZUAK
24 ORDUKO ZERBITZUA



- **Kliniketara joaten gara** (Zerbitzu osoak egiten ditugu)
- **Leku aldatzeak**
- **Dokumentazioa**
- **Koroak**
- **Eskelak** (Irrati, egunkari eta paretetan)

Tel.: 943 78 34 47
943 78 06 71

Sakelakoa: 617 44 24 66
mmoyua@telefonica.net

Obispo Otadui 27 (Bolibar auzoan)
20560 OÑATI



1976ko Arantzazuko Igoera, Kortako Gain inguruan. ALOÑA MENDI

50. urteurreneko liburua aurkeztuko dute gaur

Aloña Mendiko txirrindularitza sailaren mende erdia batzen duen lana aurkeztuko dute gaur, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan; bide batez, ziklo-kros denboraldian lehiatuko diren txirrindulariak ere aurkeztuko dituzte ekitaldi berean

Oihana Elortza OÑATI

Gertaera kurioak, lasterketak, bizipen eta anekdotak, babesleak... Hori eta gehiago jasotzen du gaur arratsaldean aurkeztuko duten Aloña Mendiko txirrindularitza sailaren 50. urteurreneko liburua.

Izan ere, mende erdia -1966-2016- betetzen ari da sail hau, eta denbora tarte horretan jatzakoa bildu nahi izan dute lan honetan.

Mende hasieratik

Lan hau, gehienbat, azken 50 urteetan zentratzen da. Hala ere, testuinguru historikoa eman eta gaia herrian kokatze aldera, XX. mende hasieratik txirrindularitzak Oñatin izan duen presentzia ere batzen du.

Lehenengo txirrindularitza taldea 1922an sortu zen, orduko CD Aloña Mendi. Ondoren etorri ziren Oñate Sport edota CD Oñate bezalako taldeak ere.

Oñatin lehiatutako lasterketei dagokienez, 1935eko Arantzazu-

ko igoera izan zen lehena, eta ordutik lasterketa garrantzitsuak izan dira Oñatin: Munduko Ziklo-kros Txapelketa edota Nazioarteko Kriteriuma.

Elkarrizketak

Liburua "hain astuna" ez izateko eta "interesgarriagoa" egiteko asmotan, urteurrenean zehar nola edo hala protagonista izan diren zenbait pertsonarekin elkarrizketak egin dituzte idazki honetan, Eneko Azurmendi liburua idazlearen esanetan. Besteak beste, Jose Antonio Mur txirrindulari ohia, Luis Mari Etxeberria eta Pedro Irurzun *Naparra* presidente ohiak edota Oñatik eman dituen txirrindulari ezagunenetakoz batzuk,

ALOÑA MENDIKO BULEGOAN ETA URZELAI ESTANKOAN EGONGO DA SALGAI, 20 EUROTAN

besteak beste, Mariano Altube, Mikel Lizarralde, Enrique Alonso, Jon Odriozola eta Markel Irizar.

Argazkien garrantzia

Mende erdi honetako argazki ugari aurkitu dituztela dio Azurmendik. "Mota honetako liburuetan, garrantzi handia hartzen dute argazkiek. Horregatik, aukeraketa handia egin behar izan dugu interesgarrienak edo politenak aukeratzeko, ehunka argazki daude eta. Hala ere, herritarrek gustura ikusiko dituzten argazkiak daudela uste dut", azpimarratu du.

Ziklo-kroseko aurkezpena

Ekitaldi berean, ziklo-kros denboraldian arituko diren aurkezpena egingo dute. Kadete mailan, Ander Blazquez, Unai Cueva eta Aritz Torres eta juniorretan, Ander Gartzia. Zuzendari lanetan, Iker Arkauz, Julen Arkauz eta Xabier Aiastui arituko dira.

"Jokalariek konfiantza handia transmititzen didate"

GOTZON URZELAI ALOÑA MENDIKO ENTRENATZAILEA Futboleko taldearen egoera zailaren balorazioa egin du

Eneko Azurmendi OÑATI

Zazpi partidutan puntu bakarra eta aldeko golik ez. Hori da Aloña Mendiko lehen taldearen balantzea orain arte. Hala ere, Urzelai lasai dago, konfiantzarekin. **Egoera zailan zaudete orain.**

Jakin badakigu horrelako egoerak ere tokatzen direla, eta taldea lasai ikusten dut. Egia esan, puntuetan ez da islatzen taldeak egiten duen lana. Entrenamenduetan topera gabiltza, partiduetan ere geroz eta lehiakorragoak gara, eta, horrela jarraitzen badugu, emaitzak etorriko dira. **Zerk huts egiten du?**

Baliabidea edo erreminta zein zen jakinez gero, egoera beste bat litzateke. Garbi dago baloia ez denean sartzen zerbaite falta dela, eta bagabiltza aurreko joko hori hobetzeko automatizazio batzuk lantzen; zelai erdiko jokorekin sorkuntzan, eta abar. Beraz, pazientzia eduki behar dugu eta lasai egon, urduri egonda ez dira-eta gauzak irteten. **Zer moduz ikusten duzu taldea?**

Hori da Aloñak daukan onena. Animo aldetik oso solidoa da taldea, jokalarien konpromisoa eta konstantzia totalak dira, eta, batez ere estutasun egoera ho-



Gotzon Urzelai. GOIENA

netan, niretako, balio handia dauka horrek.

Egoera honi buelta emateko gai ikusten duzu taldea?

Zalantzarik gabe, bestela ez nintzateke hemen egongo. Ni naiz hori pentsatu behar duen lehena, eta konfiantza osoa daukat jokariengan. Pentsatu behar duguna da oraindik partidu asko gelditzen direla jokatzeko, puntu asko daude jokoan. Beraz, lasai egon behar dugu. Ni neu ere lasai nago, jokalariek konfiantza handia transmititzen didate, eta horrek balio du.

Aloña Mendiko futbol taldeen aurkezpena: goo.gl/ldWx08



ALOÑA MENDI

Alberdi eta Astudillo, hirugarren

Pasa den domekan Euskadiko kadete, junior eta 21 urtez azpikoen karate txapelketa jokatu zen Aretxabaletan eta oñatiarrek emaitza onak erdietsi zituzten. Kumitean, Oier Alberdi hirugarren sailkatu zen 21 urtez azpikoetan -84 kilotik behera-. Imanol Astudillo ere hirugarren sailkatu zen junior mailan -55 kilotik behera-.

"Eskerrik asko, bihotzez, ni gonbidatzearen"

BRUNO MONTANE KREBS POETA ETA LITERATURA TOPAKETAKO GONBIDATUA Gaur, egubakoitza, kultur etxean (19:00), Bibliotekaren Eguneko egitarauaren barruan, Literatura Topaketak egingo dira, Ruben Angel Ariasek gidatuta.

Leire Kortabarria OÑATI

Bruno Montane Krebs (Santiago de Chile, 1957) poeta eta zuzentzailea da. Roberto Bolañoren lagun izateagatik ere da ezaguna. Liburutegiko arduradunen esanetan, "Bruno Montanerentzako pertsonaia bat Oñatin izatea ohorea da".

Zer dakizu Oñatirengan?

Heria ez dut ezagutzen, baina Rubenek, antolatzaileak, esan dit ez dela pasalekua, bereziki joan behar dela, helburu argi batekin nonbaitera doan norbaiten gisa. Hori oso itxaropentsua iruditzen zait.

Zer espero duzu topaketa honetarako? Eta zer konpartitu gura zenuke?

Hizkuntzarekiko eta horrek duen esateko moduekiko eta ahotsekiko jakin-mina duten pertsonak aurkitzea espero dut. Hitzen intuizioa eta esateen segurtasuna konpartitzean datza, eta erantzunik ez duen hura tentsioan ipintzean.

Zure olerkien aukeraketa bat egin duzue. Ze irizpideren arabera?

Irizpide nahiko apala jarraitu dugula iruditzen zait, egia esanda. Aukeraketa kronologikoa da. Rubenek aukeratu dituen olerkiak argienak dira, bere iritziz, ez hain heraklitoarrak, baina, duda barik, hortxe gertatzen da agerian ahots poetiko bat eraikitzeke ahalegina.

Poesia urrutikoa egiten zaie irakurle askori. Zer esango zenieke?

Tira, poesiak beti du literatura-ko ahatetxo itsusia izateko arriskua. Benetako poema bat zer den esateko inor ez da ados jartzen, baina gero, zerbait berezia sentitzen dute hizkuntzaren zati azaldu ezin horren aurrean, non hitzen musika eta euren zentzua elkarrekin borrokan eta elkarrekin orekan dauden. Irakurle horiek animatzeko, esango nieke poema ere mundu honetakoa dela, eta denonak diren hitzekin eginda dagoela.



Bruno Montane Krebs. © ANA PORTNOY

"ESAN DIDATE OÑATI EZ DELA PASALEKUA, BEREZIKI JOAN BEHAR DELA; HORI OSO ITXAROPENTSUA DA"

Zure izena Roberto Bolañorenarekin lotuta joaten da; hori gustuko duzu edo gogaitu egiten zaitu?

Ez nau inolaz ere gogaitzen. Hasieran biondako oso garrantzitsua izan zen adiskidetasuna izan genuen, ideian murgiltzea

eta poesiaren aukerak konpartitu genituen. Gogaitzen nauena da bere bizitzaren eta lanaren alderdi batzuen inguruan dagoen mito distorsionatua. Zentzu handiko jainua izan zen Roberto, eta gaueko, idazten ematen zituen gauetako prozeduretan bizitzarekin apustu egin zuen.

Beste ezer esan gura duzu?

Bihotzez eskertzen dudala gai poetikoaren ziurtasunak eta ziurgabetasunak konpartitzeko gonbidapena. Ekintzaz gozatuko duzuela espero dut. Eskerrik asko, bene-benetan.

Makillaje tailerra eta kale-ekintza

Gaur, egubakoitza, 9 eta 12 urte artekoek beldurrezko efektu bereziak sortzeko makillaje tailerra izango dute, Bibliotekaren Egunaren egitarauaren barruan antolatuta. 17:00etan izango da. Eta aurtengo egitarauari amaiera emateko, bihar, zapatua, Kalabazan Kultur Ekimenen eskutik, Olerki Xuxurlatua izeneko ikuskizuna izango da, adin guztietako ikusleendako.

Bi orduko saio horren bidez olerkiak entzun, interpretatu eta xuxurlatuko dituzte parte-hartzaileek. Ahozkotetasuna eta komunikatzeko gaitasuna landuko dira, poesiaren bitartez. Lehenik gazteei olerki batzuk xuxurlatuko dizkiete. Ondoren xuxurlaren parteak landuko dituzte. Azkenik, eurek aukeratutako eta landutako olerkiak xuxurlatuko dizkiete elkarri.



NIRE USTEZ

JON SAGARZAZU ITZULTZAILE ETA FILOSOFOA

Debagoieneko dekathloia

Debagoienean antzinatik daukagu Dekathloi ederra! Ez kirol denda edo lehiaketa, baizik Euskal Herrian giza bikaintasunari eraiki zaion monumentu aitzinenetakoa. Oñatin, Sancti Spiritus unibertsitateko fatxadako erliebean, Herkules heroi greziarraren kondaira erakusten digu: nola bere gaztaroko obenak garbitzeko hamar froga zail ("deka athloi" greziarrez) gainditu zituen.

Berpizkundeko kultura humanistaren eredu miretsiena. Herkulesen erliebe apartaren gainean justu zizelatuak daude balore eta bertute humanisten irudiak: jakintza, kemena, justizia, fedea, maitasuna,... eta hauek erakusteko emakumezkoen eskulturak bakarrik ipini zituzten: emakumea, Errenazimenduko gizakumeen irakasle eta eredu!

Fatxadaren gorenean, erremate gisa, "Plus ultra" legenda –"Beti urrutirago"– ez da lema inperialista hutsala, baizik eta euskaldunoi XVI. mende hartan ezagutu berri zen Mundu Berrira eta mundu guztira zabaltzeko luzatutako deia, gaur ere geure mugak egunero gainditzera gonbidatzen gaituena.

Salgai daude Trikiti Jaialdiko eta afariko txartelak

Azaroaren 12an izango da aurtengo Trikiti Jaialdia, eta jaialdirako zein bukaeran egingo duten afarirako sarrerak salgai daude. Jaialdirako txartelak 12 eurotan daude salgai Arrano tabernan; lizargarateelkarte@gmail.com helbidera mezua bidalita ere eskatu daitezke. Afaritarako txartelak ere Arrano tabernan salgai daude 15 eurotan. Azaroaren 5a da txartelak erosteko azken eguna.

Zortzigarren aldiz antolatutako Lizargarate Trikitizale Elkartek trikiti jaialdia. Hamalau trikitilarik hartuko dute parte, bikoteka, bakarka edo taldeka. Tartean dira, gainera, lau oñatiar.

Eskulan ikastaroetan 165 lagunek eman dute izena

Udaleko Kultura sailak antolatutako eskulan ikastaroetan 165 lagunek eman dute izena. Ikastaro bakoitzean parte hartu ahal izango dutenen zerrendak (zozketa bidez aukeratu dira) kultur etxean daude ikusgai, eta baita www.oñati.eus webgunean ere. Ikastaroak urriaren 31 eta azaroaren 8a bitartean hasiko dira. Nabarmenezkoa da ume eta gaztetxoendako margo ikastaroak izan duen arrakasta: adin askotako 60 neska-mutikok eman dute izena.

Senda belarren tailerra, berriz, urtarrilean hasiko da, eta orduan izango da ere izenemate epea; zehazki, urtarrilaren 9tik 13ra bitartean.

AINHOA LEGARISTI LIZARRA
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA
ARKITEKTOAK

Era guztietako proiektu arkitektonikoak

Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe

Lazarraga Kalea 3, behea 661 09 35 00
20560 Oñati (Gipuzkoa) 645 70 17 52

BULEGOKO
ORDUTEGIA:

Astelehena
Osteguna
Ostirala
09:00-13:00

Asteartea
Asteazkena
15:00-19:00



A+Gas taldeko ordezkariak, Xabi Fernandez 'Purito' eta Joseba Frutos pilotuekin, aste barruan Udalan. XABIER URZELAI

Egutegiko azken igoera izango da Udalakoa

MOTORRA A+Gas taldeak antolatuta bihar, zapatua, egingo dute lehenengoz Udalako Igoera (12:00). 30 pilotu pasa batuko dira irteera puntuan, eta kategoria batzuetan txapelak egongo dira jokoan, egutegiko azken lasterketa izango da-eta Arrasatekoa

Xabier Urzelai BERGARA

Udala auzora inoiz baino azkar- rago igoko dira bihar hainbat pilotu, euren automobilek lagun- duta. Gezurra badirudi ere batek baino gehiagok 200 kilometro orduko -barketarekin- abiadura ere hartuko du tramurik azkar- renean, eta kategoria nagusietan txapelak erabakita badaude ere, beste kategoria batzuetan pilotu asko daude urte osoko lana jokoan dutenak.

Lehia estua, eta askoren artean

Irteera puntuan 33 pilotu batuko dira, eta kopuru polita da bost txanda egiteko. CM kategorietan Xabier Lujua eta Garikoitz Flores izango dira zein baino zein gehi- go. Mitsubishiekin Tarsicio eta Cestafe bergararra izango dira, Schererrek Porsche-a ekarriko du eta Corcuera arrasatearra azkar ibiliko da, ohi moduan, Golfarekin. Lebeiti (R5 Tour de Course), Urien (AX)... Clio Sport autoen arteko lehia... Osagairik ez zaio falta lasterketari.

"Herrira begira egindako lasterketa da"

OXEL ETXEBARRIA
A+GAS TALDEKO ORDEZKARIA

Azken urteotan *motorshow*-a antolatzetik pauso bat aurrera egitea erabaki du A+Gas taldeak. Leintz Gatzagako Igoera antolatzen laguntzen ibili dira aurtan, eta hor batutako esperientzian oinarrituta antolatu dute Udalako lasterketa.

Zer prestatu duzue biharko?

Goizean autoak Mecan egongo dira, eta handik kalejiran joango dira, denak batera, Erguingo Herri Eskola parera; hango zuzenean egongo dira auto guztiak, lasterketa hasteko prest. 12:00etan



X. URZELAI

hasiko dugu lehen txanda, eta guztira 5 txanda izango dira. Txanda bat amaitzen denean Udalako auzotarrak edo jatetxeetara doazenak segurtasun autoak zainduta auzora igo edo auzotik jaitsi ahal izango dira.

Zale asko espero dituzue?

Halaxe gurako genuke, herrira begira egindako lasterketa da-eta, hemen zaletasun handia dagoelako. Gainera, prezioarekin ahalegina egin dugu, 5 euro baino ez ditugu kobratuko, txanda bakoitzeko euro 1 delako. Ea igoera zalez betetzen den.



Eguazteneko aurkezpenaren une bat. GOIENA

"Gizarteko eremu guztiei kirola egiteko aukera eman gura diegu"

ATLETISMOA Azaroaren 5ean egingo dute Antxintxika Krosa, "kalitatezkoa eta atletak zaintzeko helburuarekin"

Xabier Urzelai BERGARA

Antxintxika taldeko ordezkari- ek garbi dute, lasterketa antolatzen hamarkada bat pasa ibili ostean, Sorraluzen hasi eta Bergaran amaitzen den krosak ze helburu izan behar dituen: "Kalitatezko lasterketa izatea gura dugu, atletak zainduta dituenen. Izen handiko lasterketa herrikoien parekoa izatea gurako genuke, baina formatu txikiagoan. Eta, gizarteko eremu guztiei kirola egiteko aukera emango diena", adierazi zuen Aitor Rementeriak.

Aurkezpena Servimasako pab- iloian egin zuten, babesle nagusiaren etxean, eta bertan azaldu zuten, urtero moduan, izen-ematearen zati bat helburu sozial bati zuzendua izango dela: "Aurtan, Fundame elkartera bideratuko dugu laguntza. El- karte horretatik giharretako atrofia espinala ikertzen dabilta,

eta Bergaran neskatila bat dau- kagu, Leire izenekoa, gaixotasun horrekin".

Gartzia, zazpigarrenaren bila

Azken urteotan moduan, 15:00etan hasita gazteendako lasterketak antolatuko dituzte Bergaran -gaz- teek 14:45ean San Martin plazan egon beharko dute-, eta nagusien lasterketa 16:30ean hasiko dute, handbike eta gurgil aulkien pro- barekin. 16:45ean patinatzaileak abiatuko dira, eta 17:00etan ko- rrikalariak (10 kilometro).

Parte-hartzaileei dagokienez, David Gartziak ondo irabazita dauka Antxintxika Kroseko pro- tagonista izatea, durangarra sei ediziotan gizonik azkarrena izan da eta. Emakumezkoetan, berriz, iazko irabazle Maite Maiora ez da proban egongo, Italian egon- go da hura Munduko Kopa lehia- tzen.

FUTBOLA Aurrean dauden UDA eta Mondra etxean

Asteburuan galdu eta gero UDAk bigarren postura egin du salto eta Anaitasuna da lider berria. Hala ere, Aretxabaletak eta Mondrak gertutik jarraitzen dute Azpeitiko taldea, bigarren eta hirugarren postuetan. Hala, Mondrak Mutriku hartuko du bihar eta Vasconiaren kontra jokatu- ko du Aretxabaletak etzi.

FUTBOLA Garitano iazko 2. mailako entrenatzaile onena

Ligak 2015/2016 denboraldiko Bigarren Mailako teknikari onena izendatu du Leganes taldeko bergararra. 2. mailako taldeeta- ko jokalariek aukeratzan dute sariduna, eta horrek saria "be- rezi" egiten duela azpimarratu du Garitanok. *Goiena.eus* atarian Bergarakoari egindako elkarriz- keta duzue irakurgai.

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak buru-belarri ari dira azaroan taularatuko duten zarzuela prestatzen. *La del soto del parral* (Reveriano Soutullo eta Juan Vert) lana eskainiko dute; elkartearen hamazazpigarrena. **Zer moduz doaz prestaketa lanak?** Badoaz poliki-poliki; orain arte egin dugun zailena da askogatik. Oso polita da, baina esfortzu handia eskatzen duena. Aspal-ditik nuen honako hau egiteko gogo, oso gustuko dut eta; bereziki, baritonoaren erromantza. Kanean ere hainbatek proposatu izan didate.

Zer iruditu zaio taldeari?

Uste dut denak haserre daudela nirekin, baita orkestrakoak ere. Badaude-eta errazagoak; hala ere, fin ari dira guztiak lanean. Gurako nuke publikoak egin dugun ahalegin hori baloratzea. **Zelakoa da? Ze ezaugarri ditu?**

XIX. mendeko Segovian kokatuta dagoen landa-drama bat da. Zarzuela oso handia da. Aho-SENDAKO, bereziki, partitura oso zailak ditu; alde horretatik, esan daiteke opera batekin antzekotasun handiak dituela. Madrillgo La Latina antzokian estreinatuta zuten 1927. urtean.

Ohi bezala, honako honek ere maitasun kontuak ditu oinarri.

Halaxe da, bai; ez da azaltzeko samurra, sekulako anabasa da. Gizon batek oinordetzan etxaldea utzi dio bikote bati. Gizon horrek kanpoan bizi den baina herrira itzuli den seme bat dauka eta herriko emakume batekin -Angelita- maitemindu da. Bitxia bada ere, zarzuela guztian ez da azaltzen emakume hori. Angelitak garai baten etxaldeko jabearekin maitasunezko harremana izan zuela daki bikote horrek, eta, horregatik, sekulako ahaleginak egiten ditu semea konbentzitzeko emakume hori ez zaiola komeni. Sekulako karamila sortzen da; azkenean, dena argitzen den arren, sekulako dramatzarra da.

Protagonista paperetarako aurreko lanetakoak aukeratu dituzu.

Kontuan izan behar da herriko kantu ikasgela batetik ezin direla gura beste abeslari atera. Hala ere, balio dutelako aukeratu ditut, eta, duda barik, euren partetik dena jartzen ari dira. Hori horrela, bikote gaztea, *German*, Igor Ganboa, baritonoa, eta *Aurora*, Ruth Osinaga, sopranoa; *Enrike Altuna*, tenorea

"Orain arte egin dugun zailena da, baina gogoz ari gara lanean"

TERE GONZALEZ IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOKO ZUZENDARIA

Arrasateko elkarteak azaroaren 19an, 20an, 25ean eta 26an egingo du *La del soto del parral* zarzuela Amaia antzokian. Datorren astean jarriko dituzte sarrerak salgai.



Tere Gonzalez, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko zuzendaria. A. A.

da semea; etxaldeko bi langileak, komiko papera dutenak, *Catalina*, Cristina Cubillo, sopranoa, eta *Damian*, Mikel Izurrategi, tenorea, dira; *Sabino osaba*, herriko petrikiloa, berriz, Luis Okina, tenorea da. Horiez gainera, *Prudentzio osaba* erromantze-kantaria dago; Bittor Kortabarría da eta ez du abesten, berba bakarrik egiten du.

Pentsatu duzu sekula beste herri batzuetako abesbatzeta joatea fitxaketa bila?

Ez; momentuz ez. Abesbatza guztietan dugu, nire ustez, arazo bera: gizonak falta direla.

Horiez gainera, abesbatza dago.

Abesbatza herria da, oraingoan. Aurrekoetan moduan, 50 lagun inguru daude. Kantu asko ditu; horien artean, kantu ezagunena den *Ronda de enamorados*.

Orkestra eta dantzariak ere aipatzekoak dira.

Arrasate Musikaleko Orkestra-koak ere gogor ari dira lanean Iker Olazabal zuzendariarekin. Azaroaren 5ean egingo dugu elkarrekin lehenengo entsegua. Dantzariak, berriz, iaz moduan, Debako Kulunka dantza taldekoak dira. Horiek ere, euren aldetik ari dira lanean.

Hamazazpigarrena; zenbat eta gehiago egin, orduan eta zailagoa ala errazagoa?

Gure jokamoldea oso argia da: zarzuelatik zarzuelara zerbait gehiago eskaintzen saiatzen gara, baina egia diotsut: lan gehiago ezin dugu egin. Esperientzia ere garrantzitsua da, nola ez; abeslariak ohituta daude taularen gainean egoten, eta horrek beste naturaltasun bat ematen du. Garrantzitsuena, baina, gogo da, eta alde horretatik ez dut inongo kezarik. Elkarrekin gaude guztiak, itsasontzi berean.

Gogo hori ikuslearen aldetik ere ikusten duzue?

Baietz esango nuke; Amaia antzokia lau egunetan ia betetzea ez da erraza eta guk lortzen dugu. Oso pozik gaude publikoarekin.

Aurrez egindako zarzuelak

- 2000 *La tabernera del puerto* (Pablo Sorozabal).
- 2001 *Katuska* (Pablo Sorozabal).
- 2002 *Los Gavilanes* (Jacinto Guerrero).
- 2003 *Luisa Fernanda* (Federico Moreno Torroba).
- 2004 *El huésped del Sevillano* (Jacinto Guerrero).
- 2005 *El Caserio -euskaraz-* (Jesus Guridi).
- 2006 *La leyenda del beso* (Reveriano Soutullo eta Juan Vert).
- 2007 *El duo de la africana* (Manuel Fernández Caballero).
- 2008 *El barberillo de Lavapies* (Francisco Asenjo Barbieri).
- 2009 *La corte del faraón* (Vicente Lleó).
- 2010 *La gran Vía* (Federico Chueca eta Joaquín Valverde).
- 2011 *La revoltosa* (Ruperto Chapí).
- 2012 *Gigantes y cabezudos* (Manuel Fernández Caballero).
- 2013 *La tabernera del puerto* (Pablo Sorozabal).
- 2014 *La rosa del azafrán* (Jacinto Guerrero).
- 2015 *La alegría de la huerta* (Federico Chueca).

Diskoan aurkezpen ugari Kooltur Ostegunetan

Azaroan, Txuma Murugarren, Inoreneroni, Liher, eta Niña Coyote eta Chico Tornado izango dira Arrasateko gaztetxean, egunetan, Kooltur Ekintzak taldearen eskutik

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Kooltur Ekintzak taldekoak gustura daude denboraldiko lehenengo kontzertuen harrerarekin. "Señor No oso borobil egon zen; sasoi daudela erakutsi zuten. Bigarrenean, Zingira, proposamen arriskutsua izan zen, baina jendeak oso ondo erantzun zuen. Petti & Etxeko Uztak taldearen emanaldia ere ikaragarria izan zen; eta atzokoa ere, ederra!", kontatu du Iker Barandiaranek.

Lehenengoa, Txuma Murugarren 80ko hamarkada bukaerako Sasoi Ilunak taldeko abeslariak asteen argitaratu duen zazpigarren diskoa, *-Zerbait ari da gertatzen hor-* aurkeztuko du azaroko lehen egunean. Pop-rocka, malenkonia eta ironia ditu Murugarrenek ezaugarri nagusi.

Inoreneroni, azaroaren 10ean Uda aurretik grabatu zuten *Ien-nei* lanarekin datoz. BAP taldekoek sortutako taldea da, eta



Txuma Murugarren, 2014. urteko *Kulturte Akustikoak* kontzertuan. IMANOL SORIANO

haren esentzia mantentzen duena. Pop-rock talde irudimentsua, hirugarrenez, Koolturen.

'Hauts' eta 'EATE' lanak ere bai Ikaragarritzko ahotsa duen Lide Hernando donostiarrak gidatzen

duen Liher laukoteak atera duen *Hauts* aurkeztuko du azaroaren 17an. Ursula Strongek eta Koldo Sorettek osatzen duen Niña Coyote eta Chico Tornado boro-bilduko dute azaroko eskaintza, *EATE* lanean oinarrituta.

Iparraldeko Etchevers artistaren lana, Durangoko Azokako irudia

Abenduaren 2tik 6ra bitartean izango da euskal kulturaren eta askotariko sortzaileen topaleku izarra

A. A. ARRASATE *Bizitzekoa DA!* leloa aukeratu du Gerediaga elkarteak 51. Durangoko Azokarako, urtero azokara joateko ohitura dutenez gainera, euskal hiztunak ez direnei ere gonbidapena egiteko asmoarekin.

Aurtengoa, aurreratuta dator Abenduaren 2tik 6ra bitartean izango da; horrela iragartzen du Christine Etchevers margolariak egindako kartelak. Lehenengo aldiz, Iparraldeko artista baten lanak irudikatuko du kul-

turen plaza. Baionan jaiotako eta gaur egun Kanbon bizi den artistak, margolaritza figuratiboa lantzen hasi bazen ere, arte abstraktua landu du geroago, batez ere, kultura zaharren sinbolo edo grafismoan oinarrituta. Durangoko Arte eta Historia Museoa izango dira Etcheversen lanak ikusgai.

Kartelaren egileaz harago, Azokan Ipar Euskal Herriko eskaintza zabala izateko ahalegina egin dute, Gerediagaren eta Euskal Kultur Erakundearen hitzarmenak hamar urte bete dituela eta.



Aurtengo edizioko kartela. G. E.

Ikasle Eguna, indartuta Ikastetxetatik Azokara joateko antolatzen dute Ikasle Eguna lehenengo egunean. Ohiko ekintzez gain, nagusientzako ere izango dira, deialdi berezia egingo da euskara ikasten ari direnei.

Goiena Klubaren txokoa

Zorionak urriko saridunei!

AUTORAKO IRAKURGAILUA
Miren Lasagabaster Altube (Aretxabaleta)

'PERRETIXIKO ZAINDARIAK'
Trini Galdos Urzelai (Oñati)

ARRIKRUTZERAKO BINA SARRERA
Iker Larrea Soraluze (Antzuola)
Xabier Mugartza Alastui (Oñati)
Nerea Perez Idigoras (Arrasate)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Amaia Sologaitoa Agirre (Oñati)

BASKONIA-OLYMPIACOS PARTIDURAKO BINA SARRERA
Enara Gallastegi Oruesagasti (Bergara)
Mikel Iturbe Andres (Arrasate)
Iker Ayesa Azkoaga (Arrasate)
Arantza Fernandez de Ganboa Landa (Arrasate)

'HEROIAK' ANTZEZLANERAKO BINA SARRERA
Aritz Alustiza Beristain (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sarrera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araoz Auzoa. OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako oterrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Lehen bi sariak** jasotzeko, zatorz GOIENAREN egoitzara. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da. GOIENA Otolara Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.

'MAGIA LAPURRA' IKUSKIZUNERAKO SARRERAK
Neida Gabilondo Isasisasmendi (Aretxabaleta)

'EL BARBERO DE SEVILLA' OPERARAKO BINA SARRERA
Raul Fernandez Manchado (Arrasate)

SIRIMIRI JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Jesus M. Labaka Arando (Bergara)

UXARTE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Nerea Sarasua Arozeta (Elgeta)

DUKIENA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Miren Urzelai Eizagirre (Oñati)

MAULANDA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Jesus M. Arriaran Otaegi (Oñati)

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

'Aingeru ala kuriloi?' antzezlana ikusteko sarrerak ditugu

Amaia antzokian, Arrasaten. | Azaroaren 6an, 19:30ean

PARTE HARTZEKO:



E-postaz: kluba@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "ikuskitzunen izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotatik sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

GOIKO-BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05  kluba@goiena.eus

  **KLUBA Jatetxea** [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...




Bazkidetu zaitez: 2016 + 2017 osoa: 55 euro. Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA



Jaione Bengoa Eraña 

2016ko urriaren 25ean hil zen.

*Urte asko batera
baina ez da nahikoa
Hala ere oroitzapena da betiko
Amamari onena
ta bihotz oneko
Ez zaitugu ahaztuko
baina bai maiteko.*

Leire, Naiara eta Maider.
Arrasaten, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA



Juan Jose Arregi Agiriano-Zabalaga 

2013ko urriaren 31n hil zen.

*Izan zarena izan zarelako,
garena gara.
Eskerrik asko, aita.*

Arrasaten, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA

Xabi Arrillaga Bengoa 

Hartu zenuen lehenengo arnasetik azkenera arte
borrokalaria eta eredugarri izan zaitugu.
Benetako maitasuna eta poza zer den erakutsi digun
gure Xabiri eskerrik asko.

Zure familia.
Bergaran, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA

Xabi Arrillaga Bengoa 

Bergarako Musika Eskolako ikaslea

*"Bihotz alaia dugulako..."
Betirako gurekin kantuan,
betirako gure bihotzetan.*



Bergaran, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA

Xabi Arrillaga Bengoa 

2016ko urriaren 25ean hil zen.

*Xabi, gure parte zinen,
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.*



Ipintza institutuko guztiok.
Bergaran, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA

Xabi Arrillaga Bengoa 

2016ko urriaren 25ean hil zen.

Xabi, beti gogoan, beti gurekin.



ZIG gelako ikasle, guraso eta irakasleok.
Bergaran, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA

Xabi Arrillaga Bengoa 

2016ko urriaren 25ean hil zen.

*Goiko lepo gainean
ilargia duzu,
zuregana heldu da
ematera musu.
Patxo haundi bat danon partez, Xabi!*



Bergaran, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA

Balentin Etxeberria Unzalu 


2016ko urriaren 22an hil zen, 96 urte zituela.


*Amama zain zauela eta aguro itxi gaittuzu,
baina zure nortasun eta indarraz geratu gare.
Eskerrik asko, aitxitxa.
Eta patxo haundi bat amamai, gu danon partez.*

Izaro eta Xabi, Done eta Jokin, Illart eta Ziortza, Nerea eta Jon,
Enaitz eta Nerea, Ahinitze eta Alex, Maier eta Aitor, Xabier, Aitor eta
Ana, Asel, Lide eta Jon. Birbilobak: Oxel, Laida, Ekain, Intza.

Aretxabaletan, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA



Balentin Etxeberria Unzalu 

2016ko urriaren 22an hil zen, 96 urte zituela.

*Gure baitan eramango zaitugu beti.
Zure indar eta adorea erakutsiko digu aurrerantzean ere bidea.
Eskerrik asko!*

Etxekoak.
Aretxabaletan, 2016ko urriaren 28an.

OROIGARRIA

Jose Ignacio Moreno Gamazo 

(Luis Ezeiza HLHko ikastetxeko gurasoa)

2016ko urriaren 22an hil zen.

Luis Ezeiza Herri Eskolako Komunitateak
bat egiten du familiaren saminarekin.



Eskoriatzan, 2016ko urriaren 28an.

URTEURRENA



Kepa Jauregi Olabe 

2014ko urriaren 28an hil zen.

Bigarren urteurreneko meza
domekan izango da, urriaren 30ean, 11:30ean,
Aretxabaletako Jasokundeko Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Aretxabaletan, 2016ko urriaren 28an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire
lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean
maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1951ko arrasatearrak**

Frias herrian bisita gidatu berezia egin eta Medina de Pomar-en bazkaldu zuten joan den zapatuan. Loteria erosita eta dantzan eginda bueltatu ziren Arrasatera.

**1949ko arrasatearrak**

Bizkai aldera joan dira aurten, egun-pasa, kintada ospatzeko. Oso ondo antolatutako irteera izan zen, kantuekin animatutako txangoa. Hurrengorako prest daude denak.

**Arrasatetik Urbiara**

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarateak antolatuta, Arantzazutik Urbiara joan ziren ikasle eta gurasoak, hemezortzi lagun guztira. Ederto ibili ziren.

Musakolakoak Errumanian

Musakolako kuadrilla honek hamar eguneko bidaia egin du Errumaniara. Hango herriak, eraikinak, pinturak lakuak eta parkeak ikusi dituzte, besteak beste, eta brandya probatu dute. Transilvaniara ere joan dira. Hantxe dago Dracula kondearen gaztelua, eta ate joka ibili ziren.

**Mila eta Jesus Mari**

Mila eta Jesus Mari azaroaren 3an ezkondu ziren, orain 25 urte, eta asteburuan ospatuko dute. "Zorionik beroenak! Egun ederra pasatu eta primeran ospatu zuen zilarrezko ezteiak familiarekin eta lagunekin. Musu handi bat, familia osoaren partetik!"



#DIOTENEZ

MORTALA

Urte bereko lagun arteko bazkari-afari sasoiaren udazkena; bereziki, azaroa. Bergaran asko izaten dira. **Gure belarrietara** heldu denez, 1966an jaiotako bergararrak **mortala** prestatzen ari dira. Azaroaren 26an Tartufon elkartuko dira eta Whatsapp taldea osatu dute egun handira begira. Dagoeneko **80 lagun** daude taldean. Batek daki zenbat batuko diren otorduan,

baina **50 urte** ez dira urtero betetzen. Aurten bai!

SUPERMERKATUA

Arrasate sarreran, Musakola auzoan, **eraikitzen** ari diren supermerkatuek laster zabalduko dituzte ateak. **LIDL eta Super BM** etxeenak dira denda horiek. Orain ere badago LIDL bat Arrasaten, Aretxabaletara bidean. Bada, hori azaroaren 9an itxiko dute eta 17an **zabalduko dute** Musakolako.

ABIADURA

Arrasaten, Atxabalpen entrenatzen diren **futbol jokalar** batzuek kristoren autoak dauzkate, **potentzia handikoak**. Eta, hain zuzen, gazte horiek uste dute Markuleteko zuzena autobide bat dela, **zitzu bizian ibiltzen** dira eta. Ba ez, ez da autobidea. **70 km/h** abiadura muga ezartzen duen kartel bat dago. **#errespetatu**

ARETXABALETA

Euskal untxiaren telebistako iragarkia **Arteman** enpresak egin du eta hainbat aretxabaletar agertzen dira hor, besteak beste **Mario Unanue** eta **Jasone Gartzia-Etxabe**. Eskoriatzako Gorosarri landetxean grabatu zuten, bertakoek trukean ezer eskatu gabe.

MUNDUKO TXAPELKETA

Fernando Cobos bergararra 2017an Txekian izango den **canicross modalitateko** munduko

txapelketarako sailkatze bidean da. Ea, ba, zortea lagun izan eta **txartela** lortzen duen!

AZOKA

Herriko artisauen azoka egin dute Oñatin **Gabonen bueltan** azken urteetan eta aurten ere egitekotan dira. Oraindik ez dute data zehatzik jarri, baina azoka egingo da. Herritarrek egindako **artelanak erosteko aukera** egongo da berri!

ZORION AGURRAK



ARAMAIO
Oier Elejalde Barros
Azaroaren 2an, 3 urte.
Zorionak, etxekoan partetik, gure etxeko mutikoari zure hirugarren urtebetetze egunean. Asko maite zaituzte gurasoek eta aiton-amonek.



ARRASATE
Nahia Domingos Garay
Azaroaren 2an, 4 urte.
Zorionak, maizia! Handitzen-handitzen... j-lau urte bete dituzu! Zorionak eta muxu handi bat, familia osoaren eta, batez ere, Aimarren partetik.



BERGARA
Gorka Reparaz Arenaza
Urriaren 31n, 6 urte.
Zorionak, Gorka! Oso ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat, etxeko danen partetik.



ESKORIATZA
Maider Aguilera
Urriaren 31n, 13 urte.
Zorionak, Maider! Ondo-ondo pasatu zure egunien! Asko disfrutatu lagunekin eta familiariarekin! Patxo handi-handi bat, danon partetik!



BERGARA
Ane Jauregi Elortza
Urriaren 31n, 9 urte.
Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure eguna. Pa, pa eta pa.



ARRASATE
Saioa Bergaretxe Astigarraga
Urriaren 30ean, 5 urte.
Zorionak, maizia! Oso ondo pasatu zure eguna. Asko maite zaitugu. Arrateren, aitatito eta amabaxoren, aittitteren eta amamaren partetik.



ESKORIATZA
Kimetz Karpio Azpitarte
Urriaren 30ean, 5 urte.
Gure txikitxu alaiena, zorion bero-beroak bosgarren urtebetetzean! Bere osaba Gorka, amama Resu eta aitaia Txomin.



IDIAZABAL
Ekain Zabaleta Urteaga
Urriaren 30ean, 2 urte. Bi urte jada gure mutikobuak! Zorionak, lastana, familiako guztion eta, batez ere, Jareren eta Aiurren partetik! Patxo handi bat Musakolatik!



BERGARA
Oinatz Gallastegi Etxeberria
Urriaren 30ean, 3 urte.
Zorionak, Oinatz! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu handi bat, etxekoan eta laguntxoan partetik.



OÑATI
Paul Anduaga Arregi
Urriaren 29an, 4 urte.
Zorionak, Paul, jada 4 urte! Musu handi bat etxeko danon eta, bereziki, Sararen, Maddalenen eta Martinen partetik.



ESKORIATZA
Eleder Garcia Hermosel
Urriaren 29an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunian!



ARRASATE
Malen Castillo
Urriaren 29an, urtebete.
Zorionak danon partetik eta primeran pasatu zure eguna.



ARAMAIO
Amets Beitia Otegi
Urriaren 29an, 4 urte.
Zorionak, zure aitabaxoren eta amabaxoren partetik, gure bihotzeko azukre koskorra!



BERGARA
Danel Larrea Zubia
Urriaren 28an, urtebete.
Zorionak, anaitxo! Dagoeneko urtetxo bat. Patxo pila bat zure arreba Naroaren, aitabaxoren eta amabaxoren partetik. Jarraitu oraingo moduko alai izaten. Asko maite zaitut!



BERGARA
June Iturrospe Arondo
Urriaren 28an, urtebete.
Zorionak, sorgintxo! Ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzian. Patxo handi bat, danon partetik.



ANTZUOLA
Oier Aldasoro Azkarate
Urriaren 28an, 10 urte.
Zorionak familia osoaren eta, bereziki, aitarenekin eta amaren partetik. Muxu handi bat.



BERGARA
Haizea Aramburu Moreno
Urriaren 26an, 8 urte.
Zorionak, polit hori! Ikaragarri pasatu zure egunean eta gainontzeko egun guztietan. Maite zaitugu: Uxue, Nahia, aitabaxo eta amabaxo.



ARRASATE
Ekain Madina Otzerinjaurerri
Urriaren 26an, 10 urte.
Zorionak, Ekain! Besarkada estu-estua zure hamargarren urtebetetze honetan! Disfrutatu egunaz!



BERGARA
Aimar Lamikiz Rementería
Urriaren 25ean, 3 urte.
Zorionak, txapeldun. Musu potolo-potolo bat familiaren eta, bereziki, Maddiren partetik!



OÑATI
Maddi Elorza Soares
Urriaren 24an, 5 urte.
Zorionak zure urtebetetzian, *potxo!* Patxo potolo-potolo bat, familiaren partetik!



ARRASATE
Nora Otxandiano Jausorri
Urriaren 24an, 10 urte.
Zorionak, Nora! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat, etxekoan partetik.



BERGARA
Haritz Bilbao Iñarra
Urriaren 24an, 9 urte.
Zorionak, Haritz! Aurten 9 kandelaxu biaki zure egunian, ze handi in zaren. Ondo pasatu zure egunian.



ARRASATE
Aitor Canales Losa
Urriaren 23an, 7 urte.
Zorionak, *pitxinkote!* Ondo pasatu zure egunean, maitia. Muxu potolo-potolo etxeko guztien eta, bereziki, Alazneren partetik.



BERGARA
Aratz Maeztu Elkoroberezibar
Urriaren 23an, 5 urte.
Zorionak, pitxin! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat, zure familiaren partetik. Batez ere Unax, Ander eta Irati.



OÑATI
Maialen Goñi Arevalo
Urriaren 23an, 8 urte.
Zorionak eta ondo pasatu zure eguna. Familiaren eta lagun guztien partetik. Bereziki Eiderren partetik.



OÑATI
Ane Arrieta Sansinenea
Urriaren 22an, 3 urte.
Zorionak, Ane! Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat etxekoan eta, batez ere, Oierren eta Eleneren partetik.



ARRASATE
Txaro Azkarate Zabarte
Urriaren 22an, urtebetetze.
Zorionak, tia Txaro! Familiako guztien partetik.



OÑATI
Eñaut Arenaza Arriaran
Urriaren 22an, 3 urte.
Zorionak, karramarro! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxo handi-handixak, etxeko danon partetik!



BERGARA
Beñat Villar Jimenez
Urriaren 22an, 10 urte.
Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Patxo eta besarkada potoluetan, zure familiaren partetik!



OÑATI
Amair Beitia Urkia
Urriaren 22an, 2 urte.
Zorionak, Amair! Gure neskatilaxoak bi urte betetzen ditu. Ondo pasatu eta muxu potolo bat, etxekoan partetik.



GASTEIZ
Paula Zubia Murugarren
Urriaren 22an, 3 urte.
Zorionak, Paula! Hiru urte jadanik. Muxu handi-handi bat zure familia osoaren partetik. Zorionak, printzesa!



ARRASATE
Urki Garitaonandia Uriarte
Urriaren 21ean, 11 urte.
Zorionak, mutikote! Oso ondo pasatu zure egunean. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Eneko Lezeta Urkia
Urriaren 21ean, 17 urte.
Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



OÑATI
Xabi Soares Fernandez
Urriaren 20an, 6 urte.
Zorionak, gizontxo! 6 urtez! Familiaren partetik, muxu potolo bat, *guapo!*



OÑATI
Aiert Marko
Urriaren 20an, 3 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta patxo handi bat, danon partetik!



ARRASATE
Lier Torres Sanchez
Urriaren 20an, 7 urte.
Zorionak, maizia! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Muxu handi bat, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Lier, Nerea eta Aitor
Urriaren 18an, 7 urte.
Zorionak, hirukote! Disfrutatu operara zure eguna eta mila muxu parkeko lagunen partetik!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 28

ARRASATE Liburu eta disko azoka

Berreskuratutako liburuen eta diskoen azoka solidarioa.
Sebero Altuben, 09:30-14:00 eta 16:30-19:30.

OÑATI Ongietorri festa Kuboan

Lehen Hezkuntzako 3. mailako neska-mutikoendako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

OÑATI Beldurrezko efektu berezien makillaje tailerra

9-12 urte arteko gaztetxoendako.
Bibliotekan, 17:00etan.

ELGETA Eneritz Artetxeren ipuin kontaketa saioa

Zenbat gurari! delako saioa egingo du 4-9 urte arteko neska-mutikoendako.
Liburutegian, 17:30ean.

BERGARA Lupe Lekuonaren ipuin kontaketa saioa

3 urtetik 6-7 urte bitarteko haurrendako.
Liburutegian, 18:00etan.

BERGARA 'Valleko Kondea' erakusketa

Valleko kondea, modernitatea eta tradizioa. Garai aldaketa baten isla delako erakusketa azaroaren 13ra arte.
Aroztegin, 18:00etan.

OÑATI Oñatiko bigarren literatura topaketa

Bruno Montaña: vida, obra y oficios de un poeta delako solasaldia, Ruben Ariasek gidatuta.
Bibliotekan, 19:00etan.

ARRASATE Onintza Enbeita eta Anna Gabriel

Lehenak bigarrenaren elkarrizketatuko du *Emakumeak protagonista* zikloaren barruan.
Kulturaten, 19:00etan.

OÑATI 'Aloña Mendi txirrindularitza sailak 50 urte' liburua

Argazkiak eta elkarrizketak sartu dituzte mende erdiko errepasoa egiten duen liburuan. Ostean



GOIENA

ARRASATE Brother Hawk eta The Young Wait

AEBetako taldeak Big Medicine diskoa aurkeztuko du. Southern rock, blues eta american doinuak landu dituzte hamar abestitan. Eurekin egongo dira The Young Wait gipuzkoarrak. Sarrerak, zazpi euro.
Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian, 20:00etan.



GOIENA

ARETXABALETA 'Heroiak' antzezlan

Gerran zauritutako hiru beteranok (Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Ramon Soroz) soldaduentzako zaharren egoitzan egingo dute topo. Bizitzaren joanari eta etorkizunari erreparatuko diote. Sarrerak, lau euro.
Bihar, zapatua, Arkupen, 22:00etan.

(19:30) ziklo-kros taldearen aurkezpena egingo dute.
Udaletxean, 19:00etan.

ELGETA Karlistaren altxorra

Arimen Gauarekin lotutako ibilbide antzetzua egingo dute 6. mailako ikasleek.
Mendizaleen plazan, 20:00etan.

OÑATI Elkartasun afaria

Parrokiako Misio taldearen ekimena. Batzen den dirua Maliko eskolara bideratuko da. Bestalde, afalostean, Haitin bukatu duten proiektuaz berba egingo dute.
Bidaurretan, 20:30ean.

ZAPATUA 29

OÑATI Iruñeko gaztetxearen inaugurazioa

Autobusa Oñatitik.
Gaztetxean, 09:00etan.

ANTZUOLA San Jose ingurua txukuntzeko auzolana

Sastrakak garbitzeko lanak asteon egin dituzte eta orain, horiek bildu eta zaborra jasoko dute. Auzolanerako herritarren laguntza behar da. Ostean, hamaietakoak.
San Josen, 09:30ean.

ARRASATE Murugainera bisita

36ko gerrako aztarnak gain, aurten Burdin Aroko aztarnak bilatzeko ahalegin berezia egingo dute. Auzolanak aurrera segitzen du eta hango lana ikustera joango dira.
Murugainera, 10:00etan.

ESKORIATZA Perretxikoak biltzera

Luis Ezeizako guraso elkartearen eskutik. Perretxikoak ezagutu, bildu eta sailkatu egingo dituzte.
Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.

OÑATI Asisko espirituari buruzko jardunaldia

Tangerko artzapezpiku Santiago Agrelok gidatutako saioa. Hitzaldia (10:30), otoitzaldia (12:30) eta bazkaria (13:30). Aldez aurretik eman behar da izena, 669 25 68 52 telefonoan.
Gandiaga topagunean, aipatutako orduetan.

BERGARA 'Bergarako besarkada'-ri buruzko bisita

Mikel Alberdi historialariaren bisita gidatua, gaztelaraz.
Laboratoriumen, 11:00etan.

OÑATI 'Olerki xuxurlatua'

Kalabazan kultur ekimenak taldearekin. Herritar guztiendako ikuskizuna.
Oñatiko kaleetan, 11:00etan.

OÑATI 'Herrixa kantuan'

Kantu jira, Txantxiku Ikastolaren eta Jose de Azpiazu musika eskolaren eskutik.
Foruen plazan, 12:30ean.

ESKORIATZA 'Gaba baltza' prestatzen

Kalabazak hustuko dituzte, ostean kriseiluak egiteko.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE 'Gaba baltza' prestatzen

Beldurrezko maskarak egingo dituzte.
Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

ARETXABALETA 'Gaba baltza' prestatzen

Kalabazak hustuko dituzte, kriseiluak egiteko. Ostean, afari-merienda egingo dute gazteek.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ESKORIATZA 'La familia bien, gracias' antzezlan

Ausaradi taldearen emanaldia, gaztelaraz. Sarrerak, hiru euro.
Zaldibarren, 19:00etan.

ARRASATE Monse Roldanen eta Blanca Martinezen erakusketa

Arte figuratibotik espresionismora bilduma ikusgai, azaroaren 14ra arte.
Kajoi tabernan, zabalik dagoenean.

DOMEKA 30

ELGETA Bisita gidatua lubakietara

Aurrez eman behar da izena: *turismo@debagoiena.eus* helbidean edo 943-79 64 63 telefonoan.
Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

ESKORIATZA Perretxiko erakusketa

Laudioko mikologia elkartearen erakusketa, perretxikoak

ezagutzeko. Umeendako marrazki lehiaketa ere egongo da.
Fernando Eskoriatza plazan, 12:00etan.

OÑATI Kondeen kriptara bisita gidatua

Mikel Deunaren parrokiaren dagoen hilobi gotikoaren berezitasunak azalduko dituzte. Turismo bulegoan, 13:00etan.

ARETXABALETA 'Magia lapurra'

Dorletak magoa izan gura du eta casting batera aurkeztuko da. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 17:00etan.

ARRASATE Beldurrezko filma

Gazteendako emanaldia.
Erdiguneko gaztegunean, 17:30ean.

ARETXABALETA Beldurrezko filma

Gazteendako emanaldia.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ESKORIATZA Beldurrezko filma

Gazteendako emanaldia.
Gaztelekuan, 17:30ean.

BERGARA 'Gaeko entziklopedia kozkorra'

Umeendako antzerki musikatua 2 Princesas Barbudes taldearekin.
Zabalotegin, 18:00etan.

ELGETA 'Herrixa Dantzan'

Gidatutako dantzaldia, Patxi Monterorekin.
Espaloian, 19:00etan.



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

**Hemengo
hizkuntzak**

Ez gara konturatzen. Ez ditugu entzuten. Ez diegu inguruko hizkuntzei erreparatzen. Galdetuko banizu zure herrian zenbat hizkuntza hitz egiten diren, zer erantzungo zenuke? Bost? Hamar? Hamabost?

Unesco Etxearen ikerketa baten arabera, 2008an Hego Euskal Herrian gutxienez 108 hizkuntza hitz egiten ziren. Orain gehiago dira. 2014an Topaguneak hiztegitxoak atera zituen, 50 hizkuntza baino gehiagotan: euskara-urduera, euskara-nepaliera, euskara-wolofera, euskara-bulgariara... Sarean daude: www.hiztegitxoak.eu. Horietako asko Debagoienean jaso zituzten, gainera.

Hizkuntzak jasotzen dihardut azkenaldian. Hizkuntzekin batera, baita ere hiztunen esperientziak. Etorritakoei galdetzen diegu: ea nolatan etorri ziren, hemen nola sentitzen diren, euskarari eta euskaldunei buruz zer pentsatzen duten... Oso aberasgarria ari da izaten. Erantzunak denetarikoa direlako. Topikoak apurtzeko balio duelako. Eta beste mundu ikuskera batzuk ezagutzeko.

Ez gara konturatzen. Ez ditugu entzuten. Ez diegu inguruko hizkuntzei erreparatzen. Inguruko pertsoneri ere ez diegulako behar beste erreparatzen. Ezaguna zaiguna delako erosoena guretzat. Gure munduan jarraitzea. Mundua gurean dagoela jabetu gabe.

BUKATZEKO

Beste kobazulo bat aurkitu dute, ezustean

Aloña Mendi Espeleologia Taldeak aurkikuntza bikoitza egin zuen pasa den zapatuan: batetik, kobazulo berri batekin egin zuten topo, ezaguna zen kobazulo batera ikerketa batzuk egitera joan ostean; eta bestetik, barruan giza hezur batzuk aurkitu zituzten

Eneko Azurmendi ESKORIATZA

Inondik inora espero ez zuten aurkikuntza bat egin zuen Aloña Mendi Espeleologia Taldeak (AMET) pasa den zapatuan, Alabita inguruan, Eskoriatzan. "Alboan zegoen kobazulo batera joan ginen, ikerketa batzuk egitera, eta, sorpresaz, kobazulo berri bat agertu zen. Batzuetan gertatzen dira horrelakoak eta zapatuan hala izan zen", adierazi du Andoni Olalde AMETeko kideak.

Itxura ona hartu dio Olalde kobazuloari: "Nahiko handia da, ez da oso normala hori; gainera, leku oso onean kokatuta dago", nabarmendu du. Gutxi gorabehera, 100 metro inguruko kobazuloa dela adierazi du AMETeko kideak.

Lehenik, katalogatu

Horrelako kobazulo berriak aurkitzean, egin behar izaten den lehenengo gauza katalogatzea izaten da. "Maparen gainean kokatzea da katalogatzea, GPS bitartez koordinadak ateratzea. Sigla bat ezartzen diogu eta gure datu basean sartzen dugu. Ondoren, esploratu, argazki batzuk atera eta topografia egiten dugu; neurri guztiak hartu, alegia", azpimarratu du Olalde.



Alabita inguruan aurkitu duten kobazuloa. AMET

la milagarrena

Olalderen esanetan, euren datu baseari dagokionez, ia milagarren kobazuloa da hau, Aizkorri mailan. "999.a da kobazulo hau, bat falta zaigu milara iristeko Aizkorriko mendikatean, Arrasate ere kontuan hartuta", adierazi du.

Alabita 11

Kobazulo berriaren izena Alabita 11 izango da, inguru horretan dagoen hamaikagarrena da eta. "Kobazulo batzuek izen toponimikoak izaten dituzte, baina beste askok ez; beraz, lekua arabera izendatzen ditugu", azaldu du Olalde.

Giza hezurrak

Zenbait hezur ere aurkitu zituzten bertan. "Duela 3.000 urte ingurukoak izan daitezkeela uste dugu, baina adituen eskutik utziko dugu hori, zehaztu ahal izateko", onartu du Javier Azkoaga AMETeko kideak. "Ez dakigu gizona edo emakumea den ezta pertsona bakarrarenak edo birenak diren ere; Irungo Gordailuaren emaitzei itxaron beharko diegu", dio Azkoagak.



Giza hezurrak dira aurkitutakoak. AMET

2016/2017 Euroliga denboraldia Goiena Klubean.

OLYMPIAKOS 2016/10/27

FENERBAHCE 2016/11/11

BROSE BASKET 2016/11/17

GALATASARAY 2016/12/02

DARUSSAFKA DOGUS 2016/12/09

FC BARTZELONA LASSA 2016/12/21

MACCABI TEL AVIV 2016/12/29

UNICS KAZAN 2017/05/01

IZAR GORRIA 2017/01/24

REAL MADRIL 2017/02/03

EA7 MILAN 2017/03/02

CSKA 2017/03/17

PANATHINAIKOS 2017/03/23

ZALGIRIS 2017/04/06

**Partidu bakoitzeko 4 sarrera bikoitz zozketatuko ditugu!**Bazkidetu zaitetz: 2016 + 2017 osoa: 55 euro. Deitu: 943 25 05 05. goienakluba.com**goienakluba**
Euskara irabazle, denok irabazle!